

ttipi-ttapa



**Anorexiaz hizketan
Aroa Noble
Ezkurako
gaztearekin** / 8



**Patri Arburua:
Bortzirietako Euskara
Mankomunitatearen
gogoeta prozesuaz** / 10

**Joan den urtetik
honat Arkupeak
elkartean 91
bazkide gutiago** / 22

SINADURAK

 GARAZI
ZABALETA
URKIOLA / 3

 AITOR
AROTZENA
ALBIZU / 3

 XABIER
MARITORENA
ZUBIETA / 4

 JOSE RAMON
AMOROS
OSKOZ / 4



ZOKKETA / 68



Ane IGOA MIGELTORENA | PCR probak egiten aritzen den erizaina

«LANEZ BETERIKO UDA ESPERO DUGU»

Beratarrak joan den ekainean bukatu zuen erizaintza gradua eta geroztik PCR probak egiten ari da Bidasoa ospitalean. Horrez gain, aztarnari lanetan eta txertaketetan aritzea ere egokitu zaio. / 20

Mimukai aurrera doa

Parte-hartze prozesua bukatuta, bildutako ekarpenekin txosten bat prestatuko dute orain. / 34

BERA LESAKA

Agenda 2021

MAIATZA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

LESAKAKO
UDALA

20 | SOLASALDIA
BERA,
ZIGARDIBERETIK
IKUSIA:
300 URTE

(Jose Mari Zelaieta Errandonea)
19:00 Kultur etxean
Antolatzaileak Berako Kultur Batzordea eta Berako Udala

BERA

22-23 | ANTZERKIA
"EL HOMBRE
DE HOJALATA"

LARUNBATA
IGANDEA

Xavi Morató idatzi eta zuzendutako komedia
19:00 (maiatzak 22) Harriondoa
18:30 (maiatzak 23) Harriondoa
Sarrera 5 €
Hizkuntza Gaztelaraz

LESAKA

22 | SOLASALDIA
HAUR ETA
GAZTEEN TRAN-
SEXUALITATEA: EZ
DA NIRE GORPUTZA,
ZURE BEGIRADA DA
(Naizen elkarteak)

17:00 Kultur etxean
Antolatzaileak Goldatz Berako
Emakume talde feminista

BERA

29 | MERKATUA
MERKATU
TTIKIA

LARUNBATA

10:00-14:00 Beheko Plaza

LESAKA

29 | BERTSOLARITZA
"NAFARROAKO
ESKOLARTEKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA"

LARUNBATA

17:00 Harriondoa Kultur Etxean

LESAKA

29 | DANTZA
AITZINDARIAK
(IXA UNIVERSOS
DE MOVEMENTO)

LARUNBATA

19:30 Kultur etxean
Sarrera 6 € (sarrerak aitzinetik Agara
prentsan salgai)
Iraupena: 80 min
Antolatzaileak Nafarroako Antzoki Sarea
Babeslea Nafarroako Gobernua
Laguntzaileak Berako Udala

CIRCUITO DE LA
RED DE TEATROS
DE NAVARRA

NAFARROAKO
ANTZOKI SAREAREN
ZIRKUITUA

BERA

Parte hartzetik parte izatera.

info@jesusenbihotza.com
 948 63 00 09

Centro
Sagrado
Corazón
Jesuén
Bihotza
Ikastola

Aurre-izenemate epea maiatzaren 17tik 21a arte



NIRE TXANDA

GARAZI ZABALETA URKIOLA

Monopoly partidatxo bat?

Etxea erosten ari den geroz eta jende gehiago dut inguruan. Arrazoi ohikoena zera izaten da: «Alokairua baino merkeago ateratzen zait azkenean hipoteka ordaintzea eta...». Eta egia da, gure herrietako alokairuen egoera ikusi besterik ez dago: egoera kaxkarrean dauden pisu zaharrak prezio oso altuan. 'Leitzaundi, Iruñen pare, Madrilek e nahi luke'. Etheen prezioari dagokionez, zoritxarrez, ez gabilta oso urruti. Bitartean, apenas erabiltzen ez diren bigarren etxebizitza, pisu huts, eta erortzen ari diren baserri asko dago, baina landa eremuari puska jaten dioten etxebizitzak eraikitzen segitzen dugu. Galdera da: gehiago eraiki baino, ez al litzateke hobe badugun hori berritu, ego kitu eta garantiadun alokairua bultzatzea? Familia eredu aspal-dian ari da aldatzen, bada, etxebizitzari begira ere formula berriak behar ditugu: eredu komunitario(ago)ak, bakarrik bizi direnei egokituak... dena dago egiteke. Herriarrok ere badugu horretan zer egin; salmentaren eta alokairuaren zurrumbiloan bete-betea sartu beharrean, herriaren osasunari gehixeago begiratu, adibidez. Monopoly-ak beti engantxa izan gaitu, baina agian bada desengantxatzeko garaia, ezta?

**«ETXEBIZITZARI
BEGIRA FORMULA
BERRIAK BEHAR
DITUGU»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Arrautzea edo oiloa, zer lehenago?

Galdera hori baino *existentzialagoa* ez al da uretatik pasatutako arrautzea edo egosia, zer asmatu zuten lehenago? eta nork? oliotan arrautzea prexistu zuen lehenbizikoak *puntillarekin* lortu zuen? arrautzea irabiatu ondotik arrautze-opila gogoratu zitzaionak zartagina erabili zuen? eta nor izan zen bakailaoarekin nahasi zuen genioa?

NABARMENTZEKOAK



**ASUN
ELIZALDE
ETXALAR**



**MARTXEL
RODRIGUEZ
LESAKA**

Etxalarko Barbereneko Asun Elizalde Danborienak 103 urte bete zituen maiatzaren 2an. Zoritxarrez, bi aste lehenago, apirilaren 20an hil zen Juli bere ahizpa, 101 urte zituela.

Martxel Rodriguez Lesakako dantzaria Talentu Artistikoa-ren Sustapenaren Sarirako hautagai izendatu du Nafarroako Gobernuaren Kultura eta Kirol Departamentuak.

ATZERA BEGIRA



2011-05-12 · TTIPI-TTAPA · 542 zk.

Leitzako Xagu antzerki taldearekin

Leitzako Xagu antzerki taldearen *Agur Manhattan!* antzezlanak aitzakiatzat hartuta, Sergio Merino taldekidea elkarriketatu zuen TTIPI-TTAPA duela hamar urte. Berarekin batera, Miel Mari Elozegi *Luze* eta Juani Barriolak osatzen zuten antzerki taldea eta 2004az geroztik egindako ibilbideaz eta taldeko martxaz aritu zen Merino. Besteak beste, beraien helburua «herriari bizia ematea» zela kontatu zuen: «Gure antzezlanak ongi pasatzeko dira. Auzolanean egindakoak dira, baliabide gutxiarekin eginak. Kalitate aldetik antzezlan hobeak izaten dira Leitza, baina gureak xarma berezia izaten du eta giro aparta sortu izan dute». *Agur Manhattan* lanaren harira, «estresa gainditzeko hasteko terapia ona» zela ere aipatu zuen.



erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Nerea Bazterrika,
Ruben Oskariz, Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usa Vicente
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Alizuri,
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagaien,

Maider Petrirena, Oihana Kalparsoro, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdosain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Pierre Bastres, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbiltzuen Mankom., Zugarramurdioko Akelarre elkarte
2021eko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi eta Malerrekako 40€
Leitza 30€
Hego Euskal Herria 48€
Iparraldeko Euskal Herria, Europa 94€
Amerika eta Australia 140€



KOLABORAZIOAK

XABIER MARITORENA ZUBIETA

Hego ebakiak

2019ko abenduan detektatu omen zen Covid-19aren lehenbiziko kasua, baina trankil, ez nator komunikabideek aspertu artio transmititzen dizkiguten mezu igualekin ni ere. Ondorioez solastatu nahi nuen, barnean ditudan gorabeheretz.

Akitu ziren lagun arteko bestak, akitu ziren libreki mugi ahal izateko aukerak, baita familiarekin elkartzeko ohiturak ere. Afera da, noiz artio?

Akaso etorkizun hurbil batean birus honi bertze edozein birusi diogun errespetu bera izanen diogu, baina momentuz, nahiz eta bidean aunitz ikasi dugun (edo ez, zalantzak sortzen zaizkit), beldur eta kezka puntu batekin segituko dugu. Nori ez zaio pasatu ba 'ta nere etxeko xaharrei nik transmititzen badiet?', adibidez?.

Ez dugu gonbidatu baina gelditzeko etorri da eta berarekin batera errotuz doan bizitzeko gure modu berria. Dagoeneko ez dut nire lagunak besarkadarik jasotzen. Gutti atrebitzen dira ondokoaren soinburuan eskua paratzen. Irribarreak ikustea garesti dago orain.

Hasi ginen bai telematikoki bada ere solastatzeko gelditzen, baina hori ere itzaliz joan zen. Whatsapp taldeetan elkar zoriontzeko mezuak bertzerik ez dira

igortzen. Eta aspertu naiz.

Aspertu eta nazkatu.

Ahalegin kolektibo bat egin beharrean gaude, bertzenaz bakardadeak irentsiko gaitu. Has gaitzen maite ditugun horiekin berriz elkartzen. Lagun,

«ELKARRENGANDIK ERABAT ALDENDUTA GAUDE»

eman iezadazu besarkada bat aspaldian elkarrekin egon ez baikara. Tentuz eta zentzuz, egoerak eskatzen dituen neurriekin, baina mantendu behar dugun elkarrekiko distantziak ez gaitzala elkar sekulan gehiago ez ukitzera behartu. Azken finean, urteak arin pasatzen dira eta nik seurik pasatutako urteak irribarre xamur batekin oroitzea nahiago dut.



JOSE RAMON AMOROS OSKOZ

Ezagutzen duguna hobekiago zainduko dugu

Gaur goizean arrano sugezalea ikusi dut, dagoeneko Afrikatik itzuli da. Uda bukatu arte gure mendietan biziko da eta hemen haziko du bere umea. Irailean berriz Afrika aldera abiatuko da, negua Saharako hegoaldean pasako du. Aurten negu motza izan dugu eta hegazti migratzaileak goiz etortzen hasi ziren. Gailupak otsailaren bigarren astean agertu ziren, kukua ere aspaldi hemen dago.

Goiz ere hasi ziren hegazti batzuk euren habiak prestatzen. Martxoan eskinosoaren habia ikusi nuen hiru txitorekin, handik egun batzuen buruan hilak ziren, hotzez segur aski. Egundarietan hotz handia egin zuen, baita izotza ere. Udaberria goiz hastea ez da beti abantaila.

Hegazti guztiak jo eta ke ari dira. Kantari, kortejatzen eta habiak atontzen. Duela aste batzuk ur-zozo bikotea ikusi nuen habia prestatzen, urtero bezala, zubi azpiko zulo batera goroldio puskak garraiatzen ari ziren. Handik hurbil buztanikara horia arrautzak inkubatzen ari zen erreka bazterrean egina zuen habian. Okil arra danborra jotzen hasia zen orain dela lau hilabete. Soinua eginez bere lurraldea zein den adierazi nahi du eta bidenabar emeari deitu. Duela hilabete bat aurkitu nuen okilek egin duten habi berria. Gaztainondo baten enborra

zulatu zuten eta nire ustez, okil emeak arrautzak errun zituen, bi asteren buruan txitak jaiotzeko.

Joan den urtean orkatz eme batek bi ume umatu zituen maiatz hasieran. Geroztik jarraipen bat egin diet eta

«URRUTI BIZI DIREN ANIMALIAK BERTAKOAK BAINO HOBEBE EZAGUTZEN DITUGU»

maiz behatu dut taldea. Harritzekoa bada ere, bi umeak aitzinera atera zituen. Otsail hasieran familia oraindik elkarrekin zegoen. Geroztik amak umeak utzi ditu. Orain bi gazteek, bat arra eta bertzea emea, elkarri segitzen diote. Tarteka bertze ar baten ondoan ikusi ditut. Egundari hauetan ama ikusi dut ainarrak eta oteak dauden paraje batean, agudo umatuko da eta honelako habitata bilatzen dute umeak salbatzeko.

Betitik gustatu zait basanimaliak behatzea. Burua eta gorputza osasuntsu mantentzeko botika ezin hobea. Aholkatzen dizuet. Bakarka edo talde txikian praktikatzeko jarduerak garbia, naturala, hurbila, isila, zirrargarria eta merkea. Prisma baten bidez behatu. Gure mendi, baso edota erreka bazterretan bizi diren animaliak ikustea eta ezagutzea pozgarria da.

Aunitzetan pentsatu dut hobekiago ezagutzen ditugula urruti bizi diren animaliak bertakoak baino. Gehiago kezkatzen gaitzen bertze kontinenteetan bizi den faunaz, bertakoak baino. Gai gara Himalaiako lehoinabarra edo *leopardoa* edo Bostwanako elefantearen defentsaren alde sinatzeko eta aldi berean gure erbia desagertzen ari da eta ez gara jabetzen ere.

Alditu duzu inoiz okil beltzaren kantu zoragarria? Ikusi al duzu martin arrantzalearen abilezia arrantzarako? Musker berdea eguzkitan? Orkatza umeari esnea ematen? Ezagutzen duzu azkonarraren oinatza? Udaberria garairik hoberena da faunaren behaketaz gozatzeko. Animo!

11 GALDERA LABUR

IRAIA JAURENA TTIPI-TTAPAKO BERRIEMAILEA

«Covid-19aren garaian albisteak aurkitzea ez da beti erraza»

Iraia Jaurena, Arantxa Etxeberriarekin batera, TTIPI-TTAPAKO berriemailea dugu Urdazubin. Bera bezalako hainbat laguntzaileri esker ekar diezazkizuegu herri bakoitzeko azken albisteak ale bakoitzean.

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

Iruñean ikasten ari den 22 urteko gazte urdazubiarrak.

Zeintzuk dira zure zaletasunak?

Nire zaletasunak musika, mendia eta naturaz gozatzea dira, lagun artean baldin bada, hobe.

Noiz hasi zinen berriemaile gisa lanean?

Duela urte bat baino pixka bat gehiago hasi nintzen Urdazubiko berriemaile bezala nire lagun Arantxarekin.

Zergatik?


Azken urteetan ez zen Urdazubiko berriemailek eta Arantxak eskainirik, elkarrean herriko berriak idaztera animatu ginen, aldizkarian bere tokia izan dezan.

Erraza al da Urdazubi bezalako herri txiki batean astero albisteak aurkitzea?

Ez da beti erraza ez, orain covid-19aren garaian oraindik guttiago, normalean baina berri guttiago baititugu. Hala ere saiatzen gara hamabostero berriren bat bilatzen!

Urdazubiarren laguntza jasotzen duzu?

Bai, anitzetan herritarren laguntza eskatzen dugu berriak idazteko orduan eta beti izaten da norbait laguntzeko prest.



Aurten ere, bestak bertan behe- ra gelditu dira...

Bai aurten ere, nahiz eta ofizialki ez den deus erran, egoera dela eta bestak bertan behe-
ra gelditu dira. Hala ere, segur seinale zerbait egingen dugula!

Nola hartu du jendeak albisteak?

Nik uste herritar guziek espero genuela. Joan den urtean bezala egoera ez da onena herriko bestak antolatzeke...

Zein albiste gustatuko litzaizuke ematea?

Momentu honetan, Urdazubiko ihauteri edo bestak bueltan direla da gustura emanen nuen berria.

Zein dira zure asmoak epe motzera?

Momentuan ikasketak akitu eta uda ahal bezala gozatzea gustatuko litzaidake.

Eta epe luzera, zer egin nahiko zenuke?

Epe luzera ez dakit, momentua bizi eta maite ditudan pertsonekin zoriontsu izan nahiko nuke.




Bilduma berria

70. urteurrena
urteurrena dela eta, erosketa bakoitzeko opariak banatuko ditugu

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornoak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Jubilatu Elkartearen idatzia

ELOY BOYANO | LESAKAKO SAN FERMIN JUBILATU ELKARTEAREN IZENEA

Azken asteetan herrian zabaltzen ari diren kritiken harira, hauetako batzuk gure zintzotasuna ere zalantzan jarri dutenak, Lesakako San Fermin Jubilatuen Elkar-teak ondokoa azaldu edo argitu nahi du:

1- Elkartearen egoitzan dagoen ostatua ahalik eta azkarren irekitzeko beharra zegoela ikusirik, ostatua hartzeko deialdia azkartzea erabaki genuen.

2-Orain arte, gure egoitzako ostatua kudeatzeaz arduratu diren langileak 18 urte pasa dituzte lan honetan, eta denbora guzti honetan ez denez gisa honetako deialdirik kudeatu, egoera guztiz berria izan da guretzat.

3- Guk eskainitakoa ez dela lanpostu publiko baterako deialdi bat argitu nahi dugu. Baldintza jakin batzuetan eta denbora jakin baterako ostatua erabiltzeko esleipen bat egin da.

4- Hautagaitzak martxoaren 15a baino lehen aurkeztu behar zirela argi utzi nahi dugu. Honen harira, barkamena eskatu nahi dugu epe hau errespetatu ez izanagatik. Zabaldutako epea bukatzera zihoala eta azken egunetan hautagaitza gehiago aurkezten ez zirela ikusita eta, betiere, gehiago aurkeztuko ez zirela pentsatuta, momentu horretaraino jasotako hautagaitzen artean hoberena aukeratzea erabaki genuen. Hau dena ostatua lehenbailehen martxan jartzeko helburuarekin. Aukera horien artean proiektu hoberena aukeratu genuela koan gaude, zerbitzu on bat eskaintzeaz gain, herrian lau lanpostu berri sortuko liratekeelako.

5- Gure erabakiak sortutako eztabaida ikusita, eta erabaki horren inguruan eztabaidatzeko asmoarekin, gure elkartearen urteroko batzarrean mahai gainera atera genuen gaia. Kontu hau lantzerakoan parte hartze handirik ez zegoela ikusita, gure karguak batzarraren eskutan jarri genituen eta honek gure kudeaketa babestea erabaki zuen.

6- Lesakako herriari jakinarazi nahi diogu, San Fermin Jubilatuen Elkarteko zuzendaritza batzordeko kideon helburu bakarra, Jubilatu Elkartearen alde lan egitea eta, ondorioz, herritarren sektore honi eta herritar orori bertze zerbitzu bat eskaintzea dela. Posible dugun neurrian herriaren alde, bertze aunitzek bezala, inongo interes pertsonalik gabe lan eginez.

Bukatzeko, zuzendaritza batzordean sartzeko gonbita luzatu nahi diogu laguntzeko prest dagoen herritar orori. Laguntza guztia ikaragarri estimatua izanen baita.

Zugarramurdiko herria eta Herriko Etxeari

ONINTZA AGIRRE, JULENE ARBURUA, MAIDER ARAGON ETA BERTZE 15 SINATZAILE

Orain dela hilabete batzuk herritar batzuk elkartu ginen herriaren arazoei buruz mintzatzeko. Azken urtetan ikusten ari baikara gure herrian arazoak larritzen ari direla eta gure bizi kalitatea apaltzen ari dela. Batez ere, turismoaren masifikazioarengatik egunero sofritzen ditugun ondorioak haunditzen ari dira (ibilgailu eta jendearen inbasioa, aparkalekuak eta karrikak gainezka, zikinkeria nonahi, oinarritzko zerbitzuen eskasia...).

Joan den urtean, herriko jendea, sumindua, bere haserrearen erakusten hasi zen eta bi bilkura egin ziren herritar aunitzek parte hartuz. Hartan adostu genuen afera hauek herriko etxearekin eztabaidatuko genituela pleno edeki batean, baina hau ez zen sekulan ailegatu Covid-aren aurkako neurrien aitzakiengatik. Geroztik, posible izan da bilkurak egitea, baina herriko etxeak ez du interesik erakutsi.

Are gehiago, azken hilabete hauetan eskatu diogun guztia ukatu egin digu. Hala nola, herritar batzuegandik sortutako proiektu baten aurkezpena: *Sugarren Mende* gure herria eta arbasoen historia kontatzen duen liburuarena. Ekitaldi kultural hau eta omenaldi xumea

azaroaren 7an egin nahi izan genituen, data sinbolikoa baita; honelako egunean gure arbasoak masakratu baitituzten Logroñoko *Autodefean*.

Aurkezpenak eta omenaldiak garai-ko osasun-protokolo guztiak betetzen zituzten eta 70 zugarramurdiarek izena eman zuten parte hartzeko, interesa haundia baitzen. Baina alkateak berak guk hautatutako zinegotziei boza kendu, eta ezezkoa izan zen bere erabaki hutsa.

Bera gure osasunarengatik arduratuta omen zen egun berean, 200 lagun lezean sartu ziren, eta udan milaka jende etorri zelarik, ez zuen halako kezkarik izan. Edo gaur egun ere, astebururo ehunka kanpotar etortzen direlarik.

Dena den, hau ez da ezeztatu den ekitaldi kultural bakarra. Joan den udan herritarrei ez zitzaion utzi bestarik edo kultur ekintzarik ospatzen, baina herriko bestak eta errefetaren artean, Nafarroako Gobernuak turistendako antolatutako kontzertu bat lezean egitea baimendu zen. Kanpotik heldu den guztiari oniritzia ematen zaiola, baina herritarren galderei beti ezetza ematen zaiela iruditzen zaigu. Herritarrok ez gara entzunak sentitzen, eta honelako egiamoldeak ikusita, bertze garaiko sistema batean bizi garela sentiarazten gaituzte.

Uda berriz ganean dugu eta badakigu zer heldu zaigun. Orain mugak edeki dituztenetik, berriz ere herria inbadituta izanen da. Gure herriaren alde, herritarren ongizatearen alde eta irtenbideak denon artean atzemateko asmoz, herritar guztiak, herriko etxea barne, batzar edeki eta haundi baterat gonbidatu nahi ditugu: ekainaren 4an, 19:00etan, Akelarrenean. Zatozte denak!

Zuzenketa

TTIPI-TTAPA

TTIPI-TTAPAren aitzineko zenbakian, Aresoko kronikan 1899ko argazki zahar bat agertu zen. Argazkiaren egilea gaizki idatzi genuen. Argazkia Polikarpo Elosegirena da. Barkatu eragozpenak.

Zaindu maite duzun hori...

Kalko ustelak

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

EZAGUTU ≠ JAKIN

Ezagutu eta *jakin* ez dira sinonimoak. Arazoa es: (re)conocer / fr: (re)connaître hitzek eragiten dute, baina ezberdintasuna argia da: 'ezagutzen' diren hizkuntzak 'solas egiten' (= 'jakiten') direnak baino gehiago dira.

-Ezagutzen dut euskara, baina ez dakit euskaraz solas egiten.

Beraz, bi esapide hauek ez dute gauza bera erran nahi.

-euskara ezagutzen du ≠ euskara(z) (ba)daki;

-ingelesa ezagutzen du / ingelesaren ezaguera du ≠ badaki ingelesez.

Bertzelako okerrak ere egin izan dira *izan*, *ukan*, *egin*, *eragin* eta antzeko aditzak ordezkatzeko dituenen.

-Egitasmoak porrota ezagutu zuen hasiera-hasieratik (?) > Egitasmoak porrot egin zuen hasiera-hasieratik.

-Ez du berriz poza ezagutuko (?) > Ez du berriz pozik izanen.

Zein da zuzena

*Emaidazu ala emadazu?

Euskaltzaindiaren arabera, *esan/erran* aditzaren paradigmaren forma hauek dira zuzenak: *esadak*, *esaguk*, *esadazu*, *esadazue* eta abar. Eta *eman* aditzaren *emadak*, *emadazu*, *emadazue*, *emaguk*, *emaguzu*, *emaguzue* eta abar. Ikusi hemen sarritan egiten diren okerrak:

**emaidazu* > *emadazu*

**emaiguzu* > *emaguzu*

**esaidak/n* > *esadak/n*

**eramazak/n*

> *eramak/n*

**ekarridazu* > *ekardazu*

**jakizak/n* > *jakik/n*

Hizki-zopa

Ezagunak al dituzu? Bilatu hemen!

Bidexka
Xendra
Bidezidor
Basabide
Mendi-bide
Lasterbide

E	I	O	E	B	I	D	E	X	K	A	B	V	D
D	X	P	F	K	A	Z	A	V	V	H	U	D	G
H	M	N	L	W	D	Y	G	D	B	P	M	J	R
W	J	Z	Y	Y	F	B	C	X	S	W	U	K	N
Q	Q	O	M	E	N	D	I	-	B	I	D	E	I
C	T	W	L	A	S	T	E	R	B	I	D	E	Y
N	I	O	N	M	G	Y	I	R	D	X	H	U	L
J	L	X	L	Y	U	X	E	N	D	R	A	L	M
B	Y	Z	Y	O	M	L	G	T	D	L	K	Q	A
Z	N	T	H	M	C	B	A	S	A	B	I	D	E
B	I	D	E	Z	I	D	O	R	M	Y	G	V	Q

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...
Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

«Anorexia gizarteak eragiten duen gaixotasuna da»

AROA NOBLE FLORES ANOREXIAREN HASIERA IZAN DUEN EZKURRAKO GAZTEA

Hilabete erdian 13 kilo inguru galdu zituen Aroa Noblek. 2017ko uda hartan izandako zorabioak «aski da» esatea eragin zion. Orduko hartaz eta egungo egoeraz aritu da TTIPI-TTAPAREKIN

TTIPI-TTAPA

Hiru urte joan dira, baina zauria ez da erabat itxi. Oraindik elikadura trastornoak lantzen segitzen du Aroa Noble Floresek (Ezkurra, 2001). Gaur egun, «ongi» dagoen arren, «jateari uzteko pentsamenduak» izaten ditu tarteka eta «oraindik ez dut neure burua den bezala onartzen». Edozein modutan, arazoaren iturburua ikusteak bidea erraztu dio eta, orain, begiak zabalik dituela, argi du zein den giltza: «anorexia gizarteak eragindako gaixotasuna da, gizarteak argal egotera bideratzen gaitu. Horri aurre eginez, autoestimua landu eta norbere burua maitatzen ikasi behar dugu». **2017ko udan argaltzeko erabakia hartu zenuen. Zer dela eta hartu zenuen erabaki hori?**

Nerabezaroa garai zaila da, normalean jendearekin eta norbera bere buruarekin gaiztoak izan ohigara. Nire adineko neskekin, ingurukoekin, konparatzen, arropa erostera joatean edozer ongi ez duzulako gaizki sentitzen... hasi nintzen.

Momentu horretan nola sentitzen zinen zeure buruarekin?

Txikitan nahiko potxoloa nengoen. Arazo bat izan nuen, antsietatea eragin zidan eta asko eta gaizki jaten hasi nintzen. Etxetik kanpo isila eta oso lotsatia nintzen eta kanpoan egoitea ez zitzaidan gustatzen. Neure burua ere ez nuen ongi ikusten, ez zitzaidan gustatzen ispluan ikusten nuena.

Kirola eginez eta elikadura zainduz hasi zinen. Zeure kabuz edo norbaiten laguntzaz?

Bideo batzuk ikusten nituen Youtuben, baina ez zuela deus egiten ikusten nuen. Orduan gutxiago jatea eta ariketa gehiago egitea pentsatu nuen. Horrela, gosaldurik, aurreneko platera bazkaldu eta hurrengo egunera arte deus ez jatera ailegatu nintzen.

Etxekoek nola bizi zuten egoera hori?

Amak askotan esaten zidan tontakeriarik ez egiteko. Nik banekien argaltzen ari nintzela baina ez nik nahi nuen bezainbeste. Gehiago nahi nuen. Hasieran hiru kilo jaitsi nahi nituen, gero beste hiru, beste hiru...

Obsesio bihurtu zen?

Bai. Etengabe pisatzen nintzen, zerbait jaten nuen aldiro, ariketa egin ondoren...

Gero eta kirol gehiago egiten hasi zinen. Egunean zenbat egiten zenuen?

Esnatu eta bizikleta estatikoa edo beste ariketaren bat egiten nuen, arratsaldean ibiltzera joaten nintzen, gauean lo egin aurretik abdominalak egiten nituen... egun osoa, goiz, arratsalde eta gauean.

«URA EDATEAK ERE LODITUKO ZIDALA PENTSATZEN NUEN»

Zenbat kilo galdu zenituen eta zenbat denboran?

Hilabete erdi batean 13 bat kilo. Nik banekien argaltzen ari nintzela baina ez nuen hainbesterako zenik uste.

Noiz ohartu zinen arazo bat zenuela?

Egun batean zorabiatu egin nintzen eta konortetik gabe gelditu nintzen. Begiak ireki nituenean, ama hanketatik heltzen eta ahizpa ondoan negarrez ikusi nuen. Orduan kezkatu nintzen eta akaso gehiegi zela pentsatu nuen... Nik banekien gaizki ari nintzela, barrenean zerbaitek esaten zidan ezin nuela horrela segitu. Hala ere, ez nuen medikura joan nahi, gaizki ari nintzela eta ezin nuela gehiago argaldu esanen zidalako beldur nintzen.

Hala ere, ez zenuen beste erre-mediorik izan...

Etxekoek medikuarenera eraman ninduten. Medikuari zorabiatu egin nintzela esan nion eta amak egia osoa kontatzeko esan zidan, zer egin nuen eta zenbat kilo galdu nituen... Hilabete erdian galteko asko-asko dela eta nire medikuarekin hitzordua hartu behar nuela esan zidan.

«LAGUNEKIN EGOTEAN BAINO GEHIAGO ZENTRATU NAIZ JANARIAN»

Nola bideratu zuen kasua medikuak?

Amari test bat pasatu zion, ikusten zituen jarrereri buruzkoa. Gero, nirekin egon zen, zer jaten nuen, etab. galdetu zidan. Pisatu eta neurtu egin ninduen eta psikologoarekin eta psikiatrarekin hasi nintzen, anorexia hasikinak nituen.

Nola hartu zenuen diagnostikoa?

Kontsultaren aurretik amarekin eztabaida izan nuen eta haserre nengoen. Anorexiaren hasieran nengoela esan zidanean negarrez hasi nintzen, eta 'hauxe falta nuen' pentsatu nuen. Susmoa banuen arren, orduan egiazki larria zela ikusi nuen. Zorabiatu ez banintz orain akaso ez nintzateke hemen egonen.

Zer segimendu egin dizute?

Hilabeteko psikiatrarangana eta erizainarangana joan behar izan dut. Erizainak pisatu eta neurtu egiten ninduen eta nik ezin izaten nuen pisurik ikusi.

Zertan lagundu dizute?

Neure buruarekin hobeki egoten lagundu didate. Erizainarekin asko hitz egiten nuen. Berak ere psikologo lana egin zuen. Psikiatrarekin izaten nituen bisitetatik ere oso gustura ateratzen nintzen neure burua baloratzen lagundu didate. Taldeko terapia ere egin nuen, elikadura trastornoak dituzten jendearekin batera, janariari buruzko solasaldietara joan nintzen eta horiek ere lagun-garriak izan ziren.

Medikamenturik hartu behar izan duzu?

Antsietatea nuela esan nion momentuan horretarako antidepressiboen familiako botika batzuk zeudela esan zidan. Nik horiek loditu egiten zutela aditua nuen ez nuen hartu nahi, beldur hori nuen. Orduan, horren ordeztu homeopatia hartzeko aukera eman zidan eta halaxe hasi nintzen. Zerbait egiten zidala uste nuen baina neure burua engainatzen ari nintzen... Momentu batean gehiago ezin nuela ohartu nintzen, antsietatea gain hartzen ari zitzaidan. Orduan medikamentua hartzea erabaki nuen eta egia esan an-

tsietate aldetik asko-asko lagundu dit.

Familia giroan ere eragina izanen zuen...

Amarekin bereziki asko eztabaidatu dut eta gaizki pasatu du. Otorduetan janariagatik eta kantitateagatik eztabaidatzen genuen, beti haserre nengoen. Pisu galera horrek autoestimua jaitea eta haserregarriago egotea ere eragin zidan. Bizitza aldatu zitzaidan, denak molestatzen zidan...

Jaten zenuen hori botatzera ailegatu zinen?

Botaka egitea asko kostatzen zaidan pertsona izan naiz beti, beldurra ematen dit. Saiatu faltan ez nintzen gelditu, baina ez nuen lortzen.

Eta sozialki, zertan eragin dizu?

Bakarrik egon nahi nuen, neure buruarekin bakarrik. Jendearekin egotea kostatzen zitzaidan. Nire lagunak edozer jaten ikusten nituen eta niri beldurra ematen zidan jateak. Egun-pasa joateak kanpoan bazkaltzea zekarren eta kaloria asko zituen zerbait jan behar nuen. Nire kezka nagusia hori zen, lagunekin egotean baino gehiago zentratzen nintzen janarian, etxera bueltan jan nuen guztian pentsatzen nuen, ea nahiko denbora izanen nuen ariketa fisikoa egiteko eta jandako guztia erretzeko... Pentsa, ura edatean hori ere erre beharko nuela pentsatzen nuen, horrek ere ludituko zidalakoan...

Zenbat denboraz egon zara psikologoarekin eta psikiatrarekin gaia lantzen?

2017an hasi nintzen eta oraindik joaten naiz. Psikologoarengana hilabetero joaten naiz eta ongi ikusten banaubihilabete behin. Psikiatrarengana, berriz, bizpahiru hilabetero, medikazioa nola dagoen kontrolatu behar izaten dit.

Gaur egun zer moduz zaude?

Ongi nago baina izaten ditut jateari uzteko pentsamenduak. Bereziki gaizki nagoen momentuetan pentsatzen dut, jateari uztea konponbidea delakoan edo... Saiatzen naiz pentsamendu horiek burutik kentzen



Bere burua den bezala maitatzen «ikasteko prozesuan» dago Aroa Noble. UTZITAKOA

baina ezin dut. Pentsamendu hau ez zaidala joanen uste dut. **Zeure burua den bezala maitatzen ikasi duzu?**

Prozesu horretan nago. Neure burua askoz gehiago maitatzen eta baloratzen dut baina asko dut egiteko, gauza asko ez ditut onartzen, ez zaizkit gustatzen.

Zertan aldatu da etxeko giroa azken hiru urteotan?

Otorduetan ez dugu janariagatik eztabaidatzen, edozer jaten dut. Egunen batean izan dut eztabaidaren bat baina haserretu arren, orain dagoena jaten dut. Eztabaidak normalagoak dira.

Eta etxetik kanpo?

Lehen ez nuen etxetik atera nahi, orain ahal dudan guztietan lagunekin egoten naiz. Ba-

tzueta 'ez nuke hau jan behar' pentsatu arren, pentsamendu horrek ez du lehen zuen pisua. **Gizarteak zer eragin du horrelako gaixotasunetan?**

Gizarte honek eragiten duen gaixotasuna da, gizarteak argal egotera bideratzen gaitu. Berezi neskoi eragiten digun arren, mutilek ere pairatzen dute gaixotasun hau eta datuetan gero eta gehiago direla ikusten da. Oraindik, hala ere, gehiengo neskak gara. Mutilen aldetik presioa indartsu egotera bideratua izan ohida, nesken kasuan, berriz, argal egotera. Gakoa norberak bere burua maitatzea da baina gizarteak ez du hori eragiten uzten.

Zer esanen zenieke egoera horretan daudenei?

Maite duen jendeak esaten diona ikusteko eta autoestimua lantzeko.

Eta ingurukoei?

Jatera ez behartzeko, alferrik da eta. Behartuz gero, botatzen saiatuko da edo bere buruarekin okerrago sentiaraztea eraginen dio. Lagundu beharrean kaltetu egingen du. Egoera hau bizi izan gabe laguntzen jakitea ez da erraza, baina ulertzen saiatzeko babesa emateko esanen nieke, jaten ez badu ere ondoan egoteko, animatzeko...

Besterik gehitu nahi duzu?

Lagundu didaten guztiei eskerrak eman nahiko nizkieke, nire ondoan egon direnei eta daudenei, entzuten didatenei, bereziki etxekoei eta gertuko lagunei.



Patri Arburua duela 27 urte hartu zuen Bortzirietako euskara teknikariaren ardura, mankomunitatea sortu eta lau urtera. TTPI-TTAPA

«Euskaltzale izateaz gain euskararen aldeko auzolana ere behar da»

PATRI ARBURUA ETXEBERRIA BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEKO TEKNIKARIA

Bortzirietako euskalgintzaren norabidea erabakitzeko gogoeta prozesua abiatu du Bortzirietako Euskara Mankomunitateak. Hori eta bertze hainbat kontu izan ditu hizpide Arburua

G. PIKABEA | BORTZIRIAK

«Bortzirietako euskalgintzaren norabide berria erabakitzeko garaia» dela iritzita, euskalgintzaren gogoeta prozesua abiatu du Bortzirietako Euskara Mankomunitateak Elhuyarren aholkularitzarekin. Helburu horrekin, dagoeneko bi saio egin dituzte: martxoaren 26an Bortzirietako euskara batzordeetako kideekin batzar orokorra egin zuten; eta apirilaren

24an saio irekia, bertze herri eta eskualdetako euskalgintza eta herri mugimenduen berri izateko. Orain arte egindakoa erekin «kontent» dagoela aitortu du Patri Arburua Etxeberria Bortzirietako Euskara Mankomunitateko teknikariak. Maiatzaren 29rako hitzartu duten hirugarren saiora begira jarriak dira orain eta «interesa dutenei parte hartzeko» gonbita luzatu die. Bide onetik ari direla uste

du, «zerbait inportantea egiten ari garela» sentitzen du eta konbentzitua dago «dena berrikusteko momentua dela».

1990ean sortu zen Bortzirietako Euskara Mankomunitatea. Nolakoa izan zen hasiera hura?

Mankomunitatea sortzeko erabakia 1989an hartu zuten baina ofizialki 90ean sortu zuten. 80ko hamarkadako mugimendu sozial eta kultural handi hura zela medio sortu zen

mankomunitatea. Mugimendu indartsua sortu zen eta argitasun handiarekin bideratzen jakin zutela uste dut. Euskal Herriko toki aunitzetan euskaraz erbitzuak eta euskara taldeak sortzen ari ziren garaia zen, eta Bortzirietan, euskara batzordea sortu zuten euskaltegiko kideek, TTPI-TTAPAREN proiektuko jendeak eta norbanako euskaltzale batzuek. Euskararen aldeko mugimendua antolatzeko beharra ikusi zuten eta gainera, hagitz garbi ikusi zuten, alde batetik, hanka instituzionala behar zuela, eta bertetik, hanka soziala. Hanka instituzionalean udalak bildu zituzten eta hanka sozialean herrietako elkarteak, ikastetxeetako ordezkariak... eta norbanakoak. Aldi berean, herri bakoitzak bere gisa ezin zuela deus egin ikusita, eskualdeko ikuspegia eman zioten.

Mankomunitateak aholkularitza batzordea eta batzorde erabakitzailea ditu...

Aholkularitza batzordea sortzea izugarrizko ideia izan zen. Batzorde horretan parte hartzen dutenak herrietako euskara batzordeetakoak dira, baina udal ordezkariak ez direnak, eta beraz, euskararen aldeko mugimendusoziala ordezkatzeko du nolabait. Aholkularitza batzordeari boto eskubidea aitortu nahi izan zioten, baina legez ez zen posible izan. Hala ere, ahotsa izatea lortu zuten eta udal ordezkariak osatzen duten Batzorde Erabakitzaileak gehiengo oso hartu behar dituzten erabakietan –aurrekontuak, planak, kontratazioak...–, batzorde horren txostena edo iritzia nahitaezkoa dela ageri da estatutuetan. Mugimendu sozialaren eta udalen arteko elkarlanak nolakoa izan behar lukeen hainbertze eztabaibatzen den garai honetan, Bortzirietan, duela 30 urte argi ikusi zuten bidea; aitzindariak izan ziren.

Geroztik zein bide egin du?

Hagitz ttikitik hasi zen eta urteekin bere plangintza eta ikuspegia handitu du. Egitasmo

batzuek euren bidea egin dute, finkatu dira eta arrakasta izan dute, eta bertze batzuk bidean gelditu dira, baina erakunde bezala mankomunitatea hazi egin da. Hortik aparte, euskalgintzari bideratutako dirulaguntzen politika sendoa garatu du eta urteotan hainbat aldiz geldituak egiten jakin du, gogoeta egiteko eta sortzen ziren korapiloak askatzen saiatzeko. Hori guztia beti euskara batzordeekin batera egin dugu, herritarrekin. Hala ere, hasierako mugimendu sozial indartsu hura mankomunitatearen barrenean urtu da. Mugimendu sozialekin aunitzetan gertatzen da, indar handiarekin hasi arren, erakundetzen direnean lasaitzen direla. Beharbada, Bortzirietan giro politikoak ere eragin izanen du, aldeko jarra badela ikusita arazoak instituzioetatik konponduko direla pentsatzeko joera baitugu. Baina hori hagitz arriskutsua da. Herritarren lanari esker gaude gauden tokian, baina mugimendu sozial hori moteldu da eta hori nola indartu edo berpiztu behar den berrikusketo momentua da.

Horregatik diozue Bortzirietako euskalgintzaren norabide berria erabakitzeke garaia dela?

Horregatik eta, Kike Amonarrirek erran bezala, arrazoi aunitzengatik euskara bidegurutze batean dagoelako, bai Bortzirietan, baita Euskal Herrian ere. Aldaketa kualitatibo batzuk egiteko garaia da eta hurrengo urteetan zein norabide hartu behar dugun erabakitzeke momentua da.

Norabide hori erabakitzeke gogoeta prozesua abiatu duzue. Erronka zaila izaten ari da?

Zaila ez. Bai euskara batzordeetan bai udal ordezkarien artean, aspalditik erraten guden zerbaitek egiteko beharra zegoela. Babes hori nolabait baguenen, eta horrek teknikariorik bidea erraztu digu prozesua antolatzeke. Baina hasieratik erantzuna positiboa izan da eta aberasgarria izaten ari da. Gainera, ez da Bortzirietako arazo



Gogoeta prozesuaren apirilaren 24ko saioan bortz herrietako 45 lagun parte-hartzaile bildu ziren. BORTZIRIAK.EUS

bakarrik, eta badugu nondik edan eta nondik ikasi.

Orain arte bi saio egin dituzue. Nolako balorazioa eginen zenuke?

Pandemia giroan, ez genekien jendea biltzeko eta ilusioatzeko gai izanen ote ginen. Gainera, nahiko helburu handiak finkatu genituen, baina oraingoz denak bete ditugu eta hagitz kontent gaude. Alde kuantitatiboari begiratu, apirileko saiora 45 lagun etorri ziren eta gauden egoeran lorpen handia iruditzen zaigu. Gainera, jende gehiagok adierazi du interesa eta hurrengo saioan parte hartzeko aukera izanen du. Bortz herrietako jendea bildu zen, adina eta genero aldetik orekatua, hainbat arlotakoa... Eta balorazio kualitatiboari dagokionez, apirileko

jardunaldia egin genuen goiz hartan, sentsazio onak izan genituen, eta bukaeran, bildutakoei balorazio esaldi bat egiteko eskatu genienean berretsi genuen. 'Interesgarria', 'beharrezkoa', 'ilusioa'... Hitz horiek errepikatu zituzten eta hagitz positiboa izan zen.

Apirileko saioan bertze herri eta eskualdetako mugimenduak eza-gutzeko aukera izan zenuten. Zer dugu ikasteko bertzeengandik?

Aunitz. Bertze hainbertze esperientzia ere ekarri izan genituen, baina denbora mugatua genuenez, hiru ekarri genituen, gure ustez mahai gainean paratu beharreko hiru gai. Alde batetik, Tolosaldeko Galtzaundi euskara taldearen esperientzia ekarri genuen. Bortziriak baino aunitzez ere

eskualde zabalagoa da, baina garrantzi handia eman diote eskualdeko ikuspegiari. Teknikariok ere Bortzirietan bidea hori dela uste dugu, herriz herri ez delako mugimendurik sortzeko ahalmenik. Bertzetik, Arrasateko esperientziari eman genion tarte, Arrasate euskararen aldeko mugimenduen historian aitzindari izan delako. Han ere 30 urteotan mugimendua arrunt apaldu da eta mugimendu hori berrindartzeko eta udalak eta herri mugimenduak nolako elkarlana egin behar duten zehazteko gogoeta prozesu bat egin eta denak elkarrekin lanean aitzeko egitura berria sortu dute. Hirugarren esperientzia Hernaniko Plaza Feministarena izan zen. Kikek [Amonarri] *Euskararen bidegurutzetik* liburuan euskalgintzak bere mundutxo horretatik atera behar duela eta bertze esperientzia batzuetatik ikasi behar duela dio, eta horren adibide da feminismoa. Feminismoak azken urteotan arrakasta →

**«MUGIMENDUA
MOTELDU DA ETA
HORI INDARTZEKO
MOMENTUA DA»**

**«BERTZE HERRI
MUGIMENDUETATIK
AUNITZ DUGU
IKASTEKO»**



Ezkerretik hasita Urko Ikardo Bortziritako bertze euskara teknikaria, Eneritz Rekarte Elhuyarreko kidea –Helene Armentia Elhuyarreko kidea ordenagailuan– eta Arburua.

handia izan du, antolatzen eta jende gaztea erakartzen jakin du. Hernanin, feminismoaren eta kulturartekotasunaren gaiak herriaren erdigunean egon behar dutela iritzita, ikusgarritasuna emateko eta gai horiek lantzeko espazio bat sortu dute. Gurera ekartzeko modukoa den azter daiteke.

Norabide berri horretan zein izan daitezke aldaketak?

Maiatzaren 29an gogoeta prozesuko hirugarren saioa egingen dugu eta gure helburua saio horretan oinarriak finkatzea da, nolako mugimendua nahi dugun zehazten hastea. Euskararen aldeko herri mugimendua birsortzea edo berrantolatzea erabakitzen bada, motor lana egingen duen talde eragilea osatu beharko da.

Maiatzaren 29aren ondotik zein bide izanen du prozesuak?

Hortik aitzinera bere bidea egitea nahi dugu. Gu laguntzeko eta parte hartzeko horizan gara, baina mugimendu autonomo bat izan behar duela eta hasieratik bere bidea egiten

utzi behar zaiola uste dugu. Mugimendu horri bere gogoea egiten utzi behar zaio, nola antolatu erabakitzen. Eta horretarako talde eragile ahalik eta sendoena izatea komeni da. Gure funtzioa prozesu horretan laguntzea izanen da, behar badute betiere.

Talde eragile hori sortzeko aukera ikusten duzu?

Bai. Orain dela aste batzuk igual ez dakidala erran izanen nuen, baina apirilko saioan ilusioa eta parte hartzeko gogoia sentitu nituen. Hori seinale ona da, itxaropena piztu digu.

Herri mugimendu horrek zein harreman izanen luke udalekin eta mankomunitatearekin?

Orain mugimendu soziala berrantolatzeko garaia da, eta mankomunitateak ez du pro-

zesu hori bideratu edo baldintzatu behar; behar denean laguntza eman behar du. Ondotik ikusiko dugu nola antolatzen den mugimendu hori eta zein izanen diren bakoitzaren funtzioak eta bi aldeen arteko harremana. Denon artean eztabaidatuko dugu.

Euskara batzordeak desagertutzat ematen dituzue?

Aspaldi aipatzen zen euskara batzordeen bidea agortua dagoela. Espresuki horri buruz solas egiteko biltzea falta zen eta horixe egin genuen martxoaren 26an euskara batzordeetako kideekin batzar orokorra egin genuenean. Bozketa egin genuen eta garbi gelditu zen euskara batzordeek eman beharrekoa eman dutela eta bertze zerbait probatzeko mo-

mentua dela. Batzordeak desagiteko azken erabakia Batzorde Erabakitzaileak hartu beharko du, baina herrietako batzordekideen iritzia argi gelditu da.

Euskara batzordeen ibilbidetik zer nabarmenduko zenuke?

Mankomunitateak bere plan eta egitasmo guztiak herrietako batzordeen ekarpen eta iritziekin osatu ditu, eta horietako aunitz gauzatzeko momentuan ere batzordeen lana ezinbertzekoa izan da. Tartean, goiti-beheiti handiak izan dituzte, baina herri batean ahul egon denean ondokoan indartsu egon da eta orekari eutsi diote. Aunitzetan maila nazionalen antolatu diren mugimendu aunitz euskara batzordeetatik bideratu dituzte. Horren adibide da Korrika. Bortziritako antolaketa aski ahul egon zen garaian, euskara batzordeek eutsi zioten Korrikari. Hortik aparte, Euskaraldia eta herri bakoitzean hainbat ekimen eta kanpaina antolatu dituzte euskara batzordeek; horien artean ezagunenak kultur egunak dira.

**«HERRI
MUGIMENDUARI
BIDEA LIBRE UTZI
BEHAR ZAIO»**

**«ASPALDI AIPATZEN
ZEN EUSKARA
BATZORDEEN BIDEA
AGORTUA DAGOELA»**

Egitura aldatuta mankomunitateak zein bide hartuko luke?

Goizegi da horretaz solastatzeko. Egituraren parte batek, hau da, euskara batzordeek, ez badute funtzionatu behar, mankomunitatean ere gogoeta egin beharko da. Institutuzioen eta mugimendu sozialaren elkarlanerako erakundea izan daiteke, edo ez. Ikusi beharko da. **Zein egoeratan ikusten duzu mankomunitatea?**

Badaude desoreka batzuk. Teknikariok ere autokritika egin behar dugu, urteotan toki gehiegi hartu dugulako batzordeetan. Beharbada gai honetan esperientzia, informazioa eta jakintza pilatzen joan garelako, baina aunitzetan gehiegi markatu dugu euskara batzordeen bidea. Argi dago funtzionatzeko modua berrikusi beharko dela. Ez da erraza, batzordeetako kideak aldatzen baitira, baita udaletakoak ere. Edozein moduz, dena berrikusteko momentua dela uste dut eta ez diogu horri beldurrik izan behar. Orain dela 30 urte, orduko beharrei erantzuteko muntatu zuten egitura, eta egungo beharretara egokitzeko garaia da.

Urteotan zein gabezia ikusi dituzu mankomunitatean?

Badira batzuk. Adibidez, eztabaidatu beharko da Bortzirietako euskararen normalizazio prozesuak beharko lukeen gidaritzaz eta lidergoaz. Horrez gain, mankomunitatearen lana ikusgarri egiten ez dugu asmatu. Kokapenak horretan zenbateko eragina duen aztertu beharko litzateke. Duela 30 urte, bi arrazoiengatik mankomunitatea Arantzan kokatu zuten: batetik, arrazoi sinbolikoagatik, Arantza herririk euskaldunena delako. Bertzetik, garai hartan eskualde mailan sortu ziren zerbitzu gehienak Lesaka eta Beran kokatzen ari zirela ikusita, herri tikiak euren herrietan zerbitzuak behar direla aldarrikatu zuten. Baina, 30 urte beranduago, arrazoi sinboliko horrek horrenbertzeko pisua izan behar du? Euskararen aldeko mugimenduak

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMINTATEA

BATZORDE ERABAKITZAILEA

Guztira zazpi udal ordezkari osatua, Arantzik, Etxalartik eta Igantzitik bana, eta Beratik eta Lesakatik bina.

LEHENDAKARIA

ARANTZA Leire Mitxelena

GAINERAKO UDAL ORDEZKARIAK

BERA Aitor Elexpuru Estitxu Pinatxo

ETXALAR Miguel M. Irigoien

IGANTZI Estitxu Mentaberri

LESAKA Jose Luis Etxegarai Mattane Rodriguez

AHOLKULARITZA BATZORDEA

Euskara batzordeetako ordezkariak osatua

BERA Iñaki Gogorza Bittori Telletxea

ETXALAR Pello Apezetxea Axun Maia

IGANTZI Idoia Urtxegi Jaione Sein

LESAKA Soltxan Txoperena

Bortzirietako Euskara Mankomunitatean, batzorde erabakitzailea eta aholkularitza batzordea daude, gaur egun horrela osatuak.

ezluke egon beharko mugimendu eta gabezia gehien dagoen tokian? Praktikotasunari begira ez litzateke hobe erdigunean egotea? Hori ere mahai gainean paratu behar da.

Zein egoeratan ikusten duzu euskara Bortzirietan?

Erronka berri dezente ditugu, baina nagusiak hiru dira. Alde batetik, gazte gehienak euskaldunak dira, neurri handi batean ikas-prozesua euskaraz egin dutenak, baina horri probetxua atera behar zaio. Lanean erdal munduarekin egiten dute topo eta beren euskarazko prestakuntza alferrik izan dela pentsatzen ahal dute. Orain arte ez dugu inoiz izan euskaraz lan egiteko hain prestakua dagoen belaunaldirik, eta hori lan mundua euskalduntzeko oinarri

ona da. Landu beharreko sektore garrantzitsua da eta Nafarroan, inon hori posible baldin bada, Bortzirietan eta gisako eskualderen batean da. Bertze erronka handi bat herritar migratuekin dugu. Ez dugu euren seme-alaba guztiak euskaraz eskolatzea lortzen, batez ere Beran. Euskaraz eskolatzen ez den sektore hori gerora euskalduntzea zaila izanen da eta gure herrietan sozializatzeko oztopoak ekarriko dizkie. Hirugarren erronka eremu ez-formalean dugu, batez ere digitalizazioarekin. Haur, gazte nahiz helduok estimulu handiak ditugu Interneten, baina eremu horretan euskarak toki tiki du eta badugu zer egin.

Zein mezu luzatuko zenieke Bortzirietako herritarrei?

Apirilaren 24ko saioan Kikek [Amonarriz] argi eta garbi erran zuen: 'Hau guk egiten dugu edo ez da eginen'. Guk bakarrik egiten ahal dugu euskararen alde, ez du bertze inork eginen. Euskaltzalea den jendeari aktibatzeke deia egin behar zaio. Euskarak behar ditu eguneroan hizkuntza erabiliko duten herritarrek, baina baita modu kolektiboan eta auzolanean euskararen beharrei erantzuteko mugimendu antolatua ere.

Zerbait gaineratuko zenuke?

Apirilaren 24ko saioan izan zirenek maiatzaren 29koan parte hartzeko gonbita hartuko dute. Baina egun horretan joaterik izan ez zutenek edo ondotik horren berri izan dutenek ere aukera izanen dute. Gurekin harremanean jartzen ahal dira, orain artekoa laburbiltzeko prest gaude. Beraz, interesa duten guztiak izen ematera animatu nahi ditugu. Aitzinetik izen ematea beharrezkoa da, bai osasun neurriak ongi betetzeko, baita aitzinetik lana ongi antolatzeko ere.

«**MANKOMUNITATEAREN KOKAPENA ERE AZTERTU BEHAR DA**»

«**ERRONKA BERRI DEZENTE DITUGU BAINA NAGUSIAK HIRU DIRA**»

Fernando Mikelarena Vianako Printzea sarirako hautagai

1936ko Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteak babestu du herriko historialariaren hautagaitza

TTIPI-TTAPA

Kulturaren Vianako Printzea Saria eskuratzeko bederatzi hautagai aurkeztu dituzte eta horien artean dago Fernando Mikelarena Peña Berako historialaria. 1936ko Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteak babestu du bere hautagaitza, memoria berreskuratzeko egindako lanagatik.

Geografia eta Historian lizentziatua eta Historian doktorea da Mikelarena. Zaragozako eta Huescako unibertsitateetan lan egiten du eta hainbat liburu argitaratu ditu 1936ko kolpearen eta Frankismoaren inguruan; hala nola, *Osasuna 1936. Golpistas, represaliados y Franquismo* (2021), *La (Des)Memoria de los vencedores. Jaime Del Burgo. Rafael García Serrano y la Hermandad de Caballeros Voluntarios de la Cruz* (2019), *Muertes oscuras, contrabandistas, redes de evasión y asesinatos políticos en el País del Bidasoa, 1936* (2017), *Demografía y familia en la Navarra tradicional* (1995) edo *Sin piedad. Limpieza política en*

Navarra, 1936 (2015). Horiez gain, bertze hainbat liburutan ere parte hartu izan du, eta horien artean, *Historia del Navarrismo (1841-1936). Sus relaciones con el vasquismo* (2002) eta *Sartaguda 1936. El Pueblo de las Viudas* (2008).

Bederatzi hautagaitza

Vianako Printzea Sariak Nafarroako Gobernuak deitutakoak dira, «kulturaren munduan garrantzitsuak izan diren pertsonen edo erakundeen ibilbidea nabarmentzeko eta saritzeko helburuarekin». Aurtengo edizioan 20.000 euroko sari ekonomikoa banatuko du. Hori lortzeko hautagaiak bederatzi dira: Mikelarenarekin batera, Atena Fundazioa dantza eta antzerki taldea, berriki hildako David Beriain kazetaria, Teresa Catalan musikari eta sortzailea, Jesus Hernandez filosofoa, teologoa eta pedagogoa, Miguel Ibañez numismatikan aditua eta itsasoko biologoa, Patxi Mangado arkitektoa, Obanosko Misterioa Fundazioa eta Cesar Oroz komikigilea eta ilustratzailea dira.



UTZITAKOA

Elkarrizan elkartea boluntario bila

Ezagun da Elkarrizan boluntario taldeak egiten duen lana. Beran sortu eta Bortzirietara zabaldua, «pertsonen ongizatea ahalbideratzea» dute helburu, «bakardadeari eta integrazioezari aurre eginez». Boluntario gehiagoren bila ari dira. Interesatuek info@bortziriakgz.eus-era idatzi 948 63 50 36ra deitu.

Berako ikuspegia eta transexualitatea hizpide egunotan

Bera, Zigardiberetik ikusia: 300 urte solasaldia eskainiko du Jose Mari Zelaieta Errandoneak maiatzaren 20an, ortzegunean 19:00etan Kultur Etxean. Berako Kultur Batzordeak eta Berako Udalak antolatutako ekitaldia da. Hilaren 22an, larunbatean 17:00etan, berriz, Haur eta gazteen transexualitatea: ez da nire gorputza, zure begirada da solasaldia emanen du Naizen elkarteak kultur etxean. Goldatz Berako Emakume talde feministak antolatu du.

'Aitzindariak' dantza emanaldia maiatzaren 29an

Ixa Universos de Movemeto dantza taldeak Aitzindariak emanaldia eskainiko du maiatzaren 29an, hilabeteko hondarreko larunbatean 19:30ean kultur etxean. Nafarroako Antzoki Sarearen Zirkuituaren baitan antolatuta dute ikuskinazuna, Nafarroako Gobernuaren babesarekin eta udalaren laguntzarekin. Xian Martinez koreografoaren eta Saioa Belarraren aginduetara bortz dantzarik (Casado, Jaume, F. Melero, Humenyuk eta Belarra) dantza saio ikusgarria eskainiko dute.



Lenkonea

JATETXEA (Churrut)

Laster zuekin berriro!
ERRAN.EUS-en abisatuko dugu noiz irekiko den

Dena egokitu dugu
beti bezain lasai eta goxo egoteko.
Erreserbak egiteko: 948 62 55 42 - 948 62 55 40.
Zuen esperoan gaude!



Foruen plaza | BERA | T. 948 62 55 40 | T. 948 62 55 42 | www.hotelchurrut.com

Uraldeko estratako bizilagunen eta ostatuen elkarbizitza

Auzotarrak kexu ostatu batzuk eremu publikoa hartu zutelako eta udal ordezkariekin batera soluzioa bilatu diote

TTIPI-TTAPA

Uraldea eta Altzate karrikako bizilagunek bilera bat eskatu zuten, bertako egoeraren berri emateko, udalari eta karrika horretan dauden ostatuen jabeei. Bilera maiatzaren 7an egin zuten, karrika horren kudeaketa hobetzeko helburuarekin.

Izan ere, bizilagunak hagitz kexu ziren, «karrika mahaiekin, aulkiekin eta barriekin» itxizten dietelako «baita aunitzetan goizeko hamarretarako ere ataka batekin». Honela, batzuetan beraien etxetara ere ezin sartuz gelditzen direla salatu dute eta «lehenago karrika erabiltzen genuen zenbait bizilagunek ez dugu erabiltzen, pasatzeko lekuri ez dagoelako edo apurua ematen dielako». Ostatuen terrazak nola paratu, oinezkoiei pasabidea utzi, karrika kotxeen trafikoa-ri noiz eta nola itxi eta ireki... hainbat gaietaz aritu ziren bilera horretan eta bizilagunekin eta ostatuen jabeekin batera, Berako alkatea eta bi zinegotzi ere bertan izan ziren.

Aitor Elexpuru alkateak errandakoaren arabera, «lehe-



Maiatzaren 7an egindako bilera.

nago ere alderdi horiek arautuak dira, baina iruditu zaigu ona dela arauak errepasatu, oroitarazi, eta denon artean betetzeko konpromisoa berrestea».

Iaz ekain aldera ere egin zen antzeko bilera bat, baina beharrezkoa ikusi da berriz egitea, denen iritziak bildu, eta denon artean hausnartu, solastatu eta estrata horren kudeaketa hobetzeko.

Bilera honen ondotik eremua ongi markatua gelditu da: Mahaiak non paratu, oinezkoen pasabidea zein izan den eta gisakoak. Alkateak erran digunez, «espero dugu honelako bilerek ostalarien eta bizilagunen arteko elkarbizitzan lagunduko dutela. Ea denon artean lortzen dugun».



UTZITAKOA

Toki Onako ikasleak jubilotekan

Toki Ona institutuko DBHko 3. mailako ikasleak jubilotekan izan ziren apirilaren 30ean eta maiatzaren 5ean. Belaunaldien arteko proiektu bat garatu dute elkarlanean eta gazteek adinekoiei elkarbizitza egin dizkiete haurtzaroz, lanbideez, emakumeen egoeraz, koronabirusak eragindakoaz, bizipenez...



UTZITAKOA

'Osasuna 1936' liburua aurkeztu dute

Fernando Mikelarena historialariak eta Victor Moreno idazleak haien liburua aurkeztu zuten maiatzaren 8an Kultur Etxean. *Osasuna 1936: Golpistas, represaliados y franquismo* liburua saiakera historiko, politiko eta kirolekoa da, eta Nafarroako ikur bihurtutako futbol talde baten lurpeko uretan murgiltzen da.

MARITX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK
- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450** Legia, 23 - BERA

LABE ZAR

Astelehenetik ortziratera:
07:15etik aitzinera

Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera

948 631 076 • BERA

Arduro

arropa-denda
etxeko osagarriak | lenteria

Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

Alberto RETEGI
abokatua

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Anterola

Tekniko instalatzailea

ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA

Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa

629 449 602

JAIONE-GOXOTEGIA

Etxean egindako produktuak

948 630 786 · Altzate, 21 · BERA

Talentu Artistikoaren Sustapenaren saria lortzeko hautagaia

Martxel Rodriguez dantzari lesakarra bertze 11 gazte nafarrekin batera izendatu dute

AITOR AROTZENA

Martxel Rodriguez herriko dantzaria Talentu Artistikoaren Sustapenaren sarirako izendatu du Nafarroako Gobernuaren Kultura eta Kirol Departamentuak, Nafarroako 30 urtez beheitiko bertze ha- maika gazterekin batera. Sa-

ritutako pertsonaren proiektu artistikoa edo kulturala pro- gramatu eta erakutsiko du, gehienez 10.000 euroren truke. Danimarkako *Black Box Dance Company* konpainian aritua, *Oskara* projektuan ere aritu zen eta *Led Silhouette* konpainia zuzentzen du.

Nafarroako Bertso Eskolen Eguna herrian ospatuko dute maiatzaren 29an

AITOR AROTZENA

Nafarroako gazteen bertso eskolek haien eguna ospatuko dute maiatzaren azken larun- batean, Lesakan. Nafarroa osoko 9 eta 16 urte bitarteko gazteek parte hartuko dute bertan, eta Nafarroako Esko- larteko Bertsolari Txapelketak emanen dio amaiera egun osoko egitarauari.

Goizean mendi ibilaldi bat eginez ekinen diote egunari gazteek. Ondotik, herrian baz- kalduko dute eta jolasak egiten dituzte, haien arteko harre- manak sustatze aldera. Azke-

nik, Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa jokatu- ko da Lesakan bertan, eta saio honek emanen dio amaiera egun osoko egitarauari. Jar- duera guztietan osasun neu- rriak beteko dituzte, egitarau dibertigarri bezain segurua izan dadin.

Egun, 18 urtetik beheitiko 200 ikasle inguru aritzen dira Nafarroako haur eta gazteen bertso eskoletan, eskola orduz kanpo bertsolaritza lantzen, 30 taldetan. Horretarako, ira- kasle sare zabala du Nafarroa- ko Bertsozale Elkarteak.



UTZITAKOA

Kopa, Bianditz eta Izura presoan alde

Sare Plataformak deituta, preso, deportatu eta iheslarien alde mendira joateko eguna izan zen maiatzaren 8an. Plazatik goizean goiz abiatuta, batzuk Izura lasterka, bertzeak Bianditzera bizi- kletaz eta bertze batzuk Lizarrietara eta Kopara (argazkian) oinez joan ziren.



UTZITAKOA

Amaia Agirre garaile Señora Sariketan

I. Señora Sariketako finala jokatu zuten maiatzaren 8an Arranon. Finalistak Saioa Alkaiza, Haizea Arana, Miren Artetxe, Paula Amilburu, Onintza Enbeita eta Amaia Agirre izan ziren eta gai-jartzaile lanetan Ainhoa Larretxea beratarra aritu zen. Es- titxu Arozenak jantzi zion txapeldunaren pamera Agirrerri.

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
 Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

Hemen erabili

kattagorria
 LESAKA
 948 627 514
www.kattagorria.com

744 484 361
ttipi-ttapa

F. LANCHAS
 Akutxiladorea eta bernizatzailea
 Parket eta parket flotatzailea jartzea
 Mota guztietako zolak
 Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Heliazalera egiteko lursail erabilgarrien bila

Proiektuak eragin dituen kexen aitzinean, lursail partikularren erabilgarritasuna ezagutu nahi du udalak

IRUNE ELIZAGOIEN

Behekolandan heliazalera bat egiteko proiektuari buruz agertu diren kexen aitzinean, udalak bando bat ateratzea erabaki du, heliazalera egiteko lur partikularren bat ba ote dagoen jakiteko. Interesatuak Herriko Etxera joaten ahal dira

informazioa eskuratzeko. Proposamenak aurkezteko epea maiatzaren 28an bukatuko da. Etxalarkoa barne, Nafarroan 7 heliazalera egin nahi ditu Gobernuak: Leitza, Saldiasen, Izaban, Iruñean, Ultzaman eta Lekunberrin. Etxalarkoa izan ezik, denak eginak dira.



UTZITAKOA

Sarek antolatutako irteera Azkuara

Maiatzaren 8rako Sare Herritarrek erronka handia ezarri zuen; egun berean, Euskal Herriko 650 mendi igo eta tontorretara bere aldarria eramatea. Etxalartik ere bat egin zuten deialdiarekin eta 25 bat mendizale goizeko hamarretan plazan elkartu eta Azkua mendira oinez joan ziren.

Usoa Kooperatiba asteazkenetan ere irekiko dute hemendik aitzinera

IRUNE ELIZAGOIEN

Orain arte Usoa kooperatiba asteazkenetan itxita egoten bazen ere, azken asteetako aldaketa izan da asteazkenetan ere zabalik egonen dela. Orain, beraz, astelehenetik larunbatera egonen da zabalik bere zerbitzua eskaintzen. Izozkailu berriak ere paratu dituzte eta janari izoztuetan aukera zabala eskaintzen dute. Bertzetik, bigarren langile bati lanaldi osoko kontratua egin zaio. Oraindik ez dago erabakita urteko batzar orokorra noiz eta nola egingen den.



Izozkailu berriak paratu dituzte.



ITSASO ELIZAGOIEN

Asun Elizalde 103 urte bete ditu

Maiatzaren 2an Barbereneko Asun Elizalde Danborienak 103 urte bete zituen. Argazkian ikusi daitekeen sasoi eta irribarre horrekin ospatu zuen bere urtebetetze eguna. Zoritxarrez, bi aste lehenago, apirilaren 20an hil zen berekin bizi zen Juli ahizpa, 101 urte zituela.

Jauzena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralera

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Ainhua Altzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Lan aferak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.

BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com

USOA
Nekazari kooperatiba

T. 948 635 214 M. 605 631 244
ETXALAR

Udan igerilekuak eta ostatua kudeatzeko deialdia egin dute

Egunero zortzi orduz irekitzeko asmoa dago uda honetan eta proposamenak maiatzaren 31 arte aurkez daitezke

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Joan den udan ez zen irekitzeko aukerarik izan, baina uda honetan igerilekuak eta bertan dagoen ostatua kudeatzeko deialdia egin zuen udalak maiatzaren 17an. Dagoeneko ezagunak diren arrazoiengatik, aurten baldintzak zorrotzagoak dira eta ordutegia murriztu egingen da.

Maiatzaren 31 arte

Aurtengoan, egunean zortzi orduz irekitzeko asmoa da, arriskuak eta kostuak murrizteko eta kudeaketa errazteko.



Uda honetan irekitzeko asmoa dago.

Ordutegia 12:00etatik 20:00etara izanen da. Deialdiaren xehetasunak eta baldintzak udaletxean eskuragarri izanen dira eta proposamenak ere, bertan aurkeztu ahal izanen dira maiatzaren 31 arte.

Eskolako jantokia laguntzeko Merkatu Ttikia eginen dute ereiarioaren 20an

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Aitzineko urteetan egin den bezala, aurten ere Merkatu Ttikia egiteko asmoa da herrian. Guraso elkarteak antolatua izanen da, eta ateratako dirua eskolako jantokiari laguntzeko izanen da. Beraz, etxean ditugun puskei bizi berria emateko aukera dugu, hala nola: altzariak, bitxiak, Eguberrietako eta dantzetako arropak, inauterietako mozo-erroak, liburuak, jostailuak, janaria, arropa...

Ereiarioaren 20an izanen da merkata eta aitzinetik gura-



2016ko merkatu ttikia.

so elkarteko kideak etxetatik pasatuko dira puskak biltzera. Inguruko herrietatik ere, norbait animatuko balitz elkarrekin harremanetan jarri helbide honetan igantzikogurasoelkarte@gmail.com.



MAITE, ANA ETA ITZIAR

Presoen aldeko ibilaldia Apittura

Sare plataformak deituta eta Izan Bidea dinamikaren barne, ehunka izan ziren euskal preso, iheslari eta deportatuen alde, maiatzaren 8an mendi tontorretara igo zirenak. Eskualdean ere dozenaka eta dozenaka lagunek egin zuten aldarria eta igantziarrek ere Apittuko kaskora egin zuten ibilaldia.



MAITE, ANA ETA ITZIAR

Gartxipiko galtzadako sarreratan posteak

Orain dela aste batzuk Gartxipiko galtzadako sarreratan posteak paratu dituzte. Helburua garbia da, motordun ibilgailuen sarrera ekiditea. Hauen harat honatekin galtzada bera hondatzen ari zenez, ondare hori babestu nahian paratuak dira eta, gainera, oinezkoak seguruago ibiliko dira.

Zuzenketa. Biltoki Ttikiko zaharberritzearen izenburuan auzolanean berritu dela agertu zen eta hau ez da horrela. Biltokiko Ttikiko bazkideak 14-18 urteko adin tarteko gaztetxoak dira. Beraiek bakarrik eginiko lana da zaharberritze hau, heldu gutti batzuren laguntza pixar batekin, ez auzolanean.

ANTZUZELAI
S.L.

BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa



Ezkerretik hasita Pikabea, Larretxea, Lukanbio, Oteiza, Alzuri eta Fagoaga.

Giro ederra sortu du gazteen arteko apustuak

Imanol Lukanbiok eta Iosu Larretxeak minutu bateko aldearekin irabazi diote apustua Jon Alzuri eta Mikel Oteizari

NEREA ALZURI

Joan den maiatzaren lehenean, herriko lau gaztek antolatutako apustuak ikusmira handia sortu zuen herrian.

08:30ean hitzordua jarria zuten plazan eta herritar andana bildu zen babesa ematera. Bi bikoteren arteko apustua izan zen. Alde batetik, Mikel Oteiza eta Jon Alzuri aritu ziren (kamiseta gorriarekin) eta bertzetik, Imanol Lukanbio eta Iosu Larretxea lehengusuak (kamiseta urdinarekin). Bikote bakoitzak 40 kiloko motxila txandaka era-

man behar izan zuen eta Illurdiko kaskora (1070m) nor lehenagotik ailegatu izan zen erronka. Laguntzaileak Alberto Fagoaga –bikote gorriarekin– eta Joseba Pikabea –bikote urdinarekin– izan zituzten.

Minutu bateko aldearekin, Lukanbio eta Larretxea lehengusuek irabazi zuten apustua, ibilbidea ordu bat eta 15 minututan eginez. Ez dago dudarik herrian kirolari bizkorak daudela! Apustuaren bueltan herrian zein mendi kaskoan sortutako giroa ere aipatzekoa da. Bejondeizuela!



UTZITAKOAK

Izan Bidea kaskoz kasko

Sarek antolatutako Izan Bidea dinamikaren baitan, joan den maiatzaren 8an hainbat herritarrek, presoak Euskal Herriratzeko aldarria eraman zuten mendi tontorretara. Batzuk Ekaitzako kaskoan bildu ziren eta bertze batzuk Mendaurren.

Arrats gorri goiz euri Arantzan

Maiatzaren 8ko ilunabarreko zero gorria eta biharamun euritsua irudietan dituzue. Jose Ramon Amorosek ateratako argazkietan, berak idatzi bezala, lehenbizikoan zeruan sua eta bigarrenean ura.



EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

DESINSEKTAZIOAK · ARRATOI-HILTZEAK · EGUR TRATAMENDUAK

T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

948 63 74 11

T. 948 63 74 11
@zumarbeld@hotmail.com
www.zumarbeld.es

«Argi izan behar dugu txertatuta ere kutsa gaitezkeela»

ANE IGOA MIGELTORENA BIDASOA OSPITALEAN PCR PROBAK EGITEN ARITZEN DEN ERIZAINA

Orain arteko joera ikusita, «lanerz beteriko uda» izanen dutela uste du Ane Igoak. Horren aitzinean herritarrei zuhurtziaz jokatzeko eskatu die: «alarma egoera kentzeak ez du bukatu denik erran nahi»

TTIPI-TTAPA | BERA

Koronabirusaren kontra eta herritarren osasunaren alde eginahalak eta bi egiten ari diren ehunka erizainetako bat da Ane Igoa Migeltorena (Bera, 1998). Erizaintza gradua bukatu orduko, iazko ekainean, Bidasoko Ospitalean hasi zen lanean. Ordutik PCR probak egiten da eta, horrez gain aztarnari lanetan eta txertaketetan ere aritza egokitu zaio. Egiten duten lanaz, bizi duten egoeraz, txertaketek eta udara begira dituen aurreikuspenek aritu da TTIPI-TTAPAREKIN. Kezka eta itxaropena sumatzen da bere hitzetan, ospitalean bizitzen ari diren egoerak «horrela segitzen badu ez duelako itxura onik» eta, aldi berean, txertaketetan «esperantza handia» duelako. **Zer nolako egoera bizi duzue joan den martxoaz geroztik?**

Egoera bi ikuspuntutatik bizi dut. Martxotik ekainera arte, ikasle ikuspuntutik. Erizaintza graduko azken urtea zen eta bukatzeko ilusioz nintzela, Covid-19a azaldu eta egiten ari nintzen praktikak bertan behera gelditu zitzaizkidan. Momentu nahiko desatsegina izan zen, lagundu nahi eta ezin. Orduan, gradu amaierako lana egin nuen eta ekainean lanean hasi nintzen. Erizainaren ikuspuntutik, ospitalean bizitako eta bizitzen ari garen egoera gogorra eta zaila da. Aunitzetan, eguneko orduak motz gelditzen dira. Positiboak igotzen hasten diren momentua, bat-batekoa

da, ezin da deus kontrolatu eta momentu horretan izugarriko ezintasuna sentitzen da. Hala ere, niretzat, hainbertze jende eta hain larri ikustea izan da gogorrena. Azken igoera honetan gainera, jende hagitz gaztea da gaizki dagoena.

Zertan eragin du igoera horrek zuen eguneroko lanean?

PCRak egiten ari naizenez, lotura zuzena du. Positiboak igo ahala, lan-zama handitzen da. Gero eta positibo gehiago diagnostikatu, orduan eta kontaktu gehiagori egin behar diegu frogak. Adibidez, positibo hori umea bada, ziur aski bere gelakide guztiei egin beharko diegu frogak, baita bere kontaktu zuzen guztiei ere, familia, lagunak, etab. Azken hilabete honetan, egun aunitzetan, bi erizain egon beharrean, lau aritu gara frogak egiten.

Zenbat PCR egiten dituzue egunean?

Froga kopurua egoeraren araberakoa da, aunitz aldatzen da aitzineko egunetako positibo kopuruaren arabera. PCRak taldetan sailkatzen ditugu. Alde, batetik kirurgia edo froga arrerako PCRak; bertzetik, kasu positibo baten kontaktuen PCRak; eta azkenik, sintomak

dituzten pertsonen PCRak. Hauek guztiak gehituta, guti goiti-beheiti 350-400 froga egiten ditugu egunean. Erizain-kopuruari dagokionez, gure taldean borts gara PCRak egiten aritzen garenak.

Maiz gazteengan paratu da begirada... Zein adin-tartekoak dira proba egiten dutenen gehiengoak?

Frogek ez dute hori islatzen, ez da gazteen adin-tartea nabarmentzen frogak egiterako garaian. Adin-tartea aldakorra da, hau da, adin guztietako pertsonen egiten dizkiegu frogak, tarte zehatz bat nabarmendu gabe. Eskola garaian, froga aunitz dira umeen egiten dizkiegunak, gela aunitz itxi eta guztiei egiten dizkiegu frogak, batez ere 3-8 adin-tartekoiei.

Adin-tarte hori aldatu da frogak egiten ari zarenetik?

Baietz erranen nuke, egia da hasiera batean gazteak gailentzen zirela, baina denbora pasatu ahala, adin-tarte hori handitzen joan da eta gaur egun, aunitz dira 30-60 urte bitartean positibo ematen dutenak. Horrek ez du erran nahi ume eta gazteak gibelean gelditzen direnik, noski.

Seguru sentitzen zara lanean?

«AZKEN IGOERA HONETAN JENDE HAGITZ GAZTEA DA GAIZKI DAGOENA»

«TXERTAKETA DA PANDEMIA HONI AURRE EGITEKO DUGUN BIDEA»

Bai, nahiz eta beldurra sentitu, beti seguru sentitu naiz lanean, zorionez. Bertze modu batera erranda, beti behar izan dudana materiala eskura izan dut (musuko egokiak, mantalak, esku-larruak, pantailak, etab.) eta lanean hasi aitzinetik beharrezko formakuntza jaso nuen, kutsatze-arriskua guttitzeko eta positiboak izan daitezkeen nola jokatu jakiteko.

Kutsatzearen beldur zara?

Lanean ari naizen postuan, ezinezkoa da erabat lasai lan egitea, egunero positibo aunitz ematen ditugu-eta. Beraz, beldur hori beti egon da, dago eta egon da. Hasieran, hagitz gogorra izan zen, kutsatzeko beldur hori hagitz presente zegoen, baina ez niregatik, etxeko eta ingurukoengatik baizik. Covid-19an positiboak diren pertsonen lan egin eta etxera itzultzean izugarriko ardura sentitzen nuen, nire hurbilekoak kutsatzearen beldur nintzen. Hala ere, beldur horrekin lan egiten 'ikasten' da baina beti duzun arriskuaz kontziente izanik eta erlaxatu gabe aritzen gara. Txertatuta nago, baina horrek ez dit beldurra kendu, biztanleriaren gehiengoak eta, batez ere, nire etxeko eta inguruko guztiak txertatuta egon arte...

Kutsatze kopuruak ikusita, txertaketekin jendea lasaitu dela erranen zenuke?

Egia da kutsatze-kopurua handitu dela, baita jendea lasaitu dela ere, baina lasaitasun hori ez nuke txertaketekin lotuko. Erran beharra dago, gehien kezkatzen gintuzten gure atxiki-amatxiak txertatua egoteak lasaitasun puntu hori sentitzera bultzatu gaituela. Baina kutsatze-kopuru horren igoera jendearen nekearekin lotuko nuke. Urte bat baino gehiago pasa da kaos hau hasi zenetik eta hagitz luze egiten ari zaigu denoi. Jendea nekatuta dago, bizitzeko gogoz, eta bukaera ez ikustea da arazoa...

Txertaketetan ere aritu zara...

Irungo Artaleku kiroldegian aritu nintzen txertoak paratzen,

goiz batean. Guztira 1.000 txerto paratu ziren eta nik guti goiti-beheiti 200 bat. Txertoaren bigarren dosia paratugenien 70-79 adin-tarteko pertsonen.

Nolako jarrera izaten du txertoa hartzea joaten den jendeak?

Hagitz positiboa, jendea hagitz kontent etorri zen. Bigarren dosia hartu ondotik, lasaitasuna nabarmentzen zen, gainera zama bat kendu balute bezala. Gehiengoak ez zekien zein txerto ari ginen paratzen ere, baina berdin zitzairen, beraien kezka bakarra immunitatea lortzea eta beraien buruak arriskutik kanpo ikustea zen. Nire arreta gehien erakarri zuena jendearen esker ona izan zen, osasun langile guztiengana esker ona hain zuzen ere.

Zer izaten da beldur gehien eragiten diona?

Beldurra baino gehiago kezka dela erranen nuke, orokorrean errepikatzen zen galdera familiarikoei, batez ere, bilobei besarkada eta musu noiz ematen ahal zieten zen. Hainbertze aldiz galdetu zidaten gauza bera... Hunkigarria iruditu zitzaidan ataxi-amaxi horiek bilobak lasai besarkatzeko zuten ilusioa. Horrez gain, bidaiei buruz ere galdetzen zuten, ea bi txertoak jasota, baimena zuten hemendik kanpora joateko, bidaiatzeko edo familia ikusteko.

Albo-kalterik izan zuten txertatutakoak?

Ni behin bakarrik egon naiz txertatzen eta zorionez, albo-kalte bakarra txertatze-guneko gorritasun eta berotasuna izan zen.

Behin eta berriz nabarmendu dute herritarrek txertatzea dela immunitatea lortzeko gakoa...

Txertaketaren bidez, pertsonen organismoak kasu honetan Covid-19aren aurkako immunitatea garatzea lortzen dugu, pertsonen gaixotasuna pairatu gabe. Immunitate orokorra lortzea, horixe da gakoa. Nahiz eta oraindik lan aunitz dagoen egiteke, poliki-poliki horretan ari gara. Prozesu luzea da biztanleriaren immunitate oro-



lazko ekainetik Irungo Bidasoa ospitalean ari da lanean Ane Igoa beratarra.

korra lortzea, baina bitarte honetan, argi izan behar dugu txertatuta gaudenak ez gaude la arriskutik kanpo, hau da, Covid-19az kutsatu gaitezkeela eta gure ingurukoak kutsatu. Horregatik da garrantzitsua gehiengo txertatu arte eta arriskua izan dezaketen infekzioa modu arinean igaroko dutela ziurtatu arte, prebentzio-neurriak txertatu aitzinetik bezala betetzea.

Jendea txertoak eragin ditzaketen albo-kalteekin kezkatuta dagoela uste duzu?

Denetik dago. Kezka hori paratu behar dioten txerto motaren arabera aunitz aldatzen da. Nire ustez, ulertzekoa da kezkatuta egotea txerto batzuekin egon diren goiti-beheitiak direla-eta. Baina, txertaketei dagokionez, alde onak, alde txarrak baina aunitzez ere ugariagoak dira. Beraz, profesionalengan konfiantza jarri behar dugu, txertaketa da pandemia honi aurre egiteko dugun bidea eta aditu aunitz ari dira

horretan lanean, guztion onerako. Adibide ona iruditzen zait gaur egun zainketa intentsibotan dauden pazienteen adina jakitea, adin-tartea aunitz jaitsi da eta arrazoietako bat helduenak txertatuta egotea da.

Alarma egoera indargabetzearekin batera, neurriak arindu dira. Zer ondorio eragin dezake horrek?

Ondorioak jendearen jarreraren arabera izan dira, gure esku dago etxeratze agindurik gabe zentzuz jokatzeko eta indarrean dauden neurriak errespetatzea. Alarma egoera kentzeak ez du erran nahi hau guztia bukatu denik eta ez genuke horrela jokatu beharko. Nire iritziz eta zoritxarrez, orain arte ikusi dudaren arabera, kutsatze-kopurua handituko da, Eguberrietan, Aste Santuan... gertatu den bezala.

Nolako uda aurreikusten duzu?

Lanez beterikoa, hau ez da bukatu, ezta berehala bukatuko ere. Aunitz gustatuko litzaidake txertoak jartzen aritea

baina zoritxarrez, PCR pila bat egin beharko ditudala iruditzen zait. Ospitaletan bizitzen ari garen egoera hagitz kritikoa da eta honek horrela segitzen badu ez du itxura onik. Esperantza handia dut txertaketan...

Zer egin dezakegu herritarrok zama arintzeko?

Prebentzio neurriak errespetatu eta osasun-profesionalen lekuan jarri. Hau bukatzea denon esku dago eta guztion ardura da. Badakit herritarrek egoeraz nazkatuta daudela eta ulertzekoa da, baina denok berdin gaude, nekatuta, hagitz nekatuta.

Bertzerik gehitu nahi duzu?

Eskerrak ematea gustatuko litzaidake, pertsona aunitz dira gauzak ongi egiten ari direnak hasiera batetik eta osasun langileekin enpatia dutenak. Herritar aunitz dira ospitalera etorri eta egunero eskerrak ematen dizkigutenak eta horrek indarra ematen digu aitzinera egiteko. Jende horri esker goaz aitzinera.



Ordezkariek izendatuta, esku onetan daude elkarteko beratarrak.

Iaz baino 91 bazkide gutxiago ditu elkarteak

Elkarteak podologia zerbitzua martxan paratu du Ezkurran, hilabetero, azken astelehenean

PABLO IRASTORTZA

Joan den apirilaren 7an elkartu zen elkarteko zuzendaritza batzordea. Iazko urtearen balantzea egin bitartean, aurtengo urteari erreparatzeko aprobetxatu zuten bilkura.

Bidaia kopuruaren eta kontu ekonomikoen beherakada

Alde gehienetan gertatu bezala, izugarritzko kaltea sorrarazi dio elkarteari azkeneko urte pasatxo honetan bizkarrean daramagun izurri tamalgarriak. Adibidez, 2019 urtearekin konparatuz, 3.652 lagunetik 737ra jaitsi ziren bidaietan eta mendian mugitzeko zortea izan zuten kideak.

Oker batek bertzea dakarrenez, antzeko bidea egin dute diru kontuek. 2019an denetara maneiatu ziren 595.000 eurotatik 2020an 181.000 eurora murriztu da mugimendu ekonomikoa.

Ateraldiak eta bidaia berpizteko ahaleginean

Aitzineko zenbakietan aipatu bezala, zenbakien behe-

rakadari buelta ematea da zuzendaritzaren betiko leloa. Jadanik osatuak dauden aferentzako eta urte osoan egin daitezkeen ekintzetarako – zalantzak zalantza eta ziurgabetasunak ziurgabetasun – 192.500 euroko aurrekontua prestatu dute.

Batzordeak tinko jarraitzen du lanean, txertoen laguntzarekin jende mugimenduak berriro suspertuko direlako itxaropenez.

Bazkide kopuruak ere beheiti

Ez da bukatu aipaturiko zenbakiekin urte batetik bertzerako gainbehera. Bitxikeria da, zorionez ez baitzen elkartearen bizitza luzean sekula santan gertatu.

Saihestu ezineko heriotzak batetik, eta Covid-19a medio bazkide berrien geldotasuna bertzetik, 2.985tik 2.894ra

«595.000 EUROTİK 181.000 EURORA MURRIZTU DIRA MUGIMENDUAK»

GUTUNA

PABLO IRASTORTZA, ARKUPEAK ELKARTEAREN IZENEAN

Jose Javier Perez Arregiri

Berri beltza hartu genuen Legasa aldetik elkartean eta batez ere mendi taldean, maiatzaren 3an. Bat-batean astindu zigun zure azken arnasak, zure osasun egoera ez zela batere itxaropentsua jakinik ere. Dakigunez, eta irakatsi diguzunez, beti amesten zenuen mendiarekin, bien artean bikote perfektua osatuz, zure gaixotasunak, zoritxarrez, erabat ezinduko arte. Hilabeteroko taldekoei ez zaigu atzenduko 2020ko



Jose Javier Perez zena.

«KENDU EZIN DEN ARRASTOA UTZI DUZU EZAGUTU ZAITUZTENENGAN»

nola ez, Arkupeak elkarteko mendi taldean. Nola ez zen ba, gertatu zen bezala, jende andana elkartuko, zuri azken agurra eskaintzera! Har ezazue familia eta ingurukoek, elkartearen dolumin eta besarkadarik sentikorrena. Mila esker lagun!

otsailaren 18a, azken aldiz elkarrekin, zu talde-gidari zinela, Oteixon mendira egin genuen irtenaldi polita; hain zuzen, Covid-19a zela eta, denon itxialdiaren azken mendi-txangoa izan zen. Malkoz blai utzi dituzu emaztea, seme-alabak, familia eta lagunak. Horiez aparte, jaioterria zenuen Narbarte eta urte aunitzez bizi izan zinen Legasa ere arras triste utzi dituzu. Kendu ezin den arrastoa utzi duzu zu ezagutu zintuztenengan, Jose Javier. Solas erdi batez gertu eta arretatsu, 'bai' solasa beti prest zenuen, herrian, Parrokian, Kuku elkartean, eta

jaitsi da bazkide kopurua, 2020ko urtarritatik 2021ko apirilera. Bizitza normaltzen doan heinean, kopurua gorantz joanen delako itxaropena du batzordeak.

Berako ordezkariak izendatuak

Airean zegoen Berako ordezkaritza azken otsailean Joxepa Agestak (goian bego) zoritxarreko agurra eman zigunetik. Hemendik aitzinera bi

izanen dira Berako herriari dagokionez, elkartearen harat-honatak landuko dituztenak: Maria Angeles Izurra-tegi eta Paula Etxeberria. Lerro hauen bidez, har dezatela biek elkarte osoaren bihotzeko eskerrik beroena eta sentikorrena.

Podologia zerbitzua Ezkurran

Azken TTIPI-TTAPA zenbakian aipatzen zen bezala, martxan dago Ezkurran podologoaren hileroko bisita. Hilabetero, hondarreko astelehenean, bertaratuko da herrira eta interesa duenak, txanda hartzeko, aitzinetik Ainarari telefonoz deitu behar izanen dio.

MARIA ANGELES IZURRATEGI ETA PAULA ETXEBERRIA BERA KO ORDEZKARI

Lehen Hezkuntzako ikasleek idazleen bisita izanen dute

Heldu den astean, maiatzaren 25ean eta 27an Nerea Arrien eta Nerea Loiola joanen dira eskolara

MAIDER PETRIRENA

2020/2021 ikasturtea akitzeaz den honetan, Lehen Hezkuntzako bigarren, hirugarren, laugarren, borzgarren eta seigarren mailako ikasleek euskal idazleen bisita izanen dute.

Nerea Arrien eta Nerea Loiola

Heldu den asteartean, maiatzaren 25ean, Nerea Arrien idazle bizkaitarrak bi saio emanen dizkie, borzgarren eta seigarren mailakoei. Maiatzaren 27an, ortzegunean, berriz, Nerea Loiola Debako irakaslea eta idazlea etorriko



Nerea Loiola idazlea.

da bertze bi saio eskaintzera, bigarren, hirugarren eta laugarren mailako ikasleei. Ikasleek aitzinetik beraien liburuak irakurriko dituzte eta, horrela, egun horretan liburuari buruzko galderak egiteko tarte izanen dute.

Baratzean buru-belarri lanean ari dira herritarrak

Eguraldi ona lagun, baratze lanetan fuerte hasi dira herritarrak. Argazkian ikus daitekeen bezala, baratze lana egiteaz gain, zaintzaile ederrak paratu ditu aurtengoan Anttonek bere baratzea ongi zaintzeko.



ANTTON ESPELOSIN



JONTXU ANZIZAR

Askinera presoan aldeko martxa

Maiatzaren 8an Sarek antolaturiko Izan Bidea egitasmoan herritarrek ere parte hartu zuten. Preso eta iheslarien auziari behin betiko aterabidea ematea helburu duen dinamikarekin bat eginez, Askin mendira irteera egin zuten eta bertatik aldarriak zabaldu zituzten.



EUSKALERRIAIRRATIA.EUS

Asier Navaridas pilota egokituan

Asier Navaridasek Euskal Pilota Egokituko Sari Nagusian parte hartu du. Manu Quesadarekin bikote eginez, apirilaren 25ean Oiartzungo Madalensoron jokaturako kanporaketan ez zuen lortu maiatzaren 16an Getarian jokatzekoa zen finalerako txartela, baina, ederki aritu zen. Animo eta segi horrela!

Lizun GAZTANDEGIA

Sunbilla • Tel: 948 450 862

IDIAZABAL

MINIESKABAZIOAK

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

BORDALARRIA

Gure Haragia Nuestra Carne

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN
Jarrai gaitzazu!

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa



2019an eskualdeko lau lagunek parte hartu zuten (ezkerrean Haritz Zulaika).

Eki Zulaika Irigoien Euskarabenturan izanen da

Uztailaren 16tik 25era bitarte bertze 40-60 gazterekin batera esperientziak gozatuko du Zulaikak

MARGA ERDOZAIN

Gazteen artean euskararen erabilera normalizatu eta sustatzea eta natura- ondasun eta ondasun historiko zein kulturalak transmititzea ere du helburu EuskaAbentura espedizioak. Aurten hirugarren edizioa izanen da eta pandemiak eragindako egoerara egokituta dator.

Bertze 40-60 gazterekin batera

Orain artean ez bezala, aurtengo edizioak kanpaldi itxura izanen du eta bi txandatan banatuko da (uztailaren 1etik

11ra eta 16tik 25era hain zuzen). Mendaurreko Institutuko ikasle den Eki Zulaika Irigoienek bigarren txandan parte hartuko du.

Eki Zulaika da gure eskualdetik aukeratu duten sei partaidetako bat, Malerrekako bakarra eta aukera ezin hobea izanen du hamar egunez bertze 40-60 gazterekin batera ekimen zoragarri honetaz gozatzeko.

Duela bi urte Ekiren anaia den Haritz Zulaikak ere abentura itzel honetan parte hartu zuen. Gozatu egonaldi eder horretaz!

Ipuin Txokoaren azken hitzordua maiatzaren 25ean

M. ERDOZAIN

Maiatzaren 25ean Haizea Loira musikoterapeuta eta ipuin-kontalariak azken ipuin eta kanta eskainiko du. Pandemiak pandemia, urrian hasi eta maiatzaren bukaerara arte ipuin, musika, dantza, ahoz-kotasunaz gozatzeko aukera

izan dute 0-3 urte bitarteko txikiek eta zaindareiek. Gure belarriek gozatu dute eta gure txikiek zure magiarekin amesten segituko dute. Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta ipuin txokoa urrian itzul dadila herriko liburutegian.

Ekainaren 3an eta 18an kontsumitzaileen bulegoa irekita

M. ERDOZAIN

Malerrekako Mankomunitateko bulegoetan eskaintzen den doako zerbitzuakekainean honako hitzordu hauek izanen ditu: ekainaren 4an eta 18an. Erabiltzaileek hitzordua eskatu behar dute 948 45 17 46 telefonora deituz.

Kontsumitzaileok telefono konpainiekin, aseguru etxeekin, erosketak egitean... izaten ditugun arazo eta zalantzak eta, batez ere, zer eskubide ditugun eta zer egin dezakegun ederki aholkatzen digute bulego honetan. Hartu hitzordua eta argitu zalantzak!



UTZITAKOA

Askindik presoan aldeko oihua

Sare plataformak deituta eta Izan Bidea dinamikaren barne, maiatzaren 8an Askingo tontorrean, Mendaurreko atzean ederki ageri dela, doneztebar eta sunbildar batzuk elkartu ziren preso, iheslari eta deportatuaren alde. Eskualdean ere dozenaka lagunek mendi kaskotara igo zuten presoan aldeko aldarria.



UTZITAKOA

Futbolzaleak eta futbolariak zelaian

Futbolariak ederki aritu dira azken partidetan eta horrek eta giro ederrak lagunduta harmailak futbolzalek bete dira azken hilabeteetan. Argazkian ederki ikusten denez, maskara jantzita seguru sentitzea, elkar zaintzea eta gozatzea lortzen dute. Segi animatzen, segi gozatzen.

Menpekotasuna dutenak artatzeko ikastaroa Donezteben

Ikastaroa ekainaren 3tik 22ra emanen dute eta instituzioetan arreta soziosanitarioa emateko gakoak ikasiko dituzte

TTIPI-TTAPA

Nafar Lansarek antolatuta, erakunde sozialetan menpekotasuna dutenei arreta soziosanitarioa emateko ikastaroa izanen dute ekainean Donezteben. Guztira 370 orduko ikastaroa izanen da eta helburua menpekotasun

psikiko, fisiko edo sentsoriala duten pertsonen zaintzaileentzat beharrezkoak diren edukiak lantzea izanen da. Informazio gehiago eskuratu edo ikastaroan izena nahi dutenek www.navarra.es atarira, formakuntzen atalera, jo dezakete.



UTZITAKOAK

Presoen aldeko ibilbideak

Presoen alde egitekoak zituzten martxai erantzunez, Garmendiko tontorrera, Aintzingurutza eta Axkinera joan ziren Malerrekako herritarrek maiatz hasieran. Eguraldi ederra lagun, aldarrikapenez betetako goiz-pasa ederraz gozatu zuten haur, gazte eta helduek.



JAIONE ZABALO

Mikel Aingeruaren bisita herrian

Maiatzaren 4an, lehendabiziko astelehenean, urteroko bisita izan zuten herritarrek, Mikel aingeruarena hain zuzen ere. Ilunabarrean, 19:00etan, egin zuten haren aldeko meza eta argazkian ageri den taldeak atseginez hartu zuen bedeinkapena.



JAIONE ZABALO

Inkiszioaren sugarrez hizketan

Asisko Urmenetak eta Helena Xurio Arburuak egindako *Sugarren mende* liburuaren aurkezpena izan zuten apirilaren 30ean Ezkurran. Herritarrek inkiszioak Euskal Herrian eragindakoa ezagutzeko aukera izan zuten komiki formatuan egindako lanaren aurkezpenean.

Emurak babesa adierazi dio Aroztak herri ekimenari

TTIPI-TTAPA

Malerrekako eta Bertizaranako talde feministak, Emura taldeak, babesa adierazi dio Aroztak herri-ekimenari. Oharrean adierazi dutenez, «hemen bizi eta lan egin nahi dugu, gure landa eremuan gure bizitzak garatuz eta gure komunitatea

indartuz». Lanaren izenean «denak ez duela balio» adierazi dute: «zementuzko proiektu honek gure bizimodua eta ingurua ez duela aberastuko». Horren aitzinean, «etorkizuna landa eremutik eta landa eremuarentzat» eraiki nahi dute la nabarmendu dute.

Uztailerako 50 urtetik goitiko txertaketaosatzea espero dute

Heldu den astelehenean, maiatzaren 24an, 55-59 urte bitartekoei lehenbiziko txertoa ematea aurreikusi dute

TTIPI-TTAPA

Txertaketak aitzinera doaz. 70-90 urte bitartekoek dagoe-neko bi txertoak jarriak dituzte eta 60-69 urtekoek lehenbiziko dosia hartu dute.

50-59 urtekoak txertatzen hurrengoak

Hurrengoak 55-59 urte artekoak izanen dira eta maiatzaren 24an, heldu den astelehenean, dute txertoa hartzeko hitzordua. Ekainaren 3an, ortzegunean, 50-55 urte artekoen txanda izanen da. Hortik aitzinera, bigarren

dosiekin hasiko dira. Egun berean, hilaren 3an, 68-69 urtekoek bigarren txertoa paratzea aurreikusi dute.

Ekainaren 14an, berriz, 55-59 urtekoek bigarrena hartuko dute. 50 eta 55 urte artekoak ekainaren 24an dute ordua. Azkenik, 60-65 urte artekoek eta 66-67 bitartekoek uztailaren 16an eta 29an osatuko dute txertaketa, hurrenez hurren.

Horrela, uztailaren 29rako 50 urtetik goitiko guztiek bi txertoak paratuak izatea espero dute.

Iker Gorosterrazuk Aixita Bertso Sariketan parte hartu du

ARKAITZ MINDEGIA

Herriko bertsolariak han eta hemen dabilta beraien bertsoekin txapelketa eta saioakosatzen. Zapla egitasmoaren barne, Alazne Untxalo Beran eta Iker Gorosterrazu Irurtzuen izan zen. Lehenenbiziko Señora Bertso sariketan par-

te hartu zuen Alaznek Aramaion eta Iker Gorosterrazu maiatzaren 15ean Aixita Bertso Sariketan izan zen. Azken txapelketa horretan, berarekin batera, Maddi Ane Txoperena lesakarra, Eli Pagola, Imanol Uria, Saioa Alkaiza eta Xabi Igoa aritu ziren.

San Migelen bisita izan dute Iturenen eta Aurtitzen

ARKAITZ MINDEGIA

Urteroko bisita egin du San Migel santuak Iturenen eta Aurtitzen. Joan den urteko bisita bertan behera gelditu zen pandemiaren ondorioz, baina aurrean berriz ere ikus-teko aukera izan dute herri-tarrek.

Hori gutti balitz, maiatz hasierako igandeetan herriko gaztetxoak aingeru egiten ari dira mezetan. Hauek dira hiru igandez parte hartu dutenak: Iñaki Leiza, Malen Bereau, Olaia Deskarga, Alaitz Aioroa eta Naroa Elizalde. Segi horrela boskote!!

Oinarrizko gaitasun digitalei buruzko ikastaroa izanen dute Zubietan

TTIPI-TTAPA

Nafar Lansarek antolatuta, ekainaren 14tik 18ra bitarte, oinarrizko gaitasun digitalak lantzeko 25 orduko ikastaroa izanen dute Zubietan.

16 urtetik 65 urte bitartekoei bideraturikoa izanen da (jubilatuek ezin dute parte hartu) eta parte-hartzaileak goizetan, 09:00etatik 14:00etara bilduko dira eskolan.

Besteak beste, Interneten nabigatzen, fitxategi motak bereizten, bideokonferentziatarako eta telelanean sistematik, Google tresnak, akredi-



tazio digital motak erabiltzen, eta on-line egiten diren iza-pide ohikoenak egiten eta segurtasuna bermatzen ikasiko dute.

Parte hartu nahi dutenek 948 45 03 09 telefonora deituz eman dezakete izena.

Landarte proiektuan parte hartuko du Zubietak

Gobernuak landa ingurunean artea eta kultura sustatzeko antolatu ohi duen Landarte 2021 proiektuan parte hartzeko aukeratua izan da Zubieta. Hortaz, udala erakundearekin lanean ari da proiektu bat garatzeko asmoz. Maiatzaren 25ean bilera dute 10:00etan.

Nilsakoen bisita izan dute Pulunopa eskolan

Maiatz hasieran Nilsa enpresako bi begirale eskolan egon ziren. Burbuilaka banatuta, errekarara joan eta bertako ura analizatu zuten, uraren erabilera eta kontserbazioa lantzeko. Urtarrilean eskola barronean teoria lantzen aritu ziren, orain, berriz, praktikoak.



UTZITAKOA

Presoen aldeko mendi buelta Iturenen

Euskal preso eta iheslariaren aldeko aldarria maiatzaren 8an Euskal herriko mendi tontorretara eramateko deialdiari erantzunez, herritar kuadrila batek goiz-pasa polita egin zuen. Plazatik atera, Ameztin barna antenara goitu eta bertan gosalduta zuten.



Maiatzaren 8an 'Amonarenean kea' ipuin-kontaktetaz gozatu zuten.

Ikusikunak eta herri kirolak maiatz hondarrean

Maiatzaren 29an 'Txomin eta Txistuman deskontzertuan' ikuskizuna izanen dute 18:00etan

NATALIA REKARTE

Sugarren mende liburuaren aurkezpena, *Bideak* dokumentalaren proiektzioa, ipuin-kontakteta eta tailerra, herri-kirolak, magia tailerra... ekitaldi andana izan dituzte Kultur Egunen barne Donamarian apiril hondarretik hasita.

Herri kirol erronka eta ikuskizuna

Ekitaldi horiei Karnalita kosmokoak ikuskizunarekin emanen diete segida maiatzaren 22an, 19:00etan. Biharamunean, berriz, herriarren

arteko herri kirol erronka izanen dute Migeltxo Sarlegiren eskutik eta ikuskizuna 16:00etan hasiko da, herriko plazan.

Ekitaldiak borobiltzeko maiatzaren 29an, azken larunbatean, *Txomin eta Txistuman deskontzertuan* ikuskizuna izanen dute 18:00etan herriko plazan.

Segurtasun neurriak

Udalak adierazi duenez, ekitaldi guztietan edukiera mugatua izanen da eta segurtasun neurriak zorrotz beteko dira.



lazko ekainean ere parkea txukuntzen aritu ziren. ARTXIBOKOA

Herria txukuntzeko auzolana egingen dute larunbatean

NATALIA REKARTE

Maiatzaren 22an, heldu den larunbatean, herria txukuntzeko auzolana egingen dute Donamarian. Sasiak moztu eta txokoak zein bideak garbitzeaz gain, parkea margoitzeko eta igerilekuan moldaketa batzuk egiteko ere arobetzatuko dute hitzordua.

Bertze auzolan deialdietan bezala, honetarako ere herriko plazan bilduko dira, goizean goizik, 08:00etan. Gaztelukoak Gaztelun eta Artzekoak Artzen egingen dute. Parte hartzaile guztiak, eguerdira arte, udarako herria garbi eta eder uzteko lanean ariko dira.

Helpbideari buruzko informazioa emateko bilera ortziralean

NATALIA REKARTE

Nafarroako Gobernua, udalen laguntzarekin, lurralde osora zabaltzen ari den egitasmoa da Helpbidea eta, dagoeneko, hainbat herritan indarrean dute. Leitzan, Areson, Goizuetna, Aranon, Zubietan, Ezkurran... martxan da. Maia-

tzaren 21ean, heldu den ortziralean, horri buruzko azalpenak emateko bilera egingen dute Donamarian ere. Jauregian eginga dute hitzordua 19:00etan. Ondotik, baserrietan identifikazio plakak paratzen hasiko direla jakinarazi dute.



BIDASOA
ascensores

www.ascensoresbidasoa.com
info@ascensoresbidasoa.com

IGOGAILUEN SEKTOREAN ENPRESA LIDERRA GARA

- Mota guztietako igogailuak jarri, konpondu eta mantentzeko zure enpresa gara.
- Urte askotako esperientzia duen lantalde tekniko aditua gara.
- Hurbiltasunak egiten gaitu berezi, beti zure segurtasuna eta erosotasuna kontuan hartuz.
- Edozein abisu dela ere, berehalako erantzuna ematen dizugu.
- 24 orduko matxura zerbitzua ematen dugu.

IRUN: Primautzar 19 - T. 943 05 90 53 | **ERRETERIA:** José María Usandizaga 8 - T. 943 96 93 49





ORBELA
SENDERSMOA ATERPTEA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia - Mikel
Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com



744 484 361
ttipi-ttapa



Gai organikoaren bilketa handitzea da lehiaketaren helburua. UTZITAKOA

Organi-Kopa Olinpiadetan parte hartzen ari dira

Baztango udala eta Bortzirietako eta Mendialdeko Mankomunitateak lehiaketan ari dira uztailaren 3ra bitarte

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Hondakinen Partzuergoak bultzatutako Organi-Kopa Olinpiadakekimenean parte hartzen ari dira Baztango Udala eta Bortzirietako eta Mendialdeko Mankomunitateak.

Nafarroan guztira 11 mankomunitate eta 92 udallerri parte hartzen ari dira ekimenean maiatzaren 3tik uztailaren 3ra. Lehiaketaren helburua gai organikoaren bilketa haunditu eta Nafarroa-

ko Hondakinen Planak planteaturiko helburuetara hurbiltzea izanen da, eta honekin batera bereiz bildutako hondakin frakzioen kalitatea hobetzea, gure eskualdeko herritarren artean kontzientzia piztea, gai organikoaren bereizketarako ohiturak bultzatzea eta batez ere edukiontzi berdetik hondakin birziklagarriak atera eta honela zabor-tegietara bideraturiko hondakin kantidadea murriztea.

Eskualdean hiru lehiaketa antolatu dituzte; bata Bortzirietako bortz herrien artean, bertzea Baztango 15 herrien artean eta azkena Mendialdeko 20 herritan. Bi hilabete horietan, herri bakoitzeko edukiontzi marroietan eta auzo konpostaguneetan bildutako hondakinak neurtuko dituzte. Datuak astero publiko egiten dituzte eta olinpiaden akabailan biztanleko hondakin gehien bildu duten herriek eramanen dute saria. Sakanako Mankomunitatean egingen dute sari-banaketa Nafarroa mailan, eta zonalde bakoitzean emaitza hoberenak lortzen dituztenek ekonomia zirkularrarekin loturiko 5.000 eurotan baloratutako saria lortzeko aukera izanen dute.

Dantxarineko ur-araztegiko hitzarmena berretsi dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak eta Euskal Hirigune Elkargoak Urdazubiko eta Ainhoako saneamendu zerbitzua bermatzen elkarlanean segituko dute. Hala egiten dute 2010etik Dantxarineko ur-araztegiaren eta joan den astean hori berretsi zuten Bernardo Ziriza Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak eta Jean-René Etxegarai Euskal Hirigune Elkargoko lehendakariak, akordioa «guztiendako onuragarria» dela iritzita. Dantxarineko ur-araztegiaren Urdazubiko bente-tako ura hartzen dute, baina Urdazubik badu bertze araztegia, 2019 hondarrean eraikia, herriguneko eta Leorlas eta Hiribere auzoetako ura tratatzeko. Bertzalde, hitzarmena berrestearekin batera, bi entitateetako ordezkariak jarraipen batzordea sortuko dutela aitzindu dute, bi urtetarako berritu duten hitzarmena in-darrean dagoen bitartean sor daitezkeen kontuak aztertzeko.



UTZITAKOA

Ultzamako Maier-en gizarte-funtsa

Azken hamaika urteetako ohiturari eutsiz, Ultzamako Maier enpresak sustatzen duen gizarte-funtsak 40.000 euro baino gehiagoko dirulaguntza hartu dute hamar gizarte-erakundek. Horieta-ko lau izan ziren maiatzaren 6an Iraitotzen egin zuten ekitaldian: Nafarroako Elikagaien Bankua, Saray, Adacen eta Adano.

Sahararen askatasunaren aldeko martxan parte hartzeko deia egin du Saharaztanek

TTIPI-TTAPA

Estatu mailako dozenaka erakundek eta ehunka herritarrek Saharako herriaren askatasunaren aldeko martxa antolatu dute, maiatzaren 20an Andaluzian hasi eta ekainaren 19an Kanariar Uharteetan bukatuko dena, eta martxa horrekin bat egiteko deia egin die Saharaztan Baidan-Bidasoko Saharar Herriaren aldeko elkartasun taldeak herritarrei. Zehazki ekainaren 4an Berriozartik Iruñera, ekainaren 5ean Iruñetik Garesera eta 6an Garesetik Lizarra joanen da martxa eta

hor parte hartzeko gonbita egin du Saharaztanek. Interesatuek 686 62 90 28ra deituz eman dezakete izena. Aldi berean, Espainiako Gobernuari Madrilan eskura emanen dioten manifestua sinatzeko ere eskatu dute (marchasaharai.org/firmar).

Gisa honetara, Saharar herriaren «egungo egoera larriagotu duen su-etenaren urraketa» salatu nahi dute, eta horrekin batera, Marokori «behegoz lurren okupazioa bertan behera utz dezan» exijitu nahi diote.

«Aldaketaren» beharra aldarrikatu du LABek

Maiatzaren lehenean hogei mobilizaziotik goiti egin ziren LABek deituta, eta horien artean Elizondon jendetza bildu zen

TTIPI-TTAPA

Aldaketa da aukera lelopean jendetza bildu zen maiatzaren 1ean, Langileen Nazioarteko Egunean, LAB sindikatuak deituta Elizondon egin zuten manifestazioan. Euskal Herri osoan hogeia mobilizaziotik goiti deituta zituen LABek eta horietako

ko bat izan zen Elizondokoa. Aldaketaren beharra azpimarratu zuten eta pandemiak lehenetik zetorren krisia azkartu duela ere salatu zuen. Adibidetzat, larrialdi klimatikoa, migrazio mugimendu masiboak, zaintza sistemaren gabeziak, enplegu suntsiketa... aipatu zituzten.

«Borrokatzeak bere fruituak ematen ditu, hori da bidea»

JONAN GOÑI BAZTAN-BIDASOKO LAB SINDIKATUKO ARDURADUNA

Otsailaz geroztik LAB sindikatuak Baztan-Bidasoaldean duen arduraduna da Jonan Goñi eta Langileen Nazioarteko Egunean atarian, «gertatzen ari zaigun guztia salatzeko beharra» azpimarratu zion TTIPI-TTAPARI: «Sistema kapitalistak urte aunitz darमतza langileen eta herritarren eskubideak erasotzen eta pandemia aitzakiatzat erabiltzen ari dira aspalditik heldu diren neurriak bizkortzeko». Horren adibide, «milaka herritar haien lanpostuetatik kanporatuak direla, zerbitzu publikoetan murrizketak daudela, erretiro adina luzatu nahi dutela, pentsioak kolokan jarri nahi dituztela, zaintza lanetan prekarietatean bizi direla...» aipatu zituen. Eskualdeko adibideak ere mahai gainean paratu zituen: «Aroztegia edo Magnaren proiektuak. Gure naturaren eta bizimoduaren kontrako neurriak ezarri nahi dituzte edozein prezioan gutti batzuen onura ekonomikorako». Gisa berean, «herritar eta langileek abiatutako borrokak» nabarmendu zituzten: «herria eta langile mugimendua bizirik dago». Bertzalde, «zerbitzu publiko duinak eskatzeko osasungintzan eta hezkuntzan langileak eta herritarrak mobilizatzen ari direla» ere azpimarratu zuen: «Lesakako edo Elizondoko zahar etxeko langileek mobilizatzea erabaki dute lan baldintzak eta hitzarmena berritzeko, pentsionistak hilabetero karrikara ateratzen dira...». Argi utzi nahi izan zuen, «arrazoi aunitz ditugula karrikara ateratzeko, eta borrokatzeak bere fruituak ematen dituela. Hori da bidea».



LABek deitutako manifestazioan hartutako irudiak. ARGAZKIAK: RUBEN OSKARIZ

«Patronalaren aliatu nagusia Nafarroako Gobernua da»

ANDONI LARRALDE ETXARTE ELA SINDIKATUKO ORDEZKARIA

Laneko osasuna eta segurtasuna, langileen egoera, Europako funtsak, lan erreformak, fiskalitatea eta bertze hainbat kontu izan ditu hizpide lesakarrak TTIPI-TTAPAREKIN

G. PIKABEA | LESAKA

ELA sindikatuko laneko osasunaren eta segurtasunaren Nafarroako ordezkaria da Andoni Larralde lesakarra, eta Laneko Osasunaren eta Segurtasunaren Nazioarteko Egunaren (apirilaren 28a) eta Langileen Nazioarteko Egunaren (maiatzaren 1a) harira egindako mobilizazioen «balorazio ona» egin du; «lantokietako nahiz handik kanpoko arazo nagusiak seinalatzea, eta horien aitzinean gure aldarrikapenak zein diren azaltzea lortu dugula» dio, baina oraindik ere «lantokietan eta karrikan presioa egiteko» beharra azpimarratu du.

Apirilaren 28an Sistema honek gaixotu eta hil egiten gaitu salatu zenuten. Laneko osasuna nola ikusten duzu?

Hagitz ilun. 2020an 70 lagun hil ziren Hego Euskal Herrian lan-istripuan eta bertze 28 amiantoak eragindako gaitzen ondorioz. Joakin Beltran oraindik Zaldibarko zabortegean lurperatuta dago, eta aurten 20 dira lanpostuetan hildakoak. Horrez gain, lan istripuan hiltzen den bakoitzeko bertze 35 hiltzen omen dira laneko gaixotasunen ondorioz. Nafarroan ez behar tasa %30 igo da 2012tik eta, estatistika ofizialek jaso ez arren, azken hamarkadan 5.000 pertsona baino gehiago hilko dira lana dela medio. Era berean, bana bertzeko soldata 2011ko mailan dago, eta kontratuen %93 aldi baterako dira, lanaldi partzial eta errotazio maila

handiekin. 3.600 langilek urtean 15 kontratu baino gehiago dituzte, emakumeak, gazteak eta migranteak dira gehienak. PSOE eta PPren azken lan erreformekin lan baldintzak anitz okertu dira, eta horrek eragin zuzena du ez behar kopuruaren igoeran. Horregatik erabili ohi dugu *Prekariatateak hil egiten du* lema. Argi dago sistema honek kapitalaren interesak lehenesten dituela, esplotazioa eta iruzurra ahalbidetzeraino.

Pandemiak zenbateraino eragin du laneko osasunean?

Erabat. Plastikozko zabor poltsak babes-neurritzat erabiltzeraino. Konfinamendutik honat, Osasunbidean, zaintza lanetan, garbikuntzan edo merkataritzan zer pasatu den ikusi bertzerik ez dago. Oraindik ez dakigu zenbat pertsona hil edo gaixotu diren lantokietan koronabirusarekin, baina badakigu behin-behineko tasun maila altua, soldata arrakala eta oina-

rizko zerbitzu publikoen kontura negozioa egitea bilatzen duen pribatizazioa lehenagotik ere hortxe zeudela. Pandemiak emakumeek soldatapeko lanetan jasaten dituzten bertze pandemiak utzi ditu agerian, laneko gainkarga fisikoek eragindako giharretako arazoak, eta estresak, antsietateak eta biolentziak eragindako kalte psikologikoak, adibidez. Orain, horietako anitz konfinamenduko txaloak lan-baldintza duin bihurtzeko borrokan ari dira.

Lantokiak seguruak dira?

Oro har, ez. Ttikia izanda ere, beti dago arriskuren bat, eta enpresa gehienek prebentio-zerbitzu bat kontratatatu behar dute arriskuak neurtu eta babes-neurriak zehazteko. Anitzetan hori ez da behar bezala egiten, eta gehiegitan paperean gelditzen da. Gastutzat hartzen dute, ez inbertsionatzen. Eta administrazio publikoak berdin. 2020ko urrian, Hezkuntza De-

partamentua salatu genuen, irakasleei banatutako musukoek babes maila nahikorik ez zutelako. Zazpi hilabete berandua-ga, 8.000 irakasle baino gehiagoren musukoak ordeztu dituzte eta Haur Hezkuntzakoei FFP2-ak eman. Zenbat irakasle kutsatu dira epe horretan? Zenbat diru aurreztuko zuten?

Prebentzio neurriak errespetatzen al dira?

Ezartzen direnean, bai. Edonola ere, langileen segurtasuna bermatzeko bete beharra enpresariarena da. Batzuek ez dute barkatzen lanean huts egitea, baina bertze aldera begiratzen dute agudoago aritzeko segurtasun neurriak sailhestean.

Zerk huts egiten du?

Lan arloan bezala, lan osasunean ere ez dugu behar adina esku-menik, eta lan erreformek eskubideen galera ekarri dute. Horrez gain, sistema prebentiboa inbertsio funtsen eta patronalaren mutualitateen esku dago, eta interbentzio publikoa ez da, inolaz ere, nahikoa. 2018an Nafarroako Parlamentua lan ikuskaritzaren eskumena eskualdatzearen alde agertu zen, eta gaur egun 15 inspektore daude 270.000 langile eta 40.000 lantoki kontrolatzeko. Hori ezinezkoa da, eta onartezina.

Laneko osasuna hobetzeko lehen-tasunak zein izan behar luke?

Lan-harremanetarako eta babes sozialerako esparru publiko propio bat sortzea proposatzen dugu, Gizarte Segurantzaren baitan hartu eta jende ahulenaren ongizatea bermatuko duena. Laneko osasun politika publikoetara bideratutako aurrekontu partidak handitzea ezinbertzekoa da, eta jarduera arrakatsuak dituzten enpresak kontrolatzea ere bai. Horretarako, beharrezkoa da Lan Osasunaren Institutuko eta ikuskaritzaren plantillak 50 pertsonekin indartzea. Amianto eta errepideetako puntu beltzak kentzeko ere eskatu genuen. Egingarriak dira, baina ez dizkigute aintzat hartu. **Laneko osasunaren harira, zer dio administrazioak? Eta patronalak?**



Larralde apirilaren 28ko mobilizazioan hedabideei adierazpenak egiten. UTZITAKOA

Patronala eroso dago. Nafarroan legedia betetzen dela dio, baina prebentzio legea onartu zenetik 25 urtera, lan-istripu larri eta hilgarrien %40 segurtasun faltagatik gertatzen dira, eta enpresek, urtero, milioi bat euro baino gehiago ordaindu behar izaten dute araudia ez betetzeagatik ezarritako isunetan. Hori gutti balitz, bere eskaera nagusia mutualitateei langileen historia klinikorako sarbidea ematea da. Zertarako? Baja egunen %45 lan-baldintza txarrekin lotuta daudela ezkutatzan segitzeko. Aurten, VW Navarrak 5.000 langileen kotizazioak Gizarte Segurantzara bideratzeari utzi dio, Mutua Navarrari esleitzeko. Eta VW Navarra Mutua Navarrako zuzendaritzako kidea da. Baina patronalaren aliatu nagusia Nafarroako Gobernua da. Gobernuak gurekin biltzeari uko egiten dio, baina CEN, UGT eta CCOOekin elkarrizketa soziala bultzatzen ari da, UPNren garaiko eredu ez-eraginkorra berri martxan jartzeko. 2008tik 13,5 milioi euro eman dizkie laneko segurtasunaren eta osasunaren aitzakian, baina horrek ez du galarazi Nafarroa estatuan bigarren ezbehar tasarik handiena duen erkidegoa izatea. Bertzalde, gobernuak milaka isun paratu dizkie herritarrei koronabirusaren kontrako neurriak ez betetzeagatik baina ez da gai izan arrazoi beragatik enpresa bakar bat zigortzeko.

Aldaketa garaia dela azpimarratu zenuten maiatzaren 1ean...

Lehenik eta behin, zerga politika goitik behera aldatu behar da, kapitalak eta aberatsek gehiago ordain dezaten. UPN gobernutik atera zenetik ez da ia aldaketarik egin, eta Barcinaren garaiko fiskalitatea dugu. Lan erreformak ere indargabetu behar dira. Geroz eta gehiago Madrilen negoziatzen dira hemengo lan baldintzak, eta enpresek geroz eta errazago kaleratzen dituzte langileak.

Zein da hori lortzeko bidea?

Lantokietan eta karrikan presioa egitea.



Larralde ELA sindikatuko laneko osasunaren eta segurtasunaren Nafarroako ordezkaria da. UTZITAKOA

Langileak zein egoeratan daude?

Langile anitzen egoera prekariora da, baina hala zen pandemiaren aitzinetik. Langabezia maila altua da, eta handiagoa izanen da ERTeak bukatzean. Lan baldintzak gero eta eskasagoak dira eta lan kontratubatek ez ditu bizitzeko oinarritzko beharrak bermatzen.

Europako Suspertze Funtzak «trapatat» jo ditu ELAK...

2008ko krisian, Europako Batzordeak, Europako Banku Zentralak eta Nazioarteko Diru Funtzak osatzen duten Troikak beltzeko gizonak erabili zituen austeritate politikak eta murrizketak ezartzeko. Bertzeak bertze, lan merkatua desarautu eta erretiroa hartzeko adina gibelatu zuten. Oraingoan, Europako funtsak jasotzeko baldintza nagusia lan eta pensio erreformak egitea izanen da. Espainiako Gobernuak lan erreforma indargabetuko zuela erran zuen duela urtebete, eta orain ez dago argi. Funtshoriek, gainera, enpresa handi eta multinazionalen proiektuetara bideratuko dira, Nafarroako Kanala eta AHTra, erraterako. Proiektu horiek sostengaezinak dira. Horregatik gaude baldintzatutako edozein funts hartzearen kontra. Baina Nafarroako Parlamentuan ordezkartza duten PSOE, Podemos, EAJ eta EH Bilduk funtsak hartzearen alde bozkatu zuten.

Lan-erreformak ere alde batera uztea eskatu duzue...

Lan-erreformak enpresa handien neurri egingako legediak dira. 2010ean PSOEk egindakoak hemengo hitzarmenak aplikatu beharrean estatukoak aplikatzea ekartzen du. Hala, adibidez, ostalaritzako langile batek lehen irabazten zuenaren erdia irabaz dezake. 2012ko PPrena, berri, kaleratzeak erraztu eta baldintzak okertzeko egin zen. Egungo lan merkatuaren egoera erreforma horien ondorio da, eta Espainiako Gobernu eta patronalaren iritziz ez da indargabetzeko garai ona. Gure ustez, momentu ezin hobea da, hain justu langileak kaleratzeetatik babesteko.

Zergen erreformaren beharra ere azpimarratu duzue...

Daukagun fiskalitatea ez da nahikoa, ezta justua ere. Europako bana bertzeokarekin konparatuz, anitzez diru guttiago biltzen da eta diru sarrera publikoak langileok ordaindutako zergetan oinarritzen dira. Bereziki kezkatuak gaude PSN, Geroa Bai eta Podemosek osatzen duten Nafarroako Gobernua ez delako oposizio izaten ari. EH Bildu eta Ezkerrak Europako funtsen aldeko Foru Dekretua onartzea ahalbidetu dute.

Krisi honen ondorioz kaltegarrienak zein izan daitezke?

Politika publikoak aldatzen ez badira, behar sozialak biderkatuko dira, eta kolektibo ahulenak izanen dira kaltetuenak.

Zerbait gaineratuko zenuke?

Koronabirusaren kontrako txertoen patenteekin bukatzeko neurriak eskatzen ditugu. Enpresa farmazeutikoek laguntza publiko izugarriak baliatu dituzte txertoak lortzeko, eta orain negozioa bertzerik ez dute egin nahi. Aseezinak dira.



IDASOA

CIFP "BIDASOA" LHII
IRUN



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Zure etorkizuna, gure erronka

Etorkizunerako inbertsiorik hoberena formakuntza ona izatea da. **BIDASOA Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak** hori eskaintzen dio bide hau hautatzen duen ikasleari. Profesional kualifikatuak, eta esperientzia egiaztatua; ekipamendurik hoberenak eta teknologiarik aurreratuenak. Lan munduan sartzeko aukerarik gabe inor gera ez dadin, ikasketak amaituta ikasleen jarraipena egiten du Ikastetxeak.



Mantentze-lan elektronikoa

HASIERAKO PRESTAKUNTZA

Eskaintza berritua eta osoa, Erdi eta Goi Mailako Prestakuntza-zikloak eskaintzen dituen industriaren sektoreko lanbide-arloan: Fabrikazio Mekanikoa, Elektrizitatea-Elektronika, Zurgintza eta Altzarigintza, Hizkuntza ereduak: A (gaztelania), D (euskara), B (mistoa) eta zenbait kasutan eleanitza (moduluak ingelesez). Hiru modalitate daude:

Erregimen arrunta

Bigarren Hezkuntzako (DBH) edo Batxilergoko ikasketak bukatu ondotik, bi kurtsoan Erdi edo Goi Mailako Zikloa egiteko ohiko bidea da.

Eskaintza Partziala (arratsalde).

Bide honek zikloetako moduluak era independentean ziurtatzeko aukera ematen du. Ordutegia ikaslearen beharretara egokitzen da. Lana eta bestelako eginkizunak ikasketarekin tartekatuz, hiru urteko epean dagoen titulazioa eskuratzeko aukera du ikasleak.

Erdi Mailako zikloetatik

orain zuzenean

Goi Mailako zikloetara

Metodologia berria

Elkarlanerako metodologia berriaren bidez, lanbidearen berezko gaitasun teknikoak lantzen dira, bai eta gai-

tasun pertsonalak, lankidetzakoak, komunikaziokoak eta digitalak ere, gero eta gehiago, lan eta lanbide ingurunean beharrezkoak direnak.

Lanbide Heziketa Duala

Ikas-ekinezko heziketan oinarritua den modalitatea da. Alemaniako modeloaren antzera, ikastetxeetako prestakuntza lantegietako prestakuntzarekin konbinatzen du. Hartara, ikasleak ezagutza teoriko eta praktikoa guztiak bereganatzen ditu ikastetxearen eta lantegiaren artean, lan kontratu batekin eta sektoreko lan hitzarmenaren arabera soldata kobratuz.

Lehen Aukera Programa


Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duen programa berri hau Prestakuntza Ziklo bat bukatu duten ikasleentzat prestatua dago, enpresa batean ordaindutako praktikak eginez ikasleek lan esperientzia har dezaten.



Zurgintza eta altzarigintza



Telekomunikazioen elektronikoa



Fabrikazio Mekanikako diseinua



Fabrikazio Mekanikoa



Elektrizitatea



Kokapena:
Elizatxo, 10
Irungo erdigunetik
300 metrotara,
Elizatxo etorbidea eta
Aduana kalearen
bidegurutzean

GPS
N 43° 20.198'
W 1° 47.897'



ATE IREKIEN ASTEA

**ERDI ETA GOI MAILAKO ZIKLOAK
MAIATZAK 24, 17:00etan**

ARRETA PERTSONALIZATUA:
Izena eman eta informazioa emango dizugu

IKASTETXEAK ESKAINTZEN DITUEN BESTE ZERBITZU BATZUK

Lan-Poltsa

Espezializazioa edozein dela ere, euren ikasketak bukatzen dituzten ikasleentzako enplegu-aukera eta se-gimendu pertsonalizatua egiten du ikastetxeak helburu horrekin prestatua duen lan-poltsaren bitartez. Lan-Poltsa honi esker, enpresetatik datozen lan-eskaerak kudeatzen ditugu eta gure ikasleek lan-merkatuan sartzeko aukera dute edo, kasuaren arabera, euren lan egoera hobetzeko aukera dute.

Lan-munduan sartzea, norbere enpresa sortzea eta autoenplegua

Ekintzailetzaren eta autopenpleguaren kultura sustatzeko esfortzu berezia egiten du Ikastetxeak. Hezkuntza Sailburuordetzaren Urrats Bat programari esker, Bidasoa Institutuak ikasketak bukatu dituzten ikasleei enpresa propioak sortzen laguntzen die. 2001ean ekimena abiatu zenetik hogeita hamar enpresa baino gehiago eratu dituzte ikastetxeko ikasleek.

Ikasle-trukeak eta praktikak Europako enpresetan

Prestakuntza ikastaroak dohainik langile eta langabeentzat

Enpresentzako prestakuntza-beharren diagnostikoak eta zerbitzu profesionalak

2021 / 2022 IKASTURTEA

Ziklo-eskaintza egunez eta gauez*
Hizkuntza eskaintza A, D eta B (eleanitza)

Gaztelania, Euskara eta Ingelesa

GOI MAILA

**FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN
PROGRAMAZIOA***

FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA

DISEINUA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

**SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK
ETA AUTOMATIZATUAK**

MANTENTZE-LAN ELEKTRONIKOA

**TELEKOMUNIKAZIO ETA
INFORMATIKA-SISTEMAK**

ERDI MAILA

MEKANIZAZIOA

INSTALAZIOA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK*

TELEKOMUNIKAZIO INSTALAZIOAK

IZEN-EMATE EPEA

**Maiatzaren 31tik
ekainaren 18ra,
biak barne**

MATRIKULA EPEA

**Uztailaren 19tik 21era
biak barne**

«Mimukai agintaldi honetan martxan jarri nahi genuke»

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA LEITZAKO ALKATEA

TTIPI-TTAPA

«Balorazioa oso positiboa da». Hitz horiekin laburbildu du Mikel Zabaleta Leitzako alkateak Mimukai proiektuaren barrenean egin dute parte-hartze prozesua. Pozik agertu da zortzi saioko prozesuak egin duen ibilbidearekin eta «parte-hartzearen eta ekarpenen aldetik» izandako erantzuna nabarmendu du: «eskualde osora zabaldu den, sektore guztiak inplikatu dituen eta herritar asko bildu dituen parte-hartze prozesua izan da». Azaldu duenez, «zortzi saioak kontuan hartuta, 220 parte-hartzailetik gora izan dira, eta gauden egoera zein den ikusita oso positibotzat» jo du. Parte-hartze kopuruaz haratago, «jaso ditugun ekarpen interesgarriak» azpimarratu ditu alkateak: «proiektua bera zehazteko asko lagundu digute».

Joan den maiatzaren 6an egin zuten parte-hartze prozesuko azken saioa eta «aurrez aurre 55 lagun eta streaming bidez 15 lagun» bildu zirela dio alkateak: «oso saio polita izan zen» eta «sentsazio onak» izan zituela aitortu du. Nafarroako Gobernuak ordezkari-tzak ere parte hartu zuen: «Mikel Irujo garapen ekonomikoko kontseilaria eta Izaskun Goñi zuzendari orokorra bertan izan ziren eta proiektu eredugarria iruditu zitzaizela, asko gustatu zitzaizela eta hurbiletik jarraituko dutela esan zuten». Alkateak argi utzi du «oraindik ez dagoela deus itxia, baina gobernuko ordezkariak proiektu aurrera eramateko lanean segituko dugula esan zuten».



Parte-hartze prozesuko saio bat.

Lan teknikoa

Parte-hartzeko prozesua bukatuta, orain «atera dituzten ondorio guztiekin txosten bat prestatuko dute eta hori izanen da teknikoek proiektua garatzeko oinarri gisa erabiliko dutena». Epeei buruz ere mintzatu da Zabaleta, eta «lan teknikoa ekainetik irailera bitartean» egitea aurreikusi omen dute. Hori eginda, «behin-betiko dokumentua urrian» esku artean izatea espero dute. Hurrengo urtean, berriz, «lortzen ditugun diru-laguntzen arabera, exekuzioarekin hasiko ginateke». Bide horretan, «lokal egokia» bilatu beharko dute. Bateko eta besteko, «agintaldi honetan Mimukai martxan jarri nahiko genukeela» adierazi du.

Bide batez, «parte hartu duten guztiei eskerrak» eman nahi izan dizkie: «proiektu komunitarioa izateko jendearen parte-hartzea ezinbestekoa da eta ea horrela segitzen dugun».



UTZITAKOA

Presoak etxeratzeko eskatuz Leunetan

Euskal Herri osoan ehunka herritarrek bat egin zuten Sare plataformak mendiz mendi presoak etxeratzeko eskatuz egin zuen deialdiarekin. Aranoarrek ere ez zuten hutsik egin nahi izan eta maiatzaren 8an hainbat herritar bildu ziren Leunetan.

Aresoko deposituan konponketak egiten hasiko dira

Hilabete honetan Aresoko ur deposituan konponketa-lanak egiten hasi nahi du Aresoko Udalak. Zehazki, deposituko irekiera, itxiera eta kanpoko giltza guztiak aldatzeko eta egokitzeko asmoa dutela jakinarazi du Joxe Otermin alkateak, «gehienak ez erabiltzeko moduan daudelako». Obra horiek tarteko, behar bada ur mozketaren bat egin beharko dutela ere aurreratu du alkateak eta ahal duten neurrian horren berri aurretik ematen saiatuko direla adierazi du.

'Gosaldu gurekin' Kaxkabeltza elkartaren eskutik

Leitzako Kaxkabeltza elkar-terko kideek Gosaldu gurekin izeneko kanpaina abiatu dute. Hala, maiatzeko ostiral arratsalde eta larunbatetan erosketak elkarteko kide diren dendetan egiteagatik zozketan parte hartzeko aukera izanen dute bezeroek. Astero-astero bi lagunentzako lau gosari zozketatuko dituzte Karrape irradian, eta gosari horiek Leitzako Musunzar, Ogi Berri, Zortziko eta Txoko tabernetan dastatzeko izanen dira. Zozketak lau astez egiten dituzte.

 **inelsa**
ZENER
ascensores
igogailuak

Igogailuen
instalazioak.

Multimarka
mantentze-lanak
eta erreformak.

T. 948 232 400

www.inelsazener.com

Mendialdeko azoka ibiltarien denboraldia abiatu dute

Araitzen egin duten hitzorduan Habelarte baserritarren elkartearen aurkezpen ofiziala ere egin dute

TTIPI-TTAPA

Joan den urteko azoka ibiltarien «esperientzia positiboa» errepikatzeko «gogotsu eta ilusioz», Mendialdeko azoka ibiltarien bigarren edizioa antolatu dute aurten. Guztira bederatzi azoka ibiltari aurreikusi dituzte, eta horietan aurrenekoa maiatzaren 9an Araitzen egin zuten. Berez, apirilaren 25ean egitekoa zuten Leitzan, baina herrian aurreko egunetan izandako koronabirus kasuen gorakada tarteko, Leitzako hitzordua ekainaren 6ra atzeratu dute eta Araitzen egin zuten lehenbiziko azoka.

Ez zen eguneko hitzordu bakarra izan, orduan aurkeztu baitzuten bi urteko prozesuaren ondotik, Arano, Goizueta, Leitz, Areso, Araitz-Betelu, Larraun-Lekunberri eta Basaburua-Imotz-Atezko ekoizleek sortu duten Habelarte mendialdeko baserritarren elkarte. Nekazaritza iraunkorra helburu duen baserritarren elkarteak zozketa ere egin zuen eta seigarren zenbakia izan zen saritua.

Hurrengo azoka ibiltariak

Maiatzaren 9an Araitzen eta maiatzaren 23an Larraunen (Aldatz) egindako azoken ondotik, ekainaren 6an Leitzak hartuko du azoka ibiltarien lekukoa. Ekainaren 20an Goizuetan egingen dute azoka, uztailaren 4an Imotzen (Latas), uztailaren 25ean Basaburuan, abuztuaren 14an Areson, irailaren 18an Atetzen eta aurtengo denboraldia bo-robiltzeko azaroaren 7an Lekunberrin bilduko dira.



Habelarte elkarteak zozketa egin zuen Araitzen egindako azokan.

INBERTSIO-FUNTSAK

Zure izenaz deitzen zaitugu

Rural Kutxan, badakigu nola deitzen zaren eta zer behar duzun.

Marcela

MARCELA IRUÑEKO
LIBURU-DENDA BATEN JABEA DA

Horregatik, zure izaerara eta gauzak egiteko zure modura hobekien egokitzen den inbertsio-funtsa eskain diezazukegu.

Zure izenera.

CAJA RURAL DE NAVARRA

Inbertsio-funtsetan, ez inbertitutako kapitala, ez errentagarritasuna ez daude bermatuta. Funtsetan egindako inbertsioen balioa merkatuen gorabeheren mende dago.

Informazio hau komertziala da, eta ez da inolaz ere eskaintza. Harpidetza-gomendioa edo inbertsio-erakundearen aholkularitza. Bertsan dagoen informazioak ez du ordenatzen inbertsioari buruzko erabakia hartu aurretik kontsultatu behar diren dokumentazioa. Funtsetan liburuak eta inbertsio-erakundearen funtsakotako datuak biltzen dituen dokumentua Rural Kutxako bulegoetan, rural Kutxa.com helbidean eta CNMV-n kontsultatu daitezke. Kudeatzailea: GESC COOPERATIVO S.A.S.G.I.L.C. Gorka Izquierdo. Banco Cooperativo Español.



Angel Salaberriak apirilaren 30ean hartu zuen erretiroa, 60 urte bete zituen egunean. UTZITAKOA

«Lanean izan diren aldaketak onerako izan dira»

ANGEL SALABERRIA ESKUDERO AGUAZIL OHIA

40 urtez herriko aguzila izan denak 60 urterekin erretiroa hartu du. Ibilbide berrian, egunerokoa antolatu beharko duela dio, baina hainbeste maite duen pilotaren bueltan ere segitu nahi du

G. PIKABEA GOIZUETA

Goizuetan sortu, bizi eta lan egiteko «zortea» du Angel Salaberria Eskudero (Goizueta, 1961). 40 urtez herriko aguzila izan da eta joan den apirilaren 30ean, 60 urte bete zituen egunean, hartu zuen erretiroa. Laneo eta herriko kontuez, eta nola ez, pilotaz aritu da TTPI-TTAPAREkin.

Aitaren bidetari segituz, mendiko lana utzi eta 18-19 urterekin izendatu zuten aguzil: «ikasteko gogo eta abildade gutxi nuen, eta Goizuetako eskolakoa bukatuta, Leitzan ibili nintzen bi urtez. Udako oporretan mendiko mantentze-lanetan aritu nintzen, eta gero diputazioarentzat pinuak mar-

katzen. Baina ez zen lan finkoa». Horretan ari zela sortu zitzaion aukera: «herriko aguzila zena gaixotu zen eta udalak lanpostua hartzeko deialdia egin zuen». Bi baino ez ziren aurkeztu, «ni eta nire anaia» eta 1980an berak hartu zuen kargua. Hurrengo urtean soldaduskara joan zenean, «nire ordezkari Lazaro anaia aritu zen». Batek zein besteak ez zuten arrotza: «gure aita zena aguzila izan zen».

Aldaketak lanean

Geroztik lau hamarkada pasatu ditu «kalean garbitzen, udaleko notifikazioak banatzen, herriko argiteria aldatzen, hodiak moldatzen, iturriak kontrolatzen, uraren depositua

gainbegiratzen, udaletxean zerbait hondatzen bazen konpontzen...». Bereziki «mantentze-lanak» egitea tokatu zaio, eta urte askotan baita zaborrak biltzea ere: «Mendialdea Mankomunitatea sortu aurretik Aranon eta Goizuetan sortutako zaborra kamioi batean bildu eta udalak eta Heineken fabrikak Artikutzako bidean egin zuten zabortegira garraiatu eta makinarekin ahal den bezala tapatzen genuen».

Ez da urteotan sumatu duen aldaketa bakarra: «lehenago dena eskuz egiten genuen. Gerora, udalak makina bat erosi zuen eta handiena makinarekin egiten hasi ginen. Aldaketak hoberako izan dira».

Berak dioen bezala, «denetarik pixka bat egiten», «kontent» ibili da, eta «herrian lan egitearen alde ona» azpimarratu nahi izan du: «inora mugitu beharrik izan gabe, etxetik bertan lan egiteko aukera izatea ederra da, eroso». Baina txanponaren beste aldean, «denen gustua egitea zaila dela» azaldu du: «ahalik eta hobekien egiten saiatu naiz, baina denen gustua ez dut egin izanen». Tarte horretan, buruhausterik ere izan du Salaberriak, «gehi-nak herriko festetan»: «goizaldean kaleak garbitu eta entzierroko barrerak itxi behar izaten dira eta jendea gaupasaz dagoenean pazientzia hartu behar da. Azkenerako ohitzen da».

Gazteen aukera falta

Herriko beste kontuez ere mintzatu da aguzil ohia. Besteak beste, «40 urteotan herria asko aldatu» dela: «Obra asko egin dira, kaleak berritu dira... eta udalak beste proiektu batzuk ere baditu, ospitale zaharreko proiektua, adibidez». Eta horien harira, halako proiektuen «beharra» nabarmendu du.

Azken urteotan, biztanleria asko jaitsi da Goizuetan eta hori «jende gazteak hemen gelditzeko aukerarik ez» izatearen ondorio delakoan dago: «gazteek ez dute lanerako aukerarik eta Gipuzkoa aldera mugitu behar dute. Leitzako paperfabrikan ere gero eta aukera gutxiago dute. Etxebizitarik ere ez dago, eta kanpoan lan egin eta bertan bizi den jende asko badago ere, gero eta gutxiago dira. Askok lana duten herrira joaten dira bizitzera».

Pilota bihotzean

Lanetik kanpo pilotak hartu du Salaberriaren egunerokoa: zati handi bat. Gaztea zela afizionatuen mailan ibili zen, eta hara non, orduan irabazi zuen Goizuetak lehenbiziko herriarteko txapelketa: «1980an izan zen. Berako taldearen kontra 2-1 irabazi genuen».

Garaitsu horretan hasi zen Umore Ona Pilota Eskolan

irakasle: «aurreko arduradunek utzi eta Juan Antonio Lekuona elkarteko orduko lehendakariak hasi nahi nuen galdetu zidan». Baiezkoa esan, eta hasi bazen hasi «35-40 urte pasatu ditut». Oraindik ere segitzen du: «lehen asteen bi aldiz aritzen nintzen eta orain behin, ostegunetan».

Gainera, izen handiko pilotarien gidari izan da: «Asier eta Aimar Olaizola, Jon Apezetxea, Iñaki Lujanbio, Loiarte, Jose Julian Salaberria...» baita Iker bere semea ere. «Herri ttikia izateko pilotari profesional asko» direla dio, baina «sekre- turik ez dagoela» argitu du. «Gogoia eta afizioa izatea eta orduak sartzea, hori da kontua». Horretan ere nabaritu du aldea: «lehen pilota besterik ez zen izaten; orain, ordea, hainbat kirol praktikatzeko aukera dago eta hori da ezberdintasuna». Dena den, herrian pilotak segida izan dezakeelakoan dago: «Gaur egun Umore Ona Pilota Eskolan etorkizun handia izan dezaketen haurrak badirela uste dut».

Herriko pilota eskolan ez ezik, Doneztebeko Erreka eskolan ere badabil: «Goizuetan pilotan jokatzeko semearen edadeko- rik ez zegoela ikusita, hobetze- ko, 8-9 urterekin Doneztebera eramatea erabaki genuen». Semeak 2019an profesionale- tara salto egin zuen, baina berak hor segitu du «idazkari lanetan, paper kontuekin, txapelketako egutegiak egiten...».

Pilotaren alde guztiak probatutakoa da Salaberria, eta profesionalen artean epaile lanetan ibili zen. «Aukera sor- tu eta titulua atera nuen». Kon- tatu digunez, hasi zen garaian, «pilota federazioak deitzen zigun, baina Pilota Enpresen Liga sortu zutenean, herrialde bakoitzetik lauzpabost epaile

aukeratu gintuzten. Gero, pro- fesionalen arteko txapelketa ofizialetan 55 urtetik gorako epailerik ez izatea arautu zuten eta horrela utzi nuen. Orain enpresek beraien epaileak izendatzen dituzte».

«Esperientzia polita» izan zela dio, baina «momentu onak eta txarrak izan ziren». Ezagu- nak egin ziren Juan Martinez de Irujorekin izandako tirabi- rak: «Aimar ere goizuetarra delako edo ez dakit zergatik, beti bere aurkako erabakiak hartzen nituela esaten zidan». Gaineratu duenez, «ongi ate- ratzen zenean etxera gustura joaten nintzen, baina hanka- -sartzeak denok egiten ditugu eta eginen ditugu, eta denen ahotan egote hori ez da polita. Baina horiek ere pasatu behar dira eta pasatu dira».

Ibilbide berria

Pilota izan du afizio nagusi eta horren bueltan ibili da betitik, beste zaletasun handirik gabe: «ez naiz mendizalea, ez naiz onddo-biltzailea, ez naiz ehiz- taria, ez naiz arrantzalea... beti frontoian ibili naiz, hasieran nire aldetik eta gero semeare- kin». Erretiroa hartuta ere, ez du baztertu nahi hainbeste maite duen mundu hori. Ho- rregatik, herriko eta Donezte- beko pilota eskoletan segitze- ko asmotan da eta horrez gain, «semearekin entrenamendu- tara joaten jarraituko dut». Hortik aparte, «egunerokoa antolatu» beharko duela aitortu du, «kirol pixka bat egiten hasi beharko dut; oinez edo bizikletarekin...».

Aukera eskerrak emateko ere aprobetxatu nahi izan du Sa- laberriak; alde batetik, udalari «hainbeste urtetan nirekin ongi portatu direlako eta erretiroa hartu nuen egunean detaile polita egin zidatelako». Udalak grabatutako ordulari bat opa- ritu zion. Areago, «zerbaitez behartzen badira, laguntzeko hemen nagoela» argi utzi du. Bestetik, «herria» ere gogoan izan du eta herritarrei ere «es- kerrik asko» esan nahi izan die.

**«LEHEN PILOTA
BESTERIK EZ ZEN
ETA ORAIN KIROL
GEHIAGO»**

Bederatzi bikotek lehenengo pala txapelketa hasi dute

Umore Ona kirol elkarteak aurreneko aldiz pala txapelketa antolatu du pala eskolako ikasleekin

TTIPI-TTAPA

Umore Ona kirol elkarteak ikasturte honetan sortu du pala eskola, baina izan duen arra- kastaren seinale, denboraldia borobiltzeko eskolako ikaslee- kin txapelketa antolatu du. Bederatzi bikotek eman dute izena, aranoarrak dira batzuk eta goizuetarrak besteak, eta generoaren arabera banatu dute txapelketa.

Nesketan lau bikotek parte hartuko dute: Nagore Zabala (Arano) eta Janire Bakero (Goizuetan); Naroa Zugarramurdi (Goizuetan) eta Mirari Etxegia (Goizuetan); Marijo Etxeberria (Goizuetan) eta Aiora Apezetxea (Goizuetan); eta Maitane Sarobe (Arano) eta Uxuri Perurena (Goizuetan). Gizonezkoetan bost bikotek eman dute izena: Axier Huizi (Goizuetan) eta Xabi Zu- garramurdi (Goizuetan), Mikel

Huizi (Goizuetan) eta Ibai Zu- garramurdi (Goizuetan); Xabier Legarreta (Arano) eta Andoni Larralde (Goizuetan); Fernando Goia (Goizuetan) eta Mikel Zu- garramurdi (Goizuetan); Joseba Apezetxea (Goizuetan) eta Iker Miranda (Goizuetan).

Txapelketako lehenengo jar- dunaldiko partidak maiatzaren 12an eta 14an jokatu zituzten eta geroztik partidak asteazken eta ostiral arratsaldetan joka- tzen ari dira. Finaleko data oraindik zehaztu ez badute ere, ekain erdialdera izanen dela aurreratu dute.

Agenda kontuak

Pala partidez gain, hilabete honetan *Bideak* dokumentala ikusteko aukera izanen da Gan- baran. Maiatzaren 30ean izanen da, 18:00etan, eta Aritz Ganboa ere bertan izanen da.



UTZITAKOA

Mandogira presoen alde

Izan Bidea dinamikarekin bat eginez, euskal presoak etxera- tzeko eskaria Mandogira eraman zuten herritarrek maiatza- ren 8an. Gisa honetara, argazkian ageri den kuadrillak Sare plataformak tontorretara igotzeko egindako deialdiarekin bat egin nahi izan zuen.

Kultur Aroa maiatzeko azken asteetan

Maiatzaren 30ean XLII. aldiz eskulangileen azoka eginen da baina ez da sagardo dastaketarik izanen

JUAN MARI BARRIOLA

Herri Aretoa ireki zutenetik, kultur ekitaldiz betetako urte oparoa izaten ari da, eta orain, Kultur Aroaren txanda izanen da. Horren barne, maiatzaren 17tik 21ra *Emakume euskaltzaleak* erakusketa jarriko dute euskara batzordeak bultzatuta. Herriko hainbat emakume ageri diren erakusketa egunero 18:30etik 20:00etara irekiko dute. Horrekin lotuta aste honetan hitzordu gehiago izan dira: asteartean, hilaren 18an, *8 esketx zortzi 8 elkarrizketa* proiektzioa eta asteazkenean, *Emakume euskaltzaleak* hitzaldia Ines Castiella Imazen eskutik, 19:00etan.

Horrez gain, maiatzaren 25ean, Noaingo bataila eta horrek Nafarroan izan dituen ondorioak azalduko ditu Peio Monteano historialariak, 19:30ean, Herri Aretoan.

Hilaren 27an, 19:30ean, Arturo Elosegi herritarra bertako basoen garapenaz eta eukalip-toak landatzeak sortzen duen arriskuaz arituko da Herri Aretoan.

Maiatzaren 29an, bertsozaleentzako hitzordu bikoitza

izanen da. Batetik, Koldo Izagirreraren *Bertsoaren harria* liburua aurkeztuko dute 18:00, etan Herri Aretoan eta bestetik, Alaia Martin eta Joanes Illarregirekin bertso saioa izanen da.

Hilabetea borobiltzeko, maiatzaren 30ean, XLII. eskulangileen azoka antolatu dute, 10:00etatik 14:30era. Azkenik garagarriaren 12an, *Sagardoa bidegile* dokumentala ikusgai jarriko dute 19:00etan, baina, aurren, bigarrenaz, sagardo dastaketarik ez da izanen.

Ekitaldi gehiago

Kultur Aroko ekitaldiak ez dira egunotako hitzordu bakarrak. Ostiral honetan, hilaren 21ean, LHL erronkako lantaldeak goi mailako kirola hizpide izanen duen mahai-ingurua antolatu du Herri Aretoan, 18:30ean.

Larunbatean, *Ezinezkoaren logika* ikuskizuna emanen du Hodei magoak Herri Aretoan. Sarrerak Astiz eta Maimur liburu-dendetan eros daitezke bederatzi eurotan. Guraso elkarteak kideek zazpi eurotan izanen dute. Ekainaren 6an, mendialdeko azoka izanen da.

Lourdes Labaien administrariak erretiroa hartu du

37-38 urtez udaletxeko ofizial administraria izan den Lourdes Labaienek apirilaren 30a izan zuen azken lan eguna. Lankideek egindako oroigarriekin agurtu zuen hainbeste urtez bere lantokia izan dena.



Plazaolako trenbidea konpontzeko lanak

JUAN MARI BARRIOLA

2015eko otsaileko euriteen ondorioz, erortze larria gertatu zen Astibiko parean, eta errepidea moztua eta natur bidea hondatua gelditu zen. Errepidea garbitutakoan, natur bidea hondoratu eta gelditu zen, berriz erortzeko arriskuarekin. Geroztik, udalak hainbat gestio egin ditu Nafarroako eta estatuko gobernuekin eta, azkenean, 2018an Plazaolako Partzuergoak eta udalak Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioarekin konpontzea hitzartu zuten. Joan den astean hasi zituzten lanak eta ministerioak bere gain hartuko ditu gastuak. Lanek hilabete eta erdi iraunen dute eta tarte horretan zorua, lurra eta hesiak moldatu eta malda egonkortzeko mikropibotek sartuko dituzte.

Nafarroan euskal kulturak dituen erronkak hizpide

TTIPI-TTAPA

Hari Izpia Hartzen jardunaldien hirugarren edizioa egiteko, Leitza aukeratu dute Karrikiri Iruñeko Euskaldunon Topaguneak, Elkar Fundazioak eta Nafarroako Euskara Teknikarien Sareak. Jardunaldi horietan Nafarroan euskal kulturak dituen erronkak aztertuko dituzte hirugarrenez eta uztailaren 1ean, ostegunarekin, Herri Aretoan egin dute hitzordua. Goizeko saioa izanen da, eta besteak beste, *Zer da euskal kultura?*, *Kultura eta espazioa*, *pertsonen arteko kultura harremana eta garapena* eta *Kultura eta landa-garapena* hitzaldiek eta gogoeta gidatuak osatuko dute eguneko hitzordua. Data oraindik urruti ikusi arren, dagoeneko izen-emaitea zabalik dago (hariizpiahartzen.eus).



JM BARRIOLA

Hiru tontor presoak etxeratzearen alde

Euskal presoak etxeratze bidean, maiatzaren 8an egin zuten 650 tontor igotzeko Sare plataformak deitutako ekitaldia. Leitza Guratz, Eguzkizko Muñoa eta Urepelera igotzeko deia egin zuten eta hainbat herritar azaldu ziren. Batzuk tontor batera baino gehiagora ere igo ziren, guztira 70 bat lagun.



Haurrek ongi pasatzeko aukera ederra izaten dute udako tailerretan. GIZARTE ZERBITZUAK

Udako tailer eta haur txokoan izen-ematea laster zabalik

Ekainaren 28tik uztailaren 23ra lau txanda antolatuko dituzte eta izena maiatzaren 21etik 28ra eman beharko da

TTIPI-TTAPA

Iazko geldialdiaren ondotik, *Udan ez gelditu etxean* lelopean, aurten udako haur txokoa eta tailerrak antolatu dituzte gizarte zerbitzuen mankomunitateak, euskara zerbitzuak eta udalak elkarlanean.

Ikasketa mailaren arabera, bi taldetan bereiziko dituzte haurrak, Haur Hezkuntzakoak alde batetik, eta Lehen Hezkuntzakoak bestetik, eta ekain bukaeratik aurrera lau txanda izanen dituzte aukeran: ekainaren 28tik uztailaren 2ra, uztailaren 5etik 9ra, uztailaren 12tik 16ra eta uztailaren 19tik 23ra. Interesatuak aste bateko, biko, hiruko edo lau egoaldien artean aukeratu beharko dute eta horrekin batera hiru orduko (10:00etatik 13:00etara) edo lau orduko (09:00etatik 13:00etara) txandak izanen dituzte aukeratzeko.

Izen-ematea

Ostiral honetan irekiko dute izena emateko bidea: maiatzaren 21etik 28ra bitarte izanen dute zabalik eta interesatuak 012ra deitu beharko dute, astelehenetik ostiralera,

08:00etatik 18:00etara. Aurreko aldietan ez bezala, ez da nahitaezkoa izanen fisikoki izen-emate orria aurkeztea. Nahikoa izanen da online galdetegia betetzea (www.iparmank.eus).

Bestalde, senide bat baino gehiago apuntatzen diren familien kasuetan, deskontuak izanen dituzte matrikulan: bi senide baldin badira %12ko deskontua egingen diete eta hiru senide edo gehiago matrikulatuta, berriz, %30.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, matrikulazio epetik kanpo apuntatzen direnak ez dituzte onartuko eta matrikula ordaindua dutenei ez diete dirua itzuliko. Hala ere, ez-beharren edo gaixotasunen baten ondorioz izen-ematea bertan behera uztea tokatuz gero, ordaindutakoaren %80 itzuliko dute.

Informazio gehiago nahi duenak euskara zerbitzura (948 51 08 14 edo lag@iparmank.eus) edo gizarte zerbitzura (948 51 08 40 / 681 26 51 89 edo prebentzioa@lagazartezerbitzua.org) deitu edo idatz dezake.



Mikel Illarregi irakasleak LHL erronkarekin lotutako unitate didaktikoa prestatu du.

Herri lan-sarea zabaltzen jarraitzen du LHL erronkak

TTIPI-TTAPA

Herri lan sarea hedatzen jarraitzen du LHL erronkak. Dagoeneko Itzaire Haur Eskolako haurrek eta Erleta, Amazabal eta Iruñeko Donibane ikastetxeok ekarpenak egin dituzte, baina egunetik egunera gehiago dira mugimenduetarekin bat egiten dutenak: Mikel Illarregi –unitate didaktikoa prestatu du–, udala, Oinatz Bengoetxea, Abel Barriola, Iera Agirre, Saioa Jaurena eta Haizea Belaunzarán kirolariak, Aitor Zabaleta musikaria, Ate-kabeltz, jubilatua, Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Jua-

nito Oiartzabal, Julian Iantzi, Ene Kantak-ekoak... Bitartean, ekaineko asteburu handirako prestatzen segitzen dute Iker Gomezek eta Iraitz Uriartek. Bestalde, ostiralean, hilaren 21ean, goi mailako kirolaz hitz egiteko mahai-ingurua antolatu dute, Gorka Zubeldia mendiko lasterkariarekin eta Irati Idiakez snowboard kirolariarekin. Joseba Urkiola kirol-kazetariak gidatuko du eta 18:30ean Herri Aretoan hasiko da. Streaming bidez jarraitzeko aukera izanen da. Gonbidapenak liburu-dendetan har daitezke, borondatearen truke.



LEITZAKO IKASLE ABERTZALEAK

Ikasleek konponbidea eskatu dute

Leitzako Ikasle Abertzaleek deitua, elkarretaratzea egin zuten apirilaren 29an Amazabal institutuko ikasleek patioan. Nafarroako Gobernuak jangela zerbitzurako dirulaguntza kendu du eta ikasleentzat garraioa kolokan dago. Hala, *Ikasleek konponbidea behar dugu!* aldarrikatu zuten.

«Futbolak bizitzan behar diren errespetua eta baloreak erakutsi dizkit»

HAIZEA BELAUNZARAN ASTIBIA LEITZAKO FUTBOLARIA

Duela bost urte hasi zen futboleantzen, baina hainbeste gustatuta, Belaunzararentzat «pasio» bihurtu da futbola. Gaur egun, Oiartzungo Kirol Elkarteko 1. maila nazionaleko atezaina da

G. PIKABEA | LEITZA
Maite du botak eta eskularruak soinean futbol-zelaira ateratzea; area barrenean alde batera eta bestera ibiltzea eta gora eta behera salto egitea baloia sarera sar ez dadin. Halaxe sentitzen da gustura Haizea Belaunzaran Astibia (Leitza, 2004). Duela bost urte hasi zen futboleantzen, baina nahikoak izan dira «futbola pasio bihurtzeko» eta «egunez egun goraka egin eta ahalik eta urrutien» ailegatu nahi duela amesteko. Leitzako Aurreran eta Barañaingo Lagunak taldeetan ibili ondotik, gaur egun, Oiartzun Kirol Elkarteko 1. maila nazionaleko taldean atezaina da.

Hasiera Aurrerako areto futboleantzen
Hamaika urterekin aukeratu zuen futbola eta areto futboleantzen, etxeko taldean, Aurreran egin zituen lehenbizikoko geldiketak. Bere aita Aurrera futbol taldeko atezaina izan zen denbora luzez, eta «aitaren pausoei segituz atepEAN hasi nintzen».

Probatu eta gustatu egin zitzaion eta segida ematea erabaki zuen: «Denboraldia bukatu nuenean oso garbi neukan belarretan jokatu nahi nuela eta herrik hurbil aukerarik ez zegoenez, Barañaingo Lagunak taldera joan nintzen». Aitortu digunez, «aldaketa zaila izan zen niretzat», baina ez da damutu: «hartu

dudan erabakirik onena izan zela esan dezaket».

Hiru urte egin zituen Barañaingo taldean, eta askorako eman zioten: «Hiru urte horietan, izan nituen taldekidetza eta entrenatzaileei esker, pertsona zein futbolari bezala hazi egin nintzen». Hortik sortu zitzaion Osasunarekin jokatzeko aukera: «Bigarren urtean, Osasuna taldeak es-

«AHALIK ETA URRUTIEN AILEGATU NAHI NUKE»

pero ez nuen dei bat egin zidan eta nire bizitzako esperientziarik onenak bizitzeko aukera izan nuen». Horren adibide, «Gothia Cup Suitzako futbol txapelketara egin genuen bidaia edo Donostia Cup irabazi izana» aipatu ditu. Hango egonaldiaren ondotik, Oiartzun Kirol Taldera egin zuen salto eta «aurtengoa bigarren urtea dut Oiartzunen».

«UNEORO LAGUNTZA ETA BABESA SENTITU DITUT»

Batean zein bestean, gustura dabil Leitzako gaztea. «Taldea eta taldekide guztiek eman didate zerbait». Ez hori bakarrik: «Uneoro sentitu eta izan dudana laguntza, babesa eta momentu onak» azpimarratu ditu eta gehiago ere eman dio futbolak: «Futbolak bizitzan honetan beharrezkoak diren baloreak eta errespetua erakutsi dizkit».

Barañaindik Oiartzunera
Barañaingo hiru urteko egonaldiaren ondotik, talde gipuzkoarrarekin hasi zuen ibilbidea: «Lagunak-en egin nuen azken urtean, kirolez kanpoko arazoengatik talderik gabe gelditu ginen. Talde bila hasi nintzen eta Oiartzungo aukera ateratzeko». Onartu digunez, «klubak izugarriko arreta eman dit eta oso gustura nago». Areago, «oso esperientzia polita izaten ari da, kirol arloan hezten ari naiz eta lagun berriak egin ditut».

Oiartzungo taldeak «betitik emakumeen futbola zaindu eta landu duela» nabarmendu du Belaunzaranez eta oroitarazi duenez, «orain dela gutxi arte lehenbizikoko mailako taldea izan zen». Gaur egun, berriz, «talde polita» dutela

Labur-labur

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?
Erronka berriak gustuko dituen 16 urteko neska kirolaria.

Zein afizio dituzu?
Futbola da nire pasioa. Hala ere, orokorrean kirola gustuko dut.

Leitzako tokirik gustukoenak?
Mendiko edozein txoko.

Gustura bisitatuko zenukeen toki bat?
Australia.

Liburu bat?
El Perfume.

Hondartza ala mendia?

Biak oso gustuko ditut.

Musika talde bat?
Berri Txarrak.

Abesti bat?
Su ta gar taldearen *Erresistentziara kondenatuak* kanta.

Sare sozial bat?
Instagram.

Jaki gustukoena?
Paella.

Bestarako toki bat?
Leitzako pestak.

Futbola ez den beste kirol bat?
Mendira joatea, eskiatzea, korrika egitea, eskalatzea...

Futbol talde bat?

Ttiki-ttikitatik Realekoa naiz.

Eredutzat duzun atezain bat?
Sandra Paños, Barçako atezaina.

Non jokatu zenuke gustura?
Ttikitatik Realekoa izanik Realean jokatu nuke. Baina nire ametsetako taldeak Manchester City eta Barça dira.

Baduzu maniarik partida bat jokatu aurretik?
Partida edo entrenamenduen aurretik ezkerreko eskularrua janzten dut aurrena.

eta «giroa eta elkarren artean dugun harremana paregabeak direla» dio: «kirol arloan talde konpletoa daukagu». Hori bai, aurtengoa «denboraldi zaila» izaten ari dela ere onartu du eta hala, «orain daukagun helburu nagusia maila mantentzea da».

Emakumeak eta futbola

Emakumeen futbola ere mintzagai izan du atezain gazteak eta bere hitzetan, «urte haue-tan aurrerapauso handiak» eman dituzte: «Horren isla da futboleko geroz eta neska gehiago aritzea». Baina ez da aski lortu: «oraindik lan asko falta da».

Bestalde, «gustukoen duzuna eginez bizi ahal izatea polita» izanen litzatekeela aipatu du. «Azken finean, futbolarik beste edozein lanek bezala, konpromisoa eta denbora eskatzen du, eta zer esanik ez profesionalen mailan. Horregatik pentsatzen dut jokalarik guztiek horretatik bizi ahal izateko soldata izan beharko luketela». Hala ere argi utzi nahi izan du, «horrekin ez dudala esan nahi mutilen kasuan bezala diruaren gehiegikeria horiek ondo daudenik. Futboletik bizitzeko aukera izateaz ari naiz».

Medikua izan nahi duen futbolaria

Asteko egutegia ongi bete izaten du Leitzako atezain gazteak. Kontatu digunez, «asteen hiru egunez, arratsaldetan, entrenamenduak izaten ditut. Horietako bat atezainei bakarrik zuzendutakoa izaten da». Hortik aparte, «asteburuetan partidak» izaten ditu eta hori guztia ikasketekin uztartu behar izaten du.

Leitzako Amazabal institutu-
tuan Batxilerra ikasten dihar-
du Belaunzaranekek eta aitortu
digunez, «ez da erraza futbo-
la eta ikasketak uztartzea». «Askotan denbora falta» izaten
duela eta «ezin ailegatu ibil-
tzen» dela gaineratu du. Hori
horrela, «ordutegiak ongi an-



Belaunzaranekek 16 urte ditu eta duela bost urte hasi zen futbolekoan. MIKEL IRIGOIEN

«OIARTZUNGO TALDEAN KIROL MAILAN HEZTEN ARI NAIZ»

tolatu behar izaten ditut ikas-
ketak eta futbola aurrera ater-
a ahal izateko». Bateko eta
besteko, asti libre handirik ez
du Belaunzaranekek, baina due-
na «famihiarekin eta lagunekin

«AHALIK ETA URRUTIEK AILEGATU NAHIKO NUKE»

ahalik eta denbora gehien
pasatzeko» aprobetxatzen du.

Gainerakoan, gustuko tokian
maldarik ez dagoela dio esae-
ra zaharrak eta Belaunzaran
ere ez dago hainbeste maite

duen hori alde batera uzteko.
Alde batetik, ikasketak ez ditu
bazterrean utzi nahi eta me-
diku izan nahi duela esan digu:
«Batxilerra bukatutakoan uni-
bertsitateko joateko asmoa
dut, eta medikuntza ikastea
gustatuko litzaidake». Eta bes-
tetik, futboleko segitu nahi
du. Dioenez, «gaztea izanik
helburu zehatzik ez diot jarri
nahi neure buruari baina,
egunez egun gora egin eta
ahalik eta urrutien ailegatu
nahi nuke».

«Pozgarria da jendeak nik eginiko pastelak gustuko dituela ikustea»

JAIONE BENGOTXEA AGERREBERE ERRATZUKO ARTISAUA

Euskal pastelak egiten trebea da Jaione Bengotxea Agerreberere (Erratzu, 1975). Orain arte etxeoentzat egiten zituen eta orain azoketan saltzen hasia da

TTIPI-TTAPA

Sukaldea da Jaione Bengotxea Agerrebererentzat (Erratzu, 1975) etxeko txoko kuttuna. Ez da oraingoa horrekiko duen lotura. Gazte-gazterik, bi urtez Oronoz-Mugairiko eskolan aritu ondotik, argi ikusi zuen bere bidea eta «Burlatara jo nuen sukaldaritza eskolara, han bi urte egin nituen». Titulurik gabe, baina tituludunak bertze zekiela, lanera jo behar izan zuen gero: «Burlatan bertan haurtzain aritu zen hamar-hamaika urtez».

Hamarkada bat pasatuagatik, sukaldarako grina ez zitzaion itzali Bengotxeari eta ibilbide hori berrartuz, Dantxarinera jo zuen gero: «bi urtez gurasoen etxean bizitzen eta bertan lanean aritu nintzen». Gurasoen etxetik atera nahirik, Elizondon bizi izan zen: «berriz ere haurrekin aritu nintzen lanean». Lana non, hara jo izan du erratzuarrak beti: «ondotik Ibardinen lana harrapatu nuenez Berara joan nintzen bizitzera».

Urte batzuez han aritzeak aunitz ikasteko aukera eman zion. Bertzeak bertze, hantxe ikasi zuen gaur egun egiten dituen euskal pastelak egiten: «Arantzako Alfontso Etxeberriak, sukaldari nagusiak, erakutsi zidan egiten. Gerora osagai batzuk kendu nizkion, nire ukitua emateko». Herrira bueltatzeko nahia lagun, Erratzurat jo zuelarik, berarekin ongi gordeak eraman zituen hango ikaspenak: «aunitz ikasi nuen



Etxeko arrautzekin eta maitasunez egiten ditu euskal pastelak Bengotxeak.

berarekin, nire maisua bera izan da».

Etxetik lanera eta lanetik azoketara

Gurasoen etxean, baserrian, du bere txokoa egun: «beheko aldean etxebizitza egin nuen eta Izpegiko benta batean hasi nintzen lanean. 09:00etatik 15:00 edo 15:30 arte egiten dut lan, astean bortz egunez». Hantxe hasi zen euskal pastelak egiten: «postretarako eta ostatuan kafearekin jateko egiten nituen eta arras onak zirela erratan hasi zitzaizkidan. Iparraldeko bezeroak izaten ditugu eta han ohikoa den postrea izanik, pozgarria izan zen haiek hori erratea...».

Anaiaren, koinatuaren eta aitaren pausoei segika, herrian eta inguruan egiten diren artisau azoketan saltzen hasi zen: «haiek sagar zukua eta sagardoa egin eta saltzen dute, Erratzun bereziki. Eurek animatuta, eta lankide batek ere behin eta berriz erran ondotik, euskal pastelak egin eta postuan paratzen hasi nintzen».

Joan den urteko udan eman zuen pausoa: «batzuk egiten nituen eta denak saltzen ziren...». Berak egindakoak izanagatik, normalean, azoketan ez da bera egoten: «sukaldaria izanik asteburuetan lana izaten dut. Beraz, nik ezin dudanean ahizpak, ilobak edo familiakoek laguntzen didate. Haiek ani-

matuta eta lagunduta izan ez balitz ez nituzke eginen, arras eskertuta nago».

Kontent dago bere postreak izan duen harrerarekin. Gainera, jendeak gustukoak izateaz gain, saltzen ez dituen guti horiendako aterabidea izaten du eta ez du deus hondatzen: «soberan izanez gero lanera eramaten ditut».

Maitasuna, punta-puntako osagaia

Lanean eta lanetik kanpo, koinatzen denbora aunitz pasatzen du Bengotxeak, baina euskal pastelak egitea berarendako ez da lana: «etxeko labean binaka egiten ditut eta, pentsa azoka baterako 22 bat pastel egiteko zenbat denbora behar izaten dudan. Hala ere ez zait inporta, maite dut...». Edozein modutan, martxa baduela ikusirik, bertze labe bat erostea erabaki du: «industrialia erosi dut eta bederatzi sartzen zaizkit. Pentsa zernolako aldaketa!».

Sukaldeko saltsa ez ezik, natura eta animaliak ere badira Bengotxearen egunerokoaren zati: «ahateak, oiloak, usoak, usapalak... zaintzen ditut». Eta aspertzeko denborarik ez duen arren, «arras kontent» dago bere bizimoduarekin. Gehiago ere bada. Batean egindakoak bertzerako baliatzeak elkar elikatzeak aukera ematen dio: «pastelak egiteko etxeko arrautzak erabiltzen ditut». Etxeko arrautzek eta berak jarritako «maitasunak» egiten dute berezi erratzuarraren euskal pastela eta, akaso, horixe izan da izan duten arrakastaren arrazoia. Hasieran harriduraz hartu zituen jendearen lausunguek ez zuelako halako erantzunik espero.

Hara nola diren kontuak. Batean eta bertzean ibili ondotik, habira bueltatzean, kanpoan ikasitakoa baliatuz, etxe atarian inon eta inoiz ez bezala sentitu eta bizitzeko modua harrapatu du Bengotxeak. Orain, lantegi bihurtzea du amets, «baina momentuz zaletasuna bertzerik ez da...».

«Hobekuntzak bilatzen ari gara etengabe eta horrek elkartu gaitu»

BEGO VIELA ETA RAFA ALZATE BIDAIDE FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

20 urte baino gehiagoko esperientzia duten fisioterapeuta hauek zentro berria ireki dute elkarrekin Elizondoko Maurizio Berekoetxea karrikan



Rafa Alzate eta Bego Viela haien kontsulta berrian. UTZITAKOIA

TTIPI-TTAPA

Bakoitza bere aldetik lanean ibili ondotik, haien esperientzia elkartzea erabaki dute Bego Vielak eta Rafa Alzatek proiektu berri honetarako; Elizondoko Bidaide fisioterapia eta osteopatia kontsulta berria ireki dute maiatzean. Eskaintza zabala eta mota guztietarako pazienteendako zerbitzuak daukate.

Nola hasi zineten lanean fisioterapiaren munduan?

Bakoitzak gure ibilbidea daukagu; Rafak Bartzelonan egin zituen ikasketak, eta hainbat ikastaro egin ditu. Ipar Euskal Herrian egon zen lanean urte dezentez, Donibane Lohizunen eta Hendaian. Azken 15 ur-

teotan, Iruñean aritu da lanean bere kontsultan. Begok, berriz, Iruñean eman zituen lehen pausuak, Seppo Rotinen mediku errehabilitadorearen lan-taldean. Gero Osasunbidetako eta Osakidetza errehabilitazio zerbitzuetan ibili zen eta azken borts urteotan Elizondoko kontsulta propioan aritu da lanean.



bidaide
FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA

Elizondo,
Maurizio Berekoetxea 18
636 583 034

Zergatik erabaki duzue elkartzea?

Etengabeko hobekuntzak bilatzen eta joera eta teknika berriak ikasten gabilta beti biok, eta interes horrek elkartu gaitu. Gure esperientziak eta ikasketak batuz, pazienteei zerbitzurik hoberena emateko asmoa dugu. Gainera, egoitza berriarekin, taldeko ekintzak ere egin ditzakegu.

Zein da zuen helburua?

Pazienteen bizi-kalitatea hobetzea. Fisioterapia eta osteopatiaren bitartez, bezeroen mina arindu eta galdutako mugikortasuna eta funtzionalitatea berreskuratu eta mantendu dezakegu, hau da; saihestu, tratatu, berreskuratu eta berregokitu.

Nolako zerbitzuak eskaintzen dituzue?

Bidaiden bizi etapa bakoitzeko behar ezberdinei erantzuten saiatzen gara; adindu, heldu, gazte edo haur, jubilatutako, langile, kirolari, ikasle, haurdun... Horrela, lesio guztiak tratatzen ditugu; muskuluen kontrakturak, kalanbreak, hausturak, tortikolia, zuntz haustura, tendinitisa, bihurritzeak, luxazioak, kirol lesioak, lepoko mina, ziatika, artrosia, diskopatia, ebakuntza ondokoak, hezur hausturak, meniskoak... Beraz, eskaintza zabala daukagu eta edozein arazo konpontzeko prest gaude.

Zein berritasun ekarri ditzake zuen zentroak Elizondora?

Alde batetik, Ainhoa Viela emaginarekin elkarlanean, taldeka, erditze aitzinetik prestaketak lantzeko saioak egingen ditugu, guraso izanen direnei zuzendutakoak. Haurdunaldian zehar, erditze aurreko prestakuntza fisikoaren saioak; Gimnasia Abdominal Hipopresiboaren hastapen eta mantentze ikastaroak. Gainera, uroginekologian ere espezializatuak gara, sor daitezkeen edozein arazo tratatzeko: haurdunaldian, erditze ondokoak, pixa ihesa, pixa egiteko urgertzia, prolapsioak, diastasia, abdomeneko ebakuntza ondokoak, uzki esfinterren ihesa, gasak, idorreria, episiotomiak, urradurak, zesarea, sexu harreman mingarriak... Bertzalde, ume sortuberriak eta haurrak ere artatzen ditugu kolikoa, bronkiolitisa, otitis, tortikolia, brakiozefalia eta bertze hainbertze arazo tratatzeko.

Teknologia berrien erabilerak zuen lanbidean lagun dezake?

Bai, Bidaiden teknologia beharrezkoa dela uste dugu eta gure lanean laguntzen diguten hainbat aparatuk ditugu; INDI-BA, radiofrequentzia eta azken aldian, Rafa ekografoak ematen dituen aukerekin aunitz lan egiten ari da; neuromodulazioa, elektrolisia eta elektropuntzioa, adibidez. Zuen osasuna zaintzea da gure lana!



Apirilaren 30ean bisitatu zituen Aritzakun eta Urritzateko bideak.

Ziriza kontseilariak Aritzakun ingurua bisitatu du

Baztango Udalak gonbidaturik, apirilaren 30ean Bernardo Ziriza Lurralde Kohesiorako kontseilariak Aritzakungo eta Urritzateko bideak bisitatu zituen, bere lantaldeko kabineteko burua den Leire Otsoarekin, Pedro Lopez Herri-Lan eta Azpiegituren zuzendari nagusia-ekin eta Juan Serrano Kontserbazio Zerbitzuko buruarekin. Joseba Otondo Baztango alkatea, Xabi Maia alkateordea eta Florentino Goñi Herri-Lanetako zinegotzia izan zituzten bidelagun. Imanol Etxeberría Aritzakungo zinpeko alkatea ere bertan izan zen, baita Aritzakungo auzotarrak ere.

Bisitaldiaren helburua Aritzakungo eta Urritzateko bideak ezagutzea izan zen. Izan ere, gaur egun 22 pertsona bizi dira inguru horretan eta bide nagusia harri-zaborrezkoa dute. Hori dela eta, esneketariak ez dira

auzora joaten edo osasun-lan-gileak suhiltzaileen mendiko autoetan ibili behar izaten dute.

Ingurua erakustez gain, udalak bide nagusiak ongi uzteko oinarriko memoria eman zien eskura. Horren arabera, Itzulegitik Bidegorrietara 9,8 kilometroko bide zatia dago hormigoiztatzeko, 1.099.164 euroko aurrekontua izan lukeena. Aritzakundik mugako lepoan barna Ointxuluetara ateratzen den 7,7 kilometroko bide zatirako, berriz, 867.949 euroko aurrekontua beharko litzateke. Horrez gain, Orabidetik Etxalar eta Zugarramurdirat doan bideaz ere mintzatu ziren. Arras egoera txarrean dago zati hori eta 8,8 kilometroak ongi uzteko 1.052.009 euro beharko litzateke.

Kontseilariak eta bere lantaldeak gaia aztertzeke konpromisoa hartu zuten.



UTZITAKOAK

Aroztegiko proiektua gelditzeko eskatuz

Amaiurrek, Elizondok, Anizek, Lekarozek, Arraiozek, Zigak, Berroetak, Arizkunek, Oronozek, Erratzuk... eta bailaratik kanpoko zenbait herrik, Legasak, Lizarrak zein Tolosak erraterako, Aroztegiko proiektua gelditzeko deialdiarekin bat egitera gonbidatu zituzten herritarrak.

BRIKO BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktua
Ferreteria · Sukaldeko tresnak
Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda · Oinetakoak
Laneko arropa · Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak · Poltsak eta mailetak
Etab.

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBATE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



Erratzun izan ziren Gobernuako kontseilari, zuzendari eta teknikariak.

Ordokitik Erratzura hiru kilometro egokitze 200.000 euro inbertituko dira

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Herri-Lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren bidez, NA-2600 errepidea (Erratzu – Izpegi), N-121-B errepideko bidegurutzetik, Ordoki auzotik Erratzu herriaren arteko zatia hobetzeko eta egokitze lanak egiteko asmoa adierazi zuen maiatz hasieran, eta horretarako 200.000 euro inbertituko dituztela ere jakinarazi zuten.

Bidea zabaldu eta segurtasuna hobetu nahi dute

Bernardo Ziriza Lurralde Kohesiorako kontseilariak eta Joseba Otondo Baztango alkateak 2,8 kilometroko luzera eta borts metroko bana bertzeko zabalera duen eta Bozate zeharkatzen duen za-

tia bisitatu zuten maiatzaren 7an, lehenbiziko ortziralean. Bisitan Juan Serrano Kontserbazio Zerbitzuko zuzendaria, Xabi Maia Baztango alkateordea, Florentino Goñi Baztango Herri-Lanetako zinegotzia, Imanol Etxeberria Arizkongo alkatea eta Arizkongo bizilagunak izan zituzten lagun.

Errepide zati hori estua denez eta jasaten duen trafikoa aunitz handitu denez, inguru horretara turista aunitz joaten delako, zirkulatzeko zailtasunak sortzen dira, batez ere errepidean ibiltzen diren ibilgailuak gurutzatzean.

Hori dela eta, tarte hori egokitu nahi dute, 1,25 metro inguruko hormigoizko areka zapalgarri bat eginez, bidea zabalagoa izateko eta erabiltzaileen bide- segurtasuna hobetzeko.

Amak taldearen kontzertua urrian Elizondon

Alaitz Telletxeak, Maixa Lizarribarrek, Amaia Orejak eta Kristina Solanok osatutako Amak taldeak orain arte baieztatuak dituzten emandien berri eman dute eta, bertze hainbat herriren artean, urriaren 31n Elizondo bisitatuako dutela iragarri dute.

'Emozioak koloretan' margo erakusketa ikusgai Arizkunenean

Emozioak koloretan: Baztan, beste begirada bat margo erakusketa ikusgai dago Arizkunenean maiatzaren 30a arte. Mila Esteban, Blanca Jimenez, Isabel Olondriz, Mari Puy Luquin eta Ananda G. ren margolanak ikusteko modua izanen da egunero.



Presoen aldeko aldarria kaskoetaraino

Izan Bidea dinamikaren barne, Alba menditik, Aizkolegitik, Saioatik, Okorotik, Legatetik, Unbototik, Auzatik, Buztanzelaitik... Baztango hamaika txokotatik, euskal preso eta iheslarien aldeko mezua zabaltu zituzten baztandarrek maiatzaren 8an. Argazkietan parte hartu zutenetako batzuk baino ez dira ageri.



Jon Karrikaburu elbetearra eta Jokin Aperribay Realeko presidentea. UTZITAKOA

Hiru urtez luzatu du Karrikaburuk Realarekin zuen kontratua

TTIPI-TTAPA

Baztango Kirol Elkartean hasi zen Karrikaburu futboleak, baina gazte fitxatu zuen talde gipuzkoarrak, infantilen ari zenean. Geroztik, ibilbide paregabea izan du eta aurtengo espainiarreko golegile nagusia izan da, 25 golekin 23 partidutan.

Hori dela eta, aurtengo bere kontratua luzatzea erabaki du klubak, 2026ko ekainaren 30ra arte. Hirugarren mailan jokatu ditu Karrikaburuk partida gehienak denboraldi honetan, baina Xabi Alonsok gidatutako bigarren B mailako Sanse taldean ere aritu da elbetearra.



Lanak Paisaje Transversalek egiten ditu eta lana egiteko 20 hilabete izanen ditu.

Herriguneak biziberritzeko plana abiatu du udalak

Etxebizitza eskaintza handitzeko eraikita dagoena berritu nahi du udalak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Estatistika Erakundearen arabera, Baztanen 4.472 etxebizitza zeuden 2018an eta horietarik 1.603 bizitegi, etxebizitza guztien %35,8 ez nagusiak ziren, hau da, hutsik zeuden edo bigarren bizitegiak ziren. Horren aitzinean, «Baztango herriguneak hutsik gelditzen ari direla eta horri nolabaiteko erantzuna eman behar zaiola» uste du Udalak.

Nabarmendu dutenez, datuek «ez dute gertatzen ari denaren konplexutasun guztia agertzen». Hutsik dauden etxebizitzak «ez daude baldintza beretan, tipo-

logia desberdina dute edo ingurune ez hiritarrean daude».

Herriguneen hustuketa «astiro-astiro» gertatu dela eta herri inguruko lurretan inoiz baino gehiago eraiki dela diote: «nekazaritzako onakizaten ahal diren lurra artifizializatu». Udalaren ustez, «horren muturreko adibidea Aroztegia izanen genuke, kasu honetan pelotazo urbanistiko argia».

Udalak Baztango herrigune historikoak eta horko etxetzarrak husten ari direla ikusita, herriguneak biziarazi eta etxe horien birgaitzea bultzatzeko barneraberritzeko plan berezia egi-

nen du. Horrekin, bizitegien parkean eragin nahi du eta etxebizitza eskaintza eraikita dagoena berrituz handitu. Lan hori Paisaje Transversalek egiten du, hirigintza aholkularitza honek eskuratu baitu lizitazio publiko bidez egin den esleipena eta lana egiteko 20 hilabete izanen ditu.

Plan bereziak herrigune historikoen mugaketa eta identifikazioa egin eta etxe hutsen erabilera bultzatuko du zaharberritzeen bidez. Bide batez, eremu publikoak diseinatzean, klima aldaketaren ondorioak gutxitzea eta hirigintza inklusiboko irizpideak kontuan hartzea dute helburu. Baztango 15 herriak eta inguruko auzo guztiak barne hartuko ditu; 29 herrigune guztira. Alta, «herriguneen eta etxetzarren berritzea, agerikoa denez, ez da plan honekin konponduko. Tresna lagungarria bertzerik ez da, oinarriak finkatuko dituen». Honen ondotik tresna urbanistiko eta juridiko gehiagoko sortu beharko dira.

Aldi berean, «berritzeko sustapengintza kolaboratibo eta kooperatiboa bultzatzea» beharrezkoa delakoan daude: «bizigarritasun baldintzak arautzen dituen foru dekretua egokitzea etab...». Arlo horietan ere pausoak eman ditu udalak, urriaren 1erako Euskal Herriko Unibertsitatearekin eraikitako ondareari buruzko udako ikastaroa antolatuta du eta parlamentuan hainbat ekimen bideratu zituzten aitzineko legealdian.



Abesbata Ttikikoak kantari. JAIME VIGURIA

Elizondoko Abesbatza Ttiki emanaldiekin hasia da

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Abesbatza Ttikik emanaldi ederra eskaini zuen maiatzaren 9an Elizondoko elizan, obra eta hainbat estilo landuz: Josu Elberdin, Izaro, Anje Duhalde, Queen... gaztetxoek ikasturtean egindako lan bikainaz gozatu ahal izan zuten entzuleek. Izan ere, edukiera errespetatuz, ikusle ugari hurbildu zen. Kontzertu honetan musikari hauen laguntza izan zuten: Amaia Cordoba pianoan, Guru Aizpuru akordeoian eta Miren Altxu perkusioan

Abesbatza ttikiak laister bertze emanaldiak egiten ditu, Urdazubin eta Iruritan, Irurita dantzariekin batera eta horietarako prestatzen ari da.

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
 ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
 PANTEONAK
 KANPOSANTUAK
 HARRI LANAK
 ESKULTURAK

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN
 Jarrai gaitzazu!
facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
 T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Zahar etxearen berritze proiektua idazteko lizitazioa

Hasierako aurrekontua 162.809,92 eurokoa da eta proiektuaren idazketaz gain, lanen zuzendaritza emanen da

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 5ean egin zuten tokiko gobernu batzordean Elizondoko zahar-etxearen berritze proiektua idazteko baldintzen agiria onartu zuen Baztango Udalak. Hasierako aurrekontua 162.809,92 eurokoa da (BEZ kanpo) eta lizitazio honekin proiektuaren idazketaz gain, lanen zuzendaritza ere emanen da. Eskaintzak ereiaroaren 6ra artio aurkeztu ahal dira.

Elizondoko zahar etxea osorik berritzeko proiektua idatzi beharko du esleipena lortzen duenak eta, horretarako, 2020ko abenduan Nafarroako Gobernuak onartutako dekretuaren irizpideak kontuan hartu beharko ditu.

Horrela, berritutako zahar etxea elkarbizitza unitateetan antolatu beharko dute eta logela gehienak bakarkakoak izanen dira, egokitutako komunekin eta ahal dela kanpoko tokiarekin. Antolaketa berriak pertsonetan ardazturiko arreta eredurako trantsizioa erraztuko du. Pertsonetan ardazturiko arreta ereduak



Elizondoko zahar etxea berrituko dute.

LOGELA GEHIENAK BAKARKAKOAK IZANEN DIRA ZAHAR-ETXEAN

arkitektura jakin bat behar du ingurune irisgarri, eroso, seguru eta adierazgarriekin.

Nafarroako Gobernuaren kontratazio atarian baldintzen agiria eskuragarri dago.

Gaur egun zahar etxeak 155 erabiltzailerendako tokia du, %90 binakako logeletan. Azkeneko erreforma handia orain berrogei urte egin zuten.



Aitzineko edizio bateko bertso udalekuetako irudi bat. UTZITAKOA

Amaiurko aterpetxean ere bertso udalekuak eskainiko dituzte

TTIPI-TTAPA

2021eko udak izanen ditu Bertso Udalekuak. Maiatzaren 12an ireki dute izena emateko epea. Maiatzaren 21era arte lehentasuna izanen dute bertso eskolako kide diren edota gurasoetako bat Bertsozale Elkarteko bazkide duten haurrek eta gazteek. Ondotik, baldintza horiek betetzen ez dituzten gainerako interesdunek bigarren epe bat izanen dute izena emateko: maiatzaren 25etik 31ra. COVID-19arekin hartu behar diren osasun neurriak kontuan hartuta, prebentzio eta garbiketakako segurtasun protokoloa diseinatu dute eta, une oro aintzat hartuko dituzte indarrean dauden neurri eta legeak. Egoera aintzat hartuta, talde txikiagoak antolatuko dituzte eta egonaldi laburragoak: horregatik, zortzi txanda izanen dira aurtien eskainiko direnak.

Sopelan (Bizkaia), Orion (Gipuzkoa) eta Nafarroako Uitzin eta Amaiurren izanen dira txanda guztiak uztailaren Sopelan uztailaren 2tik 6ra izanen da, 2008 eta 2009 urteetan jaiotakoentzat; Orion uztailaren 3tik 7ra 2010 eta 2012 urteen artean jaiotakoentzat, uztailaren 8tik 12ra 2005 eta 2006 urteen artean jaiotakoentzat eta uztailaren 25etik 29ra 2010 eta 2012 urte artean jaiotakoentzat; Uitzin bi txanda izanen dituzte aukeran 2007 eta 2008 urteetan jaiotakoek uztailaren 10etik 14ra eta uztailaren 15etik 19ra eta Amaiurko aterpetxean ere bi txanda izanen dituzte 17-18 urtekoek (2003an eta 2004an jaiotakoek), uztailaren 20tik 24ra lehenbizikoa eta uztailaren 25etik 29ra bigarrena. Udaleku guztien prezioa 245 eurokoa da.

Arotxa

Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 · T. 948 58 14 18
31730 IRURITA
arotxa.taller@gmail.com
www.arotxataller.com

GARAJEKO ATEAK

TOLDOAK - ESTOREAK

banatzaile ofiziala

Etxea-merkataritza-ostalaritza

Eguzkiaz
babestu
toldo batekin

«Kontsumitzaileek produktu ekologiko gehiago nahi dituzte»

LOREA LIZARRETA INTSAUSTI ERRATZUKO GAZTEA

Baztango Udalak ikasketa bukaerako lanak egiteko ematen duen dirulaguntzari esker, Jauregia Esnekiak enpresarentzat esneki baten proposamen osatua egiten du

TTIPI-TTAPA


Jauregia Esnekiak enpresarentzat produktu bat sortu eta haren bideragarritasuna aztertzeko lanean ari da Lorea Lizarreta Intsausti (Erratzu, 1999). Elaborazio prozesu betean dago orain, baina oraingoz «gasna fresko krematsu eta jogurt kontzentratu» baten artean kokatuko luke lortutako esnekia. Ondotik, horren bideragarritasun tekniko, ekologiko, soziologiko, komertziala eta ekonomiko aztertu beharko du. Proposamena da Lizarretak aurkeztutako duena, «gerora merkaturatzea erabakiko balitz aitzinetik egin beharreko lana prest izateko».

Elikagaien Prozesu eta Produktuen Berrikuntza gradua ikasten ari zara. Zergatik aukeratu zenuen gradu hori?

Alor aunitz lantzen dituen gradua delako, zientziaz eman didan ikuspegiaz gain, berrikuntza, enpresen kudeaketa eta ekintzailatza lantzen ditu. Hori dena arlo zehatz bati aplikatuz, kasu honetan elikagaien munduari. Beraz, lan mundura begira, aukera zabalak eskainiko zidala iruditu zitzaidan.

Zer da graduaren lantzen duzuen?

Elikagai bat sortu eta merkaturatzeko beharrezkoak diren ezagutza guztiak. Bertzeak bertze, nekazaritza eta abeltzaintzaren oinarriak, elikagaien konposizioa eta ezaugarri nutrizionalak, elaborazio



Produktuaren kremositatea lortzeko frogak egiten ari da Lizarreta.

prozesuak, ontziratzea eta merkaturatzea. Azken urtean hautazko ikasgaien bidez elikagai talde zehatzetan sakondu dut: ardogintza, elikagai hartzituak, onddoak, intsektuak, barazkiak...

Gradu bukaerako lana lantzen ari zara orain... Jauregia esnekiak enpresarako esneki bat diseinatu duzu. Nolatan?

Ez zen nire hautua izan, bideak eramane nau horretara... Graduaren zehar produktu berriak

sortzeko prestatu gaituzte, eta praktikak Jauregian egitera nindoanez, unibertsitatetik proposamen hau luzatu zidaten. Niri egokia iruditu zitzaidan, aitzinerat!

Orain arte, teoriaren harago, elikagaiak aztertzen eta sortzen arituzarete graduaren?

Ikasgai bakoitzaren akaberako lana beti izan da ikasitakoa aplikatuz elikagai produktu bat sortzea, maila teorikoan zein praktikoan. Hala nola,

sagar marmelada, ogiak, ardoa, garagardoa, hestebeteak, hormatutako barazkiak, kontserbak... Baina, bereziki, hirugarren urtean produktuen sortuntzan sakondu genuen, aitzinetik ikasgai guztietakoa mahai gainean jarri. Nire kasuan haragiarekin eta aitzinetik prestatuekin lanean aritu nintzen. Gradu Amaierako Lanean antzeko zerbait egiten ari naiz, baina esnekiekin.

Merkatuaren azterketa egin behar izan duzu lehenbizi...

Merkatuko datuak aztertu nituen, baita esnekien sektorearen egoera eta ekoizpen ekologikoarena ere. Azken hau kontuan izanik, produktu ekologikoen artean gabezia dagoela nabaria da, eta kontsumitzaileek produktu gehiago nahi dituzte. Ondotik, Jauregia Esnekien kontsumitzaileak diren 80 bezerori luzatu nien inkestan, kontsumitzen dituzten produktuak eta gustatuko litzaizkiekenei buruz galdetu nien. Bertatik emaitza adierazgarrikerik atera ez zen arren, informazio interesgarria bildu genuen, etorkizunerako ere erabilgarria izan daitekeena.

Zer produktu da sortzea aurreikusi duzuna?

Produktuaren definizioa aldatuz joan da hasieratik hona. Bidean agertu diren arazoak gaindituz, elaborazio prozesua moldatzen ari gara eta horrek mugatuko ditu amaierako produktuaren ezaugarriak. Une honetan, behi esnearen hartidura azidoarekin lanean ari gara (*Lactococcus Lactis* eta *Lactococcus Cremoris* bakteriekin). Erabilitako lehengaien arabera, grasa eta proteina kantitatea, era bateko edo bertzeko ezaugarriak dituen esnekiak sortuko dugu. Oraingoan, gasna fresko krematsu eta jogurt kontzentratu baten artean koka genezake lortzen ari garen esneki. Nire lana produktu berri baten proposamen osatua egitean datza, gerora merkaturatzea erabakiko balitz, aitzinetik egin beharreko lana prest izan eta bidea errazteko.

Alderdi aunitz aztertu behar dira... Zein faktorek baldintzatzen dute bideragarritasun hori?

Bideragarritasun teknikoak, ekologikoak, soziologikoak, komertzialak eta ekonomikoak aztertzea beharrezkoa da produktu berriak aurkezterakoan. Izan ere, urtean merkaturatzen diren hamar elikagai produktuetatik batek bakarrik irauten du urtebete baino gehiago merkatuan.

Zure produktua bideragarria iruditzen zaizu?

Zailtasun gehienak bideragarritasun komertzialean ikusten ditut. Izan ere, epe luzera kontsumitzaileen jarrera zein izanen den asmatzea zaila da. Eguneroko ohitura eta errutinetara arras lotuak bizi gara eta zaila da horiek aldatzea. Produktu berria ohikoa ez den esnekia denez, ez dakit jendeak bere asteko erosketan sartuko lukeen ala ez. Horretarako, beharrezkoa da kontsumitzaileek ekologikoa eta bertako ekoizpena lehenestea.

Prozesuaren zein fasetan zaude momentu honetan?

Lehengaien grasa eta proteina kantitatearekin jokatzeko ari naiz azken produktuaren ezaugarriak lortzeko. Bi hauek, nutrizionalki duten eraginaz gain, produktuaren ehunduran eta biskositatean eragiten dute, baita luzera gerta litekeen fase bereizketan (gatzura galtzean) ere. Aldi berean, kremositate hori lortzeko prozesuaren hainbat aldaerarekin frogak egiten ari naiz. Segidan, lortutako emaitzak estatistikoki aztertu eta aldaera egokienarekin aitzinerat segituko dut, fitxa teknikoak eta merkaturatzea zehaztuz.

Zer ekarpen egin dizu lan honek? Aunitz. Nire kabuz lana egitea, ikerketa mundua hurbiletik ezagutzea, enpresa ttikien funtzionamendua, produktuak sortzeak dakarren apustua, lana ongi egitearen garrantzia... ikusten ez den lan aunitz dago gibeletik.

Jendeak kontsumitzen dituen elikagaiei behar berteko garran-



Jauregia Esnekiak enpresan egin ditu praktikak Lorea Lizarretak, bertan kokatuko du Gradu Amaierako Lana ere. JM ONDIKOL

tzia ematen diela iruditzen al zaizu?

Gero eta gehiago. Zifrei erreparatuz gero, urtero %16 hazten da elikagai ekologikoen merkatua. Dena den, jende gaztearen artean, muturreko bereizketa ematen dela uste dut. Alde batetik, gero eta konpromiso handiagoa dago bertakoarekiko, osasunarekiko eta ekologikoarekiko. Baina janari azkarra eta prezioak jende aunitz mugiarazten du, gaur egungo bizimodu ohitura eta erosotasunak bultzaturik.

Zergatik da garrantzitsua kontsumitzen dugun hori zer den jakitea?

'Jaten duguna garelako'. Eragin zuzena du osasunean, ekonomian, eskualdearen garapenean, paisaia... Elikagai aukeraketa bat edo bertzea egiteak, klima aldaketan, deforestazioetan,

lan esplotazioan, giza baliabideetan... eragina du. Beraz, garrantzitsua da garaian garaiakoa eta bertakoa kontsumitzea. **Gradu bukaerako lan hau egiteko Baztango Udalaren dirulaguntza izanen duzu...**

Garrantzitsua iruditzen zait gazteok etorkizunean bailararekiko atxikimendua handitze aldera. Hirien eta multinazionalen garapenera bideratzen gaitu sistemak: praktikak enpresa handietan, ikasketak hirikolanpostuetara bideratuak, ikerketa eta garapena dentsitate handiko guneetan oinarrituak. Landaeremuhitarren hornitzaile eta jolasleku soila izan ez dadin, holako alternatibak garrantzitsuak dira.

Deialdiaren aitzinetik Baztanen kokaturiko lana garatzea aurreikusia zenuen?

Betidanik izan dut buruan landa eremuaren sustapena. Lehen aipatu bezala, unibertsitatearen eskaintza segitu izan banu enpresa handi batean egingen nituzkeen praktikak eta ondorioz proiektua. Egia da, Baztango Udalaren deialdia motibazio bat gehiago dela zure lana ongi egite aldera. Dena den, deialdirik izan ezean ere, lan bera egingen nukeen.

Bertzerik gehitu nahi duzu?

Ikasleak animatu nahiko nituzke ikasketa amaierako lanak Baztanen garapenean oinarritzea. Maiz, erraza ez den arren, eta ikasketa zentroaren eskaintzatik at zure kabuz bilatu behar duzun arren, egiten dena baliagarria dela sentitzen duzu. Baztanek eta herri ttikiek behar ditu ikerketak haren garapenerako. Azkenik, eskerak eman nahiko nizkieke bai lan honetan sinesten dutenei, bereziki Jauregia Esnekiak enpresari, aukera hau eman izanagatik. Berezia izan da, egunez egun gasnategiko emakume taldean lanean aritzea.

«MERKATURATZEN DIREN HAMAR JAKITATIK BATEK IRAUTEN DU»

«MULTINAZIONALEN GARAPENERA BIDERATZEN GAITU SISTEMAK»

«Erratzuko historia kontatzeko modu bikaina da antzerkia»

NEREA ITURRIRIA MEOKI 'ERRATZUKO EZ SORGINEK' ANTZEZLANAREN IDAZLEA

Felix Sanz Zabalzak idatzitako 'Las brujas de Erratzu' liburua euskaratu du Iturririak, eta herriko jendearen laguntzaz antzezlan batean bihurtu du

R. OSKARIZ | ERRATZU

Liburu bat euskaratu duzun lehenbiziko aldia da?

Bai, kostata baina azkenean egina dago. 2019ko azaroan hasi nintzen baina 2020ko otsailean utzi nuen, gogo behar da eta bertze gauzetan nenbilen... Irailean berriz ekin nion eta abendurako akitu nuen lehendabiziko zirriborroa. Baztango egungo euskara itzuli dut, jakinki garai hartan solastatzen zena ez dela gaur egun solastatzen dugun euskara. Lehendabiziko zuzenketa Bihotz Unanuak egin zidan, ondotik, Jon Jaurregik hiketan jartzen lagundu zidan, toka eta noka. Hainbertze jenderi eman nien leitu zezaten eta azkenik, bederratzigarren zirriborroan gelditu naiz, aldiro zerbait aldatzen nuelako... Egia erran arras gustura ibili nintzen itzulpena egiten.

Istorioren sinopsi labur bat?

1611n Erratzun pasatutako kasu bat kontatzen du. On Miguel Agirre apezak herriar batzuk sorgintzat hartu zituen, eta sorginak zirela onartu arte ez zizkien sakramenturik eman. Zenbaitzuk herriko etxe batzuetan preso hartu zituen. Baina 'sorgin' hauek salataria salatu zuten eta azkenean apeza izan zen Iruñean epaitu zutena.

Eta non du jatorria?

Felix Sanz Zabalza da liburua idazlea. 2013an, *Las brujas de Burgui* izeneko liburua



Nerea Iturriria berak idatzitako gidoiarekin. UTZITAKOA

argitaratu zuen. Iruñeko elizbarrutiko artxibategian pasatutako orduetan, Erratzuko apaizaren kontrako epaiketaren dokumentazioarekin egin zuen topo. Denbora anitz kosta zitzaion datu guztiak antolatzea, baina lortu zuen. Zoritzarrez, *Las brujas de Erratzu* izan zen bere azken liburua, 2016ko maiatzean zendu baitzen, 78 urte zituela. Nik *Erratzuko ez sorginek* deitu diot, jende hura ez zelako sorgina.

Zergatik bihurtu duzu antzezlan?

Ataunen *Jentilen etorrera* egin zela leitu nuen eta hemen go zerbait egitea pentsatu nuenean *Las brujas de Erratzu* liburua oroitu nintzen. Libu-

rua eszenaka dago eta horrek gauzak erraztu dizkit nahiz eta gero aldaketa anitz egin dizkiodan. Hasieratik antzezlan egiteko ideiarekin itzuli nuen, antzerkia betitik gustatu zaidalako eta herriarren arteko ariketa polita eta aberasgarria delako.

Zer kontatu nahi duzu lanarekin?

Alde batetik, Erratzuko historiako pasarte hau ezagutzera eman nahi dut eta antzerkia modu bikaina da horretarako. Bertzetik, historian zehar herriarren arteko liskar eta zatiketak anitzetan errepikatu direla erakutsi nahi dugu; mutil-dantzak direla, alardea dela... gaur egun ere 'sorgin ehiza' hori ematen baita.

Antzezlanaren garapen prozesua?

Gidoia prest zegoenean, Josune Gorostegi aktoreari lan hau zuzentzea proposatu nion eta segidan baietz erran zuen. Erratzuko kultur elkarteak beregain hartu zuen proiektua, Amaia Zinkunegik eta jostun talde batek arropaz arduratuko zirela erran zidaten (Migeltxo Pruañok *Baztan* pelikula-ko arropak utzi dizkigu) eta soinu banda Amaia Kordoba herriararren esku utzi nuen. Aktoreei dagokienez, herriko WhatsApp taldean proposatu nuen eta hasiera batean kostatu bazen ere, 40 lagunek eman zuten izena. Paperak banatu eta hirutan irakurketak egiteko elkartu ginen. Orain talde ttikiagotan lanean gabiltza, jolasen bidez gure pertsonaiei nortasuna emanez, mugitzen ikasiz...

Inoiz egin da Erratzun horrelako herri antzerkirik?

Nik dakidala ez. Jendea ilusioarekin ikusten dut, ongi pasatzen dugu eta hainbat adinetako herriarren artean sortzen den harremana eta giroa ezinhobe da.

Noiz egingen duzue antzerkia?

Udazkenerako egin nahi dugu, oraindik ez dakigu urrian edo azaroan. Printzipioz Erratzun egiteko asmoa dugu, baina nork daki zer pasatuko den ondotik, gu denerako prest.

Proiektua ongi ateratzen bada, gehiago etorriko dira?

Ez dakit gehiago etorriko diren, gidoia idaztera norbait animatzen bada, ziur nago gustura hartuko dugula berriz. Bertzenaz, tarteka hau errepikatzen ahal dugu.

Akitzeko, zerbait gehitu nahi duzu?

Eskerrak ematea bertzerik ez zait gelditzen; mila esker Felix Sanzeri istorio hau argitaratzegatik, haren familiari eta Burgiko La Kukula elkarteari baimena eta animoak emategatik, erratzuarrei beti halako prestutasuna erakustegatik eta proiektu honetan parte hartzen duzen guztiei eta nola ez, Josune Gorostegi zuzendariari, mundiala zara!



Akelarreneko atean egin zen bilkura. MARIFA ETA KORO

Udalari bilera bat egiteko eskatu dio Akelarre elkarteak

Bertzeak bertze bisitarien etorrerak eragiten dituen arazoak eta azaroaren 7rako antolatutako ekitaldiez solastatzeko

MARIFA ETA KORO

Udalak azken hilabeteetan hartutako erabaki polemiko batzuk direla eta, Akelarre elkarteak bilera deialdia egin zuen maiatzaren 7rako eta hogeitabat lagun hurbildu ziren.

Bileran, batez ere, hiru afera aipatu zituzten: alde batetik, herria kanpotarrez betetzen denean sortzen diren arazoak. Honi buruzko hausnarketak egin ziren joan den udazkenean eta udalari aurkeztu ondotik, honi buruz solas egiteko bilera bat eskatu zen, baina bilera hori ez da oraindik egin. Bertze aldetik, azaroaren 7rako antola-

turiko ekitaldiak (Logroñoko prozesuaren 410 urteurrena) egiteko trabak izan ziren, eta hondarrean udalaren parte hartzerik gabe egin behar izan ziren. Eta azkenik, ez da ongi ulertzen *Sugarren mendeliburuari* udalak eskaini dion atxikimendu eskasa eta kolaborazio ttikia.

Horrez gain, bestak, martxoaren 8a eta bertze batzuk aipagai izan ziren, non udalaren jarra «arras etsia» izan dela baloratu zen. Xehetasunak azalduz, udalera bertze eskutitz bat bidali eta bilera bat egiteko eskaria aurkezteko adostu zuten.



UTZITAKOA

Sarek antolatutako irteera Atxurirat

Izan Bidea ekimenak antolatutako, maiatzaren 8an euskal preso, iheslari eta deportatuen alde igan ziren 650 tontor horietako bat Atxuria mendia izan zen. Argazkian ageri den talde polit hori elkartu zen Atxuriko kaskoan. Hantxe gosalduta zuten, eta ondotik, kontent itzuli ziren herrirat.

Xaretako hiztegia

- **Kautzuak:** gomazko botak edo katiuskak.
- **Kadira:** aulkia.
- **Karloa:** morkotza, gaztaina gordeta dagoen 'pilota'.

Bizikleten salmenta eta konponketa.

Kanttonberri, 1 | BERA
 T. 948 631 218
 joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
 SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net 943 616 587
 Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

«Proiektuaren barnean dauden 20 lursail inguru herritarrenak dira»

NEKANE ASTIZ GOÑI LEKAROZTARRA

Aroztegiko proiektuak barne hartzen dituen lau lursail ditu Astiz familiak Tellari auzoan. Enpresarekin bizitako esperientzia kontatu dio Nekane Astizek TTPI-TTAPARI.

R. OSKARIZ | LEKAROZ

Lekarozen bizi izan zara beti?

Bai, bertan sortu nintzen, baita hazi eta hezi ere, hemengo txoko ederretan eta bertako komunitatean. Lotura ikaragarri estua dut, bai herritarrekin baita herriarekin ere. Telleriko ur freskotik edan dugu, herriko karrika eta auzoetan barrena galdu gara ezkutaketan, auzolana zer den erakutsi digute gure arbasoek, herriko zaharren ahotik izan genuen Lekaroz erre zutenekoaren berri... Hori da Lekaroz, eta hori da Baztan. Ttikitasunaren handitasuna.

Zein iritzi duzu Aroztegian egin nahi duten proiektuaren inguruan?

Alimaleko astakeria da inposatu diguten makroproiektu suntsitzaile hau. Ezin sinetsi gabiltza, interes pribatukoa den proiektu zentzugabe hau martxan dela oraindik, gestio irregularrak tarteko eta herritarron iritziaren eta lurren gainetik pasatuz, inongo gupidarik gabe eta inpunitate osoarekin. Beldurrezko pelikula bat dirudi. Proiektuak herrian, bailaran eta naturan kalte lazgarriak izanen lituzke: inondik ere jasangarria ez den eredia, inpaktu ekologikoa,

linguistikoa, bailararekin bat ez datorren turismo modeloa eta abar luze bat. Dena den, kalteak ez dira etorkizunekoak soilik, dagoeneko min handia egin du 15 urte inguruko ibilbidea duen amesgaizto honek; kezkak, tripako minak, buruhausteak, beldurra... herria hankaz goiti dago aspalditik. Gutxi batzuk sakelak bete ditzaten; berdin zaie zeren eta noren gainetik pasatu, nor zapaldu, euren irabazia bertzerik ez dute ikusten.

Proiektuaren barnean sartu diren belaiak dituzue. Nolakoak izan da zuen esperientzia enpresarekin?

Gure familiak lau lursail ditu osotara proiektuaren barnean, 20.000 metro karratu inguru, inongo lotsarik gabe ebatsi nahi dizkigutenak. Ez dezagun atzendu interes pribatuko proiektu baterako dela. Prozesua biziki luzea eta nekagarria izaten ari da. Urte andana daramagu honekin bueltaka eta Aroztegia SL. enpresak bidean egin dituen gestio irregular guztien aitzinean, gero eta babes gutiagorekin gelditu gara herritar kaltetuak. Nola lortu zuten 45 hektarea nekazaritza lur birkalifikatzea? Nola lortu zuten interes pribatuko proiektu bat PSIS edo UGPS bihurtzea? Nafarroako Gobernuan UPN alderdiari agintaldia akitzeko bortz egun falta zitzaizkionean, denon harriturarako, gobernua bera izan zen proiektu hau UGPS gisa tramitatu zuena, Baztango Udalarai eskumena kenduz eta herritarron hitza zapatuz. Horrek izugarritzko kolpea suposatu zuen herritarrondako; momentu hartatik, gobernua- ren babesarekin, promotoreak lasaitasun osoz hartu zituen proiektuaren baitan haren aurka zeuden herritarren lur- rak. Ez lurrak bakarrik, baita herritarrak ere. Kaltetuak, gure borondatearen kontra, konpentsazio batzorde batean sartu gintuzten, eta enpresa- ren asmoa da kaltetuek bertan parte hartzea, irabazi eta kos- tuak barne. Hau da, sanea- mendu-sarea egin nahi dute- nean, guri erran nahi digute ordaintzeko. Akaso jendeak ez du jakinen, baina, gaur egun, proiektuaren barnean dauden 20 lursail inguru herritarronak eta komunalak dira, ez dira beraienak. Hainbat dira bertan lurrak dituzten lekarozko fa- miliak, eta ez dugu zentimo bakar bat ere ikusi. Are gehia- go, enpresak bere garaian, kaltetuoi erran zigun lasai egoteko, ez gintuela proiektu- arekin nahastuko eta denak ongi aterako ginela. Proiektu- aren buru den familiak 2013an bere hitza eman zigun,



«Gure belaiak nola dauden ikustera joatean poliziak identifikatu egin gaitu» salatu du Astizek. NEKANE ASTIZ

haien ohore eta baloreak berme bezala gorai patuz.

Eta orain?

Denborak dena uzten du agerian. Gaur egun ondorengo da egoera: zentimo bakar bat ere ez, kaltetuak borondatearen kontra konpentsazio batzorde batean sartuta, kostuak ordainarazteko mehatxuarekin eta lurrak ebatsita. Azken aste hauetan, obrak modu ilegalean hasi zituztenean, baimenik eta abisurik gabe, gure lurretan sartu ziren, gure terrenoetako zuhaitzak bota, ehunka urte dituzten losak kendu... Hori guti balitz, poliziaren presentzia itogarria bizi behar izan dugu azken asteotan, gure belaiak nola zeuden ikustera gindoazenean identifikatuak izanez. Lotsagarria eta beldurgarria da.

Zein da lekaroztarren iritzia orokorra proiektuaren inguruan?

Herri galdekettetan eta batzarretan argi eta garbi ikusi izan da Lekaroztek ezetz erraten diola proiektuari. Badaude proiektuaren alde dauden guti batzuk, baina gehiengoaren iritzia argi dago. Hitz egin dugunean, ez digute aditu nahi izan. Badirudi herritar guztien ahotsak ez duela berdin balio.

Eta zenbait herritarrek eman duten erantzunaren inguruan?

Herriak bakarrik salba dezake herria. Argi dago eta argi dugu. Aroztegia SL enpresak gauza aunitz lortu ditu boterearekin; bere alde jarri zituen bere garaian udalean zeudenak, bere alde Nafarroako Gobernuak. Baina herri duintasuna ez dago salgai, eta gu ez gaituzte engainatuko. Hori da gelditzen dena: herritarron borroka. Horretarako, hainbat bide egon daitezke, eta martxan paratu direnak (plataformak, kanpaldia, mobilizazioak...) indar handiz etorri dira, baita azken aldian indartu ere. Dena da ongi etorria eta dena da beharrezkoa. Herritarrok esker onez eta itxaropentsu hartu ditugu halako ekimenak eta norberak erabaki du zertan parte hartu eta elkartasuna nola erakutsi.



Lekaroztarren elkarretaratzea maiatzaren 15ean izan zen manifestaziora deitzeko. UTZITAKOA

Kanpaldian egoteko, adibidez, indarra, ausardia, denbora eta koherentzia ezinbertzekoak dira eta izugarritzko erantzuna hartu duen ekimena izan da, barnean egon diren zein kanpotik lagundu dutenen alde. Ildo horretatik, herritarrok behar bat identifikatu genuen: elkartasuna eta proiektuarekiko desadostasuna adierazteko bideak eskaintzea. Kontziente gara milaka herritar daudela proiektuaren kontra, baina akaso denok ez garelako ausartzen makina baten aitzinean paratzera.

Hortaz, lekaroztarrak hainbat ekitaldi kultural antolatzen hasi gara. Momentuz, arras positiboa eta hunkigarria izan da erantzuna. Helburua bera da: proiektua geldiaraztea, gure herria eta bailara hiltzen ez uztea, injustiziak salatzea eta kontzientzia zabaltzea. Borroka hau luzea da oraindik eta indar oro da ongi etorria eta beharrezkoa.

Zein ondorio izanen lituzte proiektuak aitzinera segitzeak?

Hasteko, ondorio emozional eta psikologikoak ukaezinez dira. Dagoeneko bizitutakoak eta datozenak: haserrea, kezka, inpotentzia, beldurra, tristura, amorrua, nazka... Pertsonalki, eta herri bezala, biziki nahastuta gabiltzala argi dago. Elkartu ere egin gara, eta indarra sentitzen dugu. Hortik aitzinera, proiektua egitearen ondorio kaltegarriak aipatu ditut dagoeneko: natura, bizimodu xumea, hizkuntza, kultura, lasaitasuna... denak aterako lirake gaitzen. **Akitzeko, zerbait gehitu nahi zenuke?**

Esker mila bihotzez gure lurren eta bizimoduaren defentsan aletxo bat paratu duen pertsona bakoitzari. Denak gara beharrezko, eta lortzekotan, elkarrekin lortuko dugu. Hortaz, mobilizazio eta ekitaldietan parte hartzea animatzen dut mundu guztia. Aditu beharko digute, nahiz eta haiek ez nahi! Behinola, Mikel Laboak kantatu zuen: *Baztango lurrean, Baztan baitan, Baztan izan nintzen*. Arbasoen Baztan. Gurea. Nolakoa nahi dugu ondorengoez?

Zer da UGPS bat?

Udalez Gaindikoko Plan Sektorial bat Nafarroako Gobernuak interes publikokoa izendatzen duen proiektua da. Eskualdeko izaera ematen zaio proiektuari, eta horrela, tokiko udalaren eta haren legediaren mende izateari uzten dio.

«KALTETUOK EZ DUGU ZENTIMO BAKAR BAT ERE IKUSI»

«BADIRUDI HERRITAR GUZTIEN AHOTSAK EZ DUELA BERDIN BALIO»



Herriko beteranoak eta auzapeza, Etxeberriaren alaba eta bilobarekin. GANEX

Maria Josefa Sanzberro omendua Beteranoen Egunean

Gerra garaian erresistentzian parte hartzeagatik salatu zuten eta Bordeletik Alemaniara eraman eta han hil zuten

GANEX

Urtero bezala, Beteranoen Eguna ospatu zuten aurten ere maiatzaren 8an. Battitte Laborde auzapezak egin zuen ongietorria eta gerra garaiko azalpenak eman zituen.

Santinazio lepoko Nikolategiko (gaur egun Pullman ostatua) Maria Josefa Sanzbe-

rrero saratarra eta Mari Jeanne Etxeberria bere alababixia omendu dituzte aurten. Gerra garaian erresistentzian parte hartzeagatik salatu zuten Sanzberro, eta Gestapoak atxilotuta eraman zuen Bordele- rat Etxeberriarekin batera 1944ko ereiarioaren 8an. Ravensbrückera eraman zituzten

handik, Alemanian emaku- mezkoentzat egindako kont- zentrazio eremura. Sanzberro handik eskapatzen saiatu zen, baina fite bildu zuten eta Neuengamme kontzentrazio eremura eraman zuten. Ha- zilaren 13an hil zuten han. Etxeberria gerra akabera- n libratu zuten, 1945eko maia- tzean, eta Biarritzen bizi izan zen geroztik. Eisenhower eta De Gaulle jeneralek Freedom medaila eman zieten bie.

Bi emakume hauen historia kontatu zuen auzapezak eta Bask'elles emakumeen elkar- tekoek haien merezimenduak aitortu eta emakumeen pape- ra gerran goraipatu zuten. Eskerrak eman zizkioten An- gelique Bereauri, Etxeberria- ren alaba gazteenari, Samuel bere semearekin zeremonia- ra bertaratzegatik.

Beteranoen hilarrian plaka bat paratu zuten Sanzberroren omenez eta auzapezak eta Philippe Le Moing Surzur su- prefetak loreak utzi zituzten bertan. Janbattitte Zubiri eta Piarres Lasaga ere bertan egon ziren, Frantziako eta Algeria- ko beteranoen banderekin. Philippe Esponda eta Dylan Alunda izan ziren musikariak zeremonian.



Herri Urratsko materiala saldu zuten.

Herri Urratsen ordeztu bertez lore eta bestak izan ditugu maiatzean

JEAN LOUS BESSONART

Hilabete honen leian ohikoa da ezkongai edo maiatz lorea eskaintzea bizilagunari. Ahan- tzezina da egun horretan os- patzen dela langileriaren bes- ta-borroka ere. Bereziki hiri handietan plazaratuak izan dira aldarrikapen anitz, kezka anitz sortu baitira batez ere pandemiarengatik. Maiatzaren 8an, Frantzia mailan azken gerletako hilak omentzen dira orotarrien inguruetan, aurten, aldiz, kopuru murritzatu batean. Dakizuen bezala, Herri Urrats bigarren igandearekin, modu berezi batean Zaldubi ikasto- laren ekimenez aintziraren inguruan ongi murritzurik iragan behar zena, azken me- mentoan debekatua izan da suprefetaren aginduz. Salba- torezt, haurren lehen komu- nioak hartzen du nagusitasu- na, eta 10 egun geroago men- dekozte, giristinoen besta handia ospatuko da. Loreei dagokienez, garai batean erro- gazioak iragaten zirelarik au- zoetako gurutzetaraino, etxe aitzin guzietan lorez eta ber- dagailuz bezititzen ziren bideak prozesioaren pasaiagatik. Orogen buru, maiatza ama birjinen hilabetea izanik, horra zertarako loreek garran- tzi handia duten.



GANEX

Paella Herri Urrats egunerako

Herri Urratsen karietara, maiatzaren 9an, Olhain ikastolak pae- lla antolatua zuen, bakoitzak beren etxean jateko. Deialdiak arrakasta izan zueb, 500 bat errazio saldu baitzituzten. Ikusi behar zen eguerdian zer lerro zen jatekoaren espero. Eskerrak eman behar zaizkie jatekoaren egileei eta Olhain ikastolako burasoei.

Zuntz numerrikari buruzko formazioak

Herriak zuntz numerrikari buruzko formazioak urrik antolatu ditu, jakiteko nola behar diren egin desmartxak Internetez. Ereiarioaren 7an, 14an, 21ean eta 28an herriko etxean izanen dira. Bi taldetan banatuko dituzte, lehena 09:30etik 12:00 arte eta biga- rrena 14:00etatik 16:30 arte. Interesatuak baldin bazaude- te zuen izenak eman herriko etxeratik deituz (05 59 54 20 28). Bertze aldetik, ehiztarien biltzar nagusia ezeztatua da. Galderak baldin badituzue bulegoko norbaitekin solas egin.

11,65 milioi euroko aurrekontua izanendu herriko etxeak

Inbestimendu saileko diruaren erdia baino gehiago aintzirako obrak eramanen du, 2 650 000 euro

JEAN LOUIS BESSONART

Herriko etxearen aurrekontu nagusia bi sailetan banatua dute: funtzionamenduen saillean, herriko ekipamenduen eta zerbitzuen esku emanak diren ahalak biltzen ditu, baita elkarte, eskola eta egiturentzat diren diru ahalak ere, 6 764 019 eurotan orekatuak: Inbestimendu sailan bilduak dira, bertzeak bertze, eraikitze eta berritzei lotuak diren maileguak, bideko obrak, material berritze beharrak, 4 890 088 eurotan orekatuak. Goratze azkar bat dago 2019tik, gastu horiek herriak dituen diru iturri, diru hornitze eta laguntza baita aintzirako urtegiaren obrak egiteko egin izan den mailegua direla medio eginak izan dira. Hona ekintza anitzen zerrenda: kirol ekipamenduak 130 000 euro; eskola eta eskolaldi inguruko eraikinak 218 000 euro; bideak 240 000 euro; bizi ingurumenaren segurtatzea eta hobetzea 94 200 euro; sareen hobetzea eta zabaltzea 85



Martxoan hasi zituzten aintzirako lanak.

000 euro; mediateka 15 000 euro; zerbitzuen ekipamendua 98 950 euro eta eraikinak 44 000 euro. Halere, diru sailarik handiena aintzirako obrak eramanen du, 2 650 000 euro.

2022-26 ekintza planoa

Urte garrantzitsua urte aintzitzeko ekintza planoa abiatzeko, 2021 ean lo ziren funtsezko dosierak obratzeko helburua dute eta honekin aurrekontu egoera kinka txarretik ateratzea. Diru maila egonkortu ondoan, 2022tik 2026ra arteko urte aintzitzeko ekintza planoa finkatzea 2022tik 2026arte dute helburu.

Zazpi sortze eta sei heriotz deklaratuak izan dira apirilean

Zazpi sortze deklaratuak izan dira azken hilabeteen: Alicia Pouchain, Bilanoa karrikan; Xamain Etxeberria-Perez, Goantonia bidexkan; Elorri Iriarte, Ferreroenea karrikan; Thea Jauregiberri, Barraka bidean; Ione Bereau, Xerrenda Kamietan; Alba Lyssandre, Aintzira Gaina bidexkan eta Arthus El Mouhed-Glandy, Xoxotarte karrikan. Bizitza zoriontsu bat desiratzen die-

gu baita hauen burasoeri ere. Heriotzen aldetik, Julien Madariaga Agirre, 88 urte; Marie-Jeanne Lopez, sortzez Iribarren, 57 urte; Jean Louis Bastres, 84 urte; Anna Larretxe, sortzez Pochelu, 84 urte; Mayie Berasategi, sortzez Etxeberri, 96 urte baita Pierre Chipi senpertar ezaguna Zuraidera erretiratu zena. Penetan gelditu diren familiari eta adiskideei dolumin bizienak.



Sailkapen nagusiko podioa Urdazubiko frontoian. ARSENIO GORDILLO

III. Kontrabandisten Rallysprinta arrakastatsua

Sailkapen orokorrean Marcos Diego eta Juan Luis Garcia nagusitu ziren maiatzaren 8an

ARANTXA ETA IRAIA

Maiatzaren 8an kontrabandisten rallysprintaren 3. edizioa jokatu zuten Urdazubin eta inguruetan. 22 autok izena eman bazuten ere, 18k hasi zuten ibilbidea eta 11k finitu zuten proba. Sariak frontoian eman zituzten. Sailkapen orokorrean, Marcos Diego eta Juan Luis Garcia izan ziren irabazleak, Joseba Lasa eta Maitane Martiarena bigarren eta Aitor Lozano eta Iñigo Fernandez hirugarren. Julien

Mendiberrik eta Mairu Gari-soainek (BMW 328i) irabazi zuten Formula libre kategorian.

Istripua

Bertze alde batetik, maiatzaren 4an istripua gertatu zen herrian. Auto bat bidetik atera zen eta belai bat zeharkatu zuen. Istripu ikusgarria izan bazen ere, autoko bidaia-riak onik atera ziren, zauri arinekin. Zorionez, susto batean gelditu zen dena.

Udalekuak berriz ere martxan jarriko dituzte uztailean eta abuztuan

Joan den urteko arrakasta ikusirik, aurrean ere multijarduerak kanpua antolatuko dute Urdazubin eta ondoko herrietan bizi diren haurrendako. Udaleku hauek bi adin tartetant banatuko dituzte: 7-11 urte bitarteko haurrak, alde batetik, eta 12-16 bitartekoak, bertzetik. Bi txanda izanen dira: uztailearen 12tik 23rat eta abuztuaren 2tik 13rat. Izen emateko epea irekita da jada,

mysportmadness.com web orrian.

Bertzalde, 3-7 bitarteko haurrendako udalekuak antolatu ditu Landa haurtzaindegiak uztailearen 5etik 30era. Izen-ematea ekainaren 18a baino lehen egin beharko da, haurtzaindegian bertan. Aste baterako izen ematea 20 euro kostako da, bi astetarako 30, hirutarako 40 eta lau astetarako 50.



Apirilaren 24an aurkeztu zuten herri mugimendua Iruñeko Ziadadelan. Argazkian Amaigoia Susperregi lesakarra adierazpenak egiten. UTZITAKOIA

«Konkistatu gintuzten arren ez gaituzte guztiz menperatu»

AMAGOIA SUSPERREGI BERGARA NAFARROA BERRIZ ALTZA HERRI EKIMENEN KIDEA

Nafarroa eta Euskal Herriaren askatasuna eta burujabetza aldarrikatzeko helburuarekin Nafarroa Berriz Altza herri ekimena sortu dute. Ekainean manifestazioa egingen dute Iruñean

G. PIKABEA | LESAKA

«Altza gaitezen gure burujabetzaren alde, orain dela 500 urte altxatu ginen bezala». Hari horri tiraka bildu dira Nafarroa osoko 70 lagunetik goiti eta Nafarroa Berriz Altza, *Soberania es libertad* herri mugimendua sortu dute. «Nafarroa eta Euskal Herriaren askatasuna eta burujabetza» dute begiz joa, edo bertzela erranda, «gure eguneroko bizitzan eragiten

digun guztiari buruz libreki erabakitzeko eskubidea» aldarrikatu dute. Mugimendu horretako kidea da Amaigoia Susperregi Bergara (Lesaka, 1973) eta ekimenaren nondik norakoez solastatu da.

Zergatik sortu duzue Nafarroa Berriz Altza herri ekimena?

Nafarroa eta Euskal Herriaren askatasuna eta burujabetza aldarrikatzeko. Gure eguneroko bizitzan eragiten digun

guztiari buruz libreki erabaki nahi dugu inongo esku-hartzerik gabe. *Hemen bizi, hemen erabaki* izanzen litzateke ideia. Gai hauen inguruan erabakitzeaz ari gara: hezkuntza, osasuna, lan harremanak, pentsioak, euskara, langileen prestazioak, berdintasuna, baita gure estatus juridikoa eta gaitzazko euskal lurraldeekin mantendu nahiko genituzkeen harremanen inguruan ere.

Data berezia aukeratu duzue, Noaingo eta Amaiurko gertakarien 500. urtemuga...

Duela 500 urte, hau da, 1521. urtean Nafarroan herri altxamendu bat egon zen 1512. urtean galdutako independentzia berreskuratzeko. Ondotik Noaingo bataila gertatu zen eta urte bat beranduago Amaiurkoa. Eta hortik dator ekimenaren leloa: *Nafarroa berriz altza, Soberania es libertad*, hau da, altza gaitezen gure burujabetzaren alde orain dela 500 urte altxatu ginen bezala.

Nolako herri ekimena da?

Herri ekimen hau Nafarroa osoko 70 lagunetik goitik hausnartu eta adostutako ideia batzuetatik abiatutakoa da, eta hainbat eremutan lanean ari garen eta konprometitu gauden eta izaera errebeldea edo inkonformista erakutsi dugun herriarrok osatzen dugu. Tartean, feministak, langileak, euskaltzaleak, pentsiodunak, intsumisoak, ikasleak, ekologistak, errepresaliatuak eta ekintzaile politikoak gaude.

Burujabetza berreskuratzeko beharra nabarmendu duzue. Azalduko zenuke?

Noain eta Amaiurko batailak gertatu zirenetik 500 urtera, Nafarroak XXI. mendeko erronkei aurre egiteko galdutako burujabetza berreskuratu behar duela uste dugu. Burujabetza falta eta erabakitze ezintasunak sortzen digun gabezia eta kalteez kontzientzia hartu, eta egoera hau irauli behar dugu gure bizi baldintzak hobetzeko.

Zein dira zuen ustez burujabetza falta horren ondorioak?

Batzuetan ez gara ohartzen burujabetza faltak eta erabakitze ezintasunak gure egunerokotasunean duen eraginaz, eta hainbat adibide jarriko ditut ideia hori azaltzeko: langileen prestazioak ezin ditugu hemen arautu; ez dugu pentsio sistema propio bat; ezin ditugu lan harremanak bertan arautu, hau da, ez dugu hemengo langileen estatutu bat; gure udalen kasuan ezin dute sortzen duten soberakina libreki gastatu, hau da, gurea den dirua, ezin dugu gure beharretarako askatasunez erabili; behar ditugun lanpostu publiko guztiak ezin ditugu sortu; hezkuntza eremuan Madrilerekin araututako legearen menpe gaude; eta gainera, Nafarroan lege propioak onartu direnean, Madrilgo Gobernuak helegiteak jarri eta Espainiako auzitegiek deuseztatu edo baliogabetu dituzte. Hori da 19 legerekin pasatu dena.

Nafarren izaera errebeldea ere nabarmendu duzue...

Nafarren izaera errebeldea eta inkonformista dela erraten dugu, eta duela 500 urte konkistatu gintuzten arren, ez gaituzte guztiz menperatu. Horregatik historian hainbatetan altxatu eta borrokatu gara gure eskubideen alde eta injustizien kontra. Horren adibideak dira karlistadak, Gamazada, trantsizio garaiko langileen borrokak, abortuaren aldeko mugimendua, NATOren kontrakoa, intsumisioaren aldekoa, euskararen aldekoa,



Susperregik Nafarroa Berriz Altza mugimenduarekin bat egin du. UTZITAKOA

Itoitzen aldekoa eta duela gutti sanferminetako bortxaketaren kontra sortu zen erantzun ikaragarria edo Altsasuko gazteen aldekoa. Baztanen Aroztegia proiektuaren kontra altxatu diren herritarrek ere izaera errebelde hori islatzen dute.

Pandemiak zein neurritan eragin du?

Mundu globalizatuan, burujabetzaren aldarrikapenazahar kitua gelditu dela erran digute aunitzetan. Ba egoera honetan, estatuak ez dira arazo honi

modu koordinatuan irtenbide bat emateko gai izan. Horregatik soilik estatu batek ematen dituen tresnak lortzea behar bat bilakatu da. Gure kasuan, pandemiak gure burujabetza falta agerian utzi du berriz ere. Erabakiak hemen hartu beharrean, Madrilgo aginte bakkarraren menpe egon gara. Han hartutako erabakien kudeatzaileak bertzerik ez gara izan.

Ekainaren 19an manifestazioa deitu duzue Iruñean. Zein mezu zabalduko zenuke?

Aldarrikapenaren inguruan hausnartu eta bat eginez gero, manifestazioan eta ekitaldi politikoan parte hartzera animatzeko erranen nioke jendeari. Errebeldea eta inkonformista sentitzen den guztia aldarrikapen honen inguruan altxatu eta mobilizatu dadila. **Hori baino lehen zein asmo dituzue?**

Datozen egun eta asteetan hitzaldiak, aurkezpenak eta bertzelako ekimenak egingen ditugu. Horretaz gain, ROTTEN XIII taldeak ekimen honetarako espresuki kanta bat sortu du. Hala ere, ekimenari buruzko informazio guztia eta adostu dugun manifestua www.nafarroaberrizaltza.com web orrian eskuragarri daude. Ekimena finantzatzeko atera dugun kamiseta ere webgunean eros daiteke.

Epe luzera segida izanzen duen mugimendua da?

Momentuz orain hasi eta ekainera bitarte egingen duguna adostu dugu eta horren antolakuntzan buru-belarri ari gara.

Manifestuaren sinatzaileak

Nafarroa osoko 70 lagunetik goitik sinatu dute Nafarroa Berriz Altza mugimenduaren manifestua, eta «beren ideologiaren, sinesmen, jatorriaren edo kondizioaren gainetik» herritarrei, «berriro ere gure subiranotasunaren alde elkarrekin altxatzeko» dei egin diete, «hori baita Nafarroa justu eta aske baten lanabes eta sehaska bakarra». Sinatzaileen artean eskualdeko zazpi daude: Amagoia Susperregi Bergara (Lesaka), Asier Calderon Agirre (Bera), Mikel Leitza Igartzabal (Lesaka), Petti (Bera), Xabier Terreros Gartzia (Lesaka), Patri Arburua Etxeberria (Igantz) eta Oier Iantzi Ordoki (Lesaka).



lazko kopako finala bezala, aurtengo laxoa txapelketako finala ere Arraiozen jokatu dute. JUAN MARI ONDIKOL

Zortzi talde hasiak dira 41. laxoa txapelketan

Abuztuaren 7an Arraiozen jokatu den finalaren bila ari dira Doneztebeko lau talde, Iruritako bi eta Arraioz eta Oizko bana

TTIPI-TTAPA

Joan den urteko geldialdiaren ondotik (kopa formatuan jokatu zuten) maiatzeko lehen asteburuan abiatu zuten Baz-

tan-Errekako Laxoa txapelketaren berrogeita batgarren edizioa. Zortzi talde ari dira aurtengoan, lau Doneztebekoak, bi Iruritakoak eta Arraioz-

ko eta Oizko bana. Azken urteetan bezala, izenaren ondotik, babesle duten etxearen izena daramate talde gehienek aurtun ere. Finala abuztuaren 7an jokatu dute Arraiozko plazan.

Launa taldeko bi multzo

Launa taldeko bi multzotan banatuta ari dira taldeak. A multzoan **Oiz** (Aimar Saldias, Ioritz Zelaieta, Laurendi Zelaieta eta Iker Bereau), **Doneztebe-The Moment** (Pascual Bertiz, Julen San Miguel, Javier Bertiz eta Koldo Legarra), **Do-**

neztebe-Ameztia (Josu Juanena, Xabier Ibarrola, Unai Sapuppo eta Julen Etxebeste) eta **Doneztebe-Titi** (Unai San Miguel, David Mitxeo, Erik Garcia eta Joseba Bengotxea) ari dira.

B multzoan, berriz, **Irurita-Olari** (Iñigo Dendarrieta, Iñaki Azpiroz, Mikel Sagaseta eta Oinatz Jauntsarats), gaur egungo txapeladun **Arraioz Sagardia** (Mikel Mindegia, Xabier Mihura, Miguel Maritorena eta Jon Gamio), **Irurita-Miguelene** (Xabi Barbarena, Gorka Urtasun, Jagoba Ramos eta Egoitz Prim) eta **Doneztebe-Apezteguia** (Jon Apeztegia, Ramontxo Etxebeste, Joseba Juanena eta Ibai Santesteban) ari dira.

Finala abuztuaren 7an Arraiozko plazan

Final-laurdenetan, lehen faseko sailkapenaren arabera bi multzoetako taldeak gurutzatuko dira ekainaren 26an eta uztailaren 3an (lehenbizikoak laugarrenen kontra eta bigarrenak hirugarrenen kontra); irabazleek finalaurrekoak jokatu dituzte uztailaren 17an eta 24an eta finala Arraiozko plazan jokatu dute abuztuaren 7an.

XI. Sagardoaren Txapelketan kontuak beltz jarri zaizkie Juanenea eta Zubiriri

TTIPI-TTAPA

XI. Sagardoaren Txapelketan lehen ari diren sei bikoteetatik lauk lortuko dute finalerdietarako txartela eta lehenbiziko hiru partidak galduta, kontuak beltz jarri zaizkie Larre-Gain sagardotegiaren izenean ari diren Aritz Juaneña saldiastarrari eta Aritz Zubiri goizuetarrari. Maiatzaren 10ean jokatuak hirugarren partidaren aunitz estutu zituzten Urriza eta Zaldua (Bereziartua), baina azkenean 30-28 galdu zuten. Aitzinetik, 30-26 galdu zuten Ansa II.a

eta Labakaren kontra eta 24-30 Goikoetxea eta Aizpuru III.aren kontra. Gauzak honela, lau puntu bertzerik ez dituzte Juanenea eta Zubiriri eta finalerdietara sailkatzeko aukera gutti. Falta zaizkien bi partidak irabazi eta lau puntuak eskuratu ez ezik, tanto guttitan utzi beharko lituzkete arerioak, hauek 0 puntu edo puntu negatiboa izateko. Eskualdeko erremontistek bezala, Etxarri eta Barrentxea IV.ak (Oialumezar) ez dute partidarik irabazi.

Dagoeneko sailkapena matematikoki lortua dutenak Ansa



Juanenea eta Zubiri txapelketaren aurkezpenan. MAIALEN ANDRES

II.a eta Labaka (Setien) dira, jokatuak lau partidak irabazi batituzte (16 puntu). Lautik hiru irabazita, bideratua dute

sailkapena Urrizak eta Zalduak ere. Euskal Telebistak ematen ditu partida guztiak, astelehen gauetan, *Erremontari* saioan.



Ibardingo Igoeraren irudia. lazko geldialdiaren ondotik, berriz ere antolatu du Ziharka Sport eskuderiak. UTZITAKOA

Motor soinuak bueltatu dira gure errepideetara

Urdazubiko Kontrabandisten Rallysprintaren ondotik, Izpegiko Igoera larunbat honetan eta Ibardingo Igoera egingen dituzte

TTIPI-TTAPA

Udaberriarekin batera rally zaleentzako hitzorduak antolatzen ari dira han eta hemen. Maiatzaren 8an III. Kontrabandisten Rallysprinta egin zuten Urdazubin. Marcos

Diego eta Juan Luis Garcia gailendu ziren (*info + 55. orrian*).

Maiatzaren 22an, laugarren larunbatean, Izpegiko Igoeraren hirugarren edizioa izanen dute Erratzun. Motorza-

leak ibiltzeko 13:00etan bidea itxiko dute eta 14:30ean hasiko da igoera. Antolatzaileak gogotik egin dute lan eta «gauza okertzen ez bada» lasterketa honetaz gozatzeko aukera izanen dutelakoan daude.

Ekainaren 5ean, berriz, Ibardingo Igoeraren bortzgarren edizioa izanen dute Beran, Ziharka Sport eskuderiak antolatua. 12:30ean errepidea itxiko dute eta 13:30ean abiatuko da lehenbiziko autoa. Denera lau txanda egingen dituzte.

Bi hitzorduetan iaz Azpeitiko XXXVIII. Urrakiko Igoeran hil zen Iñaki Irigoien Txapu pilotua oroituko dute.

Nafarroako Disc Golf Eskola abiatuko dute Irrisarrin

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Disc Golf Eskola lanean hasiko da Igantziko Irrisarri Land parkean maiatzaren 21etik aitzinera, ortziraleroko 15:30etik 18:30era. Disc Golfa zer den ezagutzera emateko maiatzaren 7an eta 14an ate irekiak izan zituzten Irrisarrin. Bi ortzirale horietan aurkezpen bat egin zuten eta praktikatu, doako saioan. Iñaki Gonzalez Olaizola, Jose Joaquin Rouget eta Mikel Ibarrola izanen dira irakasleak eta maiatzaren 21etik aitzinera hasiko dira interesatuekin lanean. Ibarrolak aipatu digunez, «urteko kuota bat kobratuko du Baxi Basajauna Disc Golf Elkarteak eta Irrisarri Land irekia dagoen ortzirale guztietan egingen ditugu entrenamenduak, gero ere irekia dagoenean partaideek zelaian jolasteko sarrera izanen dute».

Izena emateko 620 37 96 42 telefonora deitu behar da edo grupos@irrisarriland.com helbide elektronikora idatzi.



UTZITAKO ARGAZKIA

Beti Gazte txapeldun launaka mistoan

Bi talde jarri zituen goma gainean Lesakako Beti Gazte sokatira taldeak maiatzaren 1ean, Nafarroako launakako sokatira txapelketa mistoan, eta biak podioan izan ziren, bat txapeldun eta bertzea hirugarren. Bigarren postua Berriozar A taldearentzat izan zen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Julen Olano aurrera Urrezko Aizkoran

Urrezko Banakako Aizkolaria Txapelketa Eusko Label Sariko jardunaldia jokatu zuten maiatzaren 8an Lekunberrin hamabi aizkolarik. Horietatik hiruk lortu zuten hurrengo kanporaketarako txartela, tartean Julen Olano leitzarrak, azken saioan Txomin Amundaraini irabazita (argazkian biak).

MAIATZAK 20 - EKAINAK 3

INFORMAZIOA BIDLATZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



KATUBI

LESAKA Nafarroako Bertso Eskolen Eguna

Mendi ibilaldia, bazkaria, jolasak... bederatzirte eta hamasei urteko gazteek parte hartuko dute.
Maiatzaren 29an.

IKUSKIZUNAK

LEITZA

'Ezinezkoaren logika' magia ikuskizuna

Sarrerak Astiz eta Maimurren 9 eurotan (guraso elkarteakontatzat 7 eurotan).
Herri Aretoan, maiatzaren 22an, 18:00etan.

LESAKA

'El hombre de hojalata' antzerkia

Harriondoan, maiatzaren 22an eta 23an, 19:00etan eta 18:30ean hurrenez hurren.

DONAMARIA

Herritarren arteko herri-kirolak

Maiatzaren 22an, 16:00etan.

'Karnalita kosmikoak' ikuskizuna

Maiatzaren 22an, 19:00etan.

'Txomin eta Txistuman deskontzertuan'

Plazan, maiatzaren 29an,

18:00etan.

GOIZUETA

'Bideak' dokumentala

Maiatzaren 30ean.

AZOKAK

LESAKA

Merkatu ttikia

Maiatzaren 29an, 10:00etatik 14:00etara.

ELIZONDO

Baztango artisauak eta Baztango zaporeak

Plazan, maiatzaren 22an, 29an eta ekainaren 5ean, 10:00etatik 14:00etara.

LEITZA

Eskulangileen azoka

Maiatzaren 30ean, 10:00etatik 14:30era.

Azoka ibiltaria

Ekainaren 6an.

ERAKUSKETAK

LEITZA

Emakume euskaltzaleak

Maiatzaren 17tik 21era, egunero, 19:30ean.

TAILERRAK

LEITZA

Udako tailerrak eta haur txokoa

Ekainaren 28tik uztailaren 23ra. Matrikula: maiatzaren 21etik 28ra.

URDAZUBI

Udalekuak

Hiru eta zazpi urte bitarteko haurrendako.
Uztailaren 5etik 30era. Izen-ematea: Landa haurtzaindegian ekainaren 18a baino lehen.

SOLASALDIK

LEITZA

Goi mailako kirola hizpide

Herri Aretoan, maiatzaren 21ean, 18:30ean. Sarrera: borondatea.

Noingo batailari buruzko hitzaldia

Peio Monteano historialariarekin.
Herri Aretoan, maiatzaren 25ean, 19:30ean.

Bertako basoen garapenaz solasaldia

Arturo Elosegiren eskutik.
Herri Aretoan, maiatzaren 27an, 19:30ean.

KIROLA

ERRATZU

Izpegiko Igoera

Maiatzaren 22an, 14:30ean.

BERROETA

Mendi Maratoi Erdia

Plazatik abiatuta, maiatzaren 30ean, 09:00etan.

BERA

Ibardingo Igoera

Ekainaren 5ean, 13:30ean hasita.

Bortzirietako klubaren arteko kenpo kai txapelketa

Toki Ona kiroldegian, ekainaren 5ean.

BERTSOA

LESAKA

Nafarroako Bertso Eskolen eguna

9-16 urte bitarteko gazteak.
Maiatzaren 29an.

LEITZA

'Bertsoaren harria' liburua aurkezpene eta Alaia Martin eta Joanes Illarregi bertsolarien bertso saioa

Sarrerak Astiz eta Maimurren salgai maiatzaren 21etik aurrera borondatearen truk.
Maiatzaren 29an, 18:00etan.

Nire aukera

«Frontoia bigarren etxea da niretako, gustura sentitzen naiz»

ENAITZ ANSO ETXANDI ORONÓZ-MUGAIRIKO GAZTEA



Kirolzalea eta kirolaria da Enaitz Anso Etxandi (Oronoz-Mugairi, 1998). Mugimenduan beti ongi sentitzen den arren, «ehiza eta frontoiko kirolak» dira bereziki gustuko dituenak. Pilota sakelana duela ibili da ttiki-ttikitatik eta haurtzarotik jo izan du frontoira. Ongi oroitzen ditu pilotaren mundurantz eman zituen lehenbiziko pausoak: «Arraiozko izebarekin, bizpahiru urte baino ez nitue-larik, frontoira joaten nintzen...». Horrez gain, aitzak ere zaletasuna sendotzen lagundu dio: «ttikitatik entrenatu izan dut berarekin eta entrenamendu eta partidetara eramane nau beti. Bera gaztea zenean pilotan aritzen zen eta hori erakutsi dit...». Gaur egun pilota haurtzaroko jolas baino gehiago da Oronoz-Mugairiko gaztearentzat, hitz guttitan, «bizitzako zati han-

di bat». Izan ere, lanetik kanpoko denboran «entrenamenduak asteburuetakako partidei begira egiten ditut eta horretan disfrutatzen dut gehien».

Garaipenenak

Aspaldi hasi zen pilota entrenamenduetara joaten pilotari oronoztarra eta «ttiki-ttikitakoak kontatuz gero 40 bat txapel» irabazi ditu. Edozein modutan, argi dio «gero eta gehiago» kostatzen dela txapel bat eskuratzea. Jantzi duen azkena berriki jokatu duten Josetxo Ezkurra memorialekoa izan da, Oier Arizte-

gi lekaroztarraren kontra jokatu zueneko. Egun horretako oroitzapen polita du: «berotzen hasi nintzen momentutik sentsazio onak izan nituen eta partidaren ere halaxe segitu nuen. Dena ongi ateratzaidan eta uste baino errazago irabazi nuen». Ahoan irribarre zabala zuela jantzi zuen txapela, berarentzat «asteroko lanaren ikur» delako.

Memorial berean finaleraino ailegatu zen orain hiruzpalau urte, baina orduko hartan Josu Eskiroz gailendu zitzaion: «Josu Eskirozen kontra aritu nintzen bera debutatzear zegoela eta hark irabazi egin zidan, 18-14 oker ez banaiz».

Aurkari ez ezik, bikote ere izan du Eskiroz, eta hori ez du atzendu, «berarekin irabazi dudana partida garrantzitsuenetakoa bat» balitz bezala oroitzen duelako: «2016ko Muebles Polque txapelketa izan zen, jubenil mailan».

Berriki Nafarroako txapelketan ere berekin parte hartu du, eta finala galdu arren «bereziarena» izan dela erranen luke: «profesional bat bikote nuela eta bi profesionalen kontra, Laso-Mariekurrenaren kontra, jokatu dudalako. Aunitz gozatu dut txapelketa horretan».

Orain, berriz, Irurtzungo txapelketan murgilduta dabil eta «bikote arras gogorak eta maila haundia» dagoela nabarmendu du. Joera hori bera ikusi du pilotaren munduan azken urteetan: «maila dezente igo da kirol guztietan, jendea arras prestatua dago, lehen baino aukera eta jakintza gehiago baitago».

Pilotaz gozatu, goiti begiratu gabe

Garaipenak eskuratzeko entrenatzea da gakoa eta hori lanarekin uztartzen du Enaitz Ansok: «azken bortz urteetan Burlatan entrenatzen dut Alberto Belokirekin, astean bitan joaten naiz». Horrez gain, badiu frontoian onuragarri gerta daitezkeen bertze alde on batzuk: «arras lehiakorra eta zorrotza naiz neure buruarekin, egiten dudana ongi egitea gustatzen zait».

Aurrelaria da, «arriskatzea» gustatzen zaion horietakoa eta jokoari bizitasuna ematen dietetakoa. Baina, horrek, aldi berean, lantzea ere eskatzen du: «arriskutan sartzeak tantoa galtzeko aukera dakar eta akats horiek zuzentzea da egiteke dudana lanetako bat».

Edozein modutan, pilota «zaletasuna» da berarentzat eta helburu nagusia «gozatzea eta ongi pasatzea» duela nabarmendu du: «gaztetan beti dago goiti ailegatzeko ilusioa edo esperantza baina gutik dute pilotatik bizitzeko aukera hori. Nagoen tokian kontent nago, frontoia bigarren etxea da niretzat, gustura sentitzen naiz».

Koronabirusaren ondorioak

Lanak eta pilotak uzten dion tarte ttikia lagunekin egoteko eta parranda egiteko baliatu izan du Ansok: «dena egiteko denbora dago eta partida dudanean ez zait bertze gauzak uztea inportatzen». Gainera, azken aldian bizi dugun egoerak bestaren tentaldian erortzeko arriskutik urruti utzi du gaztea. Aldi berean, pilotari gisa, ondoriorik eragin dio: «entrenamenduak maskarekin egin behar izaten ditugu eta ezin gara aldageletan duxatu. Gainera, jokatu ditugun txapelketak –estatu mailakoa salbu– Nafarroako pilotarien artean izan dira. Faltan sumatzen da bertze txapelketa batzuk jokatzea».

«LASO ETA MARIEZKURRENAREN KONTRAKO FINALA BEREZIA IZAN DA»

«NEURE BURUAREKIN ARRAS ZORROTZA ETA LEHIAKORRA NAIZ»

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. Herriko Etxeko Plazan etxea salgai. ☎616 24 35 30.



ARANTZA. Zumarrendi baserria salgai. Bidea du etxe atariraino, baita ura eta argia ere. ☎606 96 02 37.

LESACA. Azkaine karrikako 3. zenbakian, 45 m² dituen apartamendua salgai edo errentan emateko. Mobleztatua eta hagitz egoera onean. ☎628 04 20 47 / 647 44 25 09.

ERRENTAN EMATEKO

ELIZONDO. Pisua errentan emateko. Bi logelakoa, komun bat, sukaldea, egongela eta trastelekuarekin. 686 96 48 03 / 661 93 17 27.

LESACA. Pertsona batentzako logela errentan emateko. Urte osorako. Erretzailea ez dena eta animaliarik ez. ☎ 678 85 50 56.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

LESACA. Otsango industrialdean pabiloia errentan emateko. 225m² eta 50 m²ko solairuarekin. ☎670 04 11 61.

ERRENTAN HARTZEKO

BERA. Garaje itxi bat errentan hartu nahi dute Altxate plazatik hurbil. ☎660 01 82 32.

LANA

ESKARIAK

Adindua, garbitasunean eta sukaldaritzan esperientzia duen emakumea lan bila. ☎642 95 07 08.

Emakume bat adinekoak (kanpoko zaintzaile moduan) eta haurrak zaintzen (Haur Hezkuntza ikasia), garbiketarak egiten edo sukaldaritzan (janari-erabiltzailearen txartela) lan egiteko prest. ☎747 42 53 91.

44 urteko pertsona bat adinekoak edo haurrak zaintzeko lan bila. Ordutua, asteburuetan edo interna ariko litzateke. ☎632 75 93 48.

ESKAINTZAK

ZUGARRAMURDI. Bakarrik bizi den adineko bati laguntzeko pertsona bat behar dute; hasieran gauez aritzeko eta gerora, uda aldera, interna gisa aritzeko. ☎659 77 46 65.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Irargarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira **TTIPI-TTAPA** aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da **Ordainketak Rural Kutxako ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

BAZTAN-BAIGORRI aldean oihane-ko lanetan eta zerratzen aritzeko langile bila ari dira. Ahal bada orain hasteko eta bederen negura arte aritzeko, gehiago luzatzeko aukerarekin. ☎0033 681 92 83 09.

IBARDIN. Beola Etxea Bentan, harategian zerbitzatzeko langilea behar dute egun osoz lan egiteko. Frantsesa jakin behar da. Bidali curriculum: beolaetxea@gmail.com.

Denda batean lanean aritzeko pertsona bat behar dute, lanaldi osoan edo erdian. Bidali curriculum: sus-traibelardenda@hotmail.com.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

Katakumeak opari. Ama ehiztari bikaina. Nolako zura... ☎652 75 08 17 / 948 61 50 05

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK

UREPELE. Setter arrazako bi zakurkume bat galdu dira. Bat lemon eta bertzea xuri-beltza. Lepokoak telefonokin. ☎(0033) 677 51 48 27.



ETXALAR. Bi urteko Border Collie zakurra desagertua. ☎661 12 59 08

BERTZELAKOAK

Eskualdean euskara ikastearen truke, artzain lanetan aritzeko prest. Uztailen, abuztuaren edo irailean. Baserriko lanetan aritzeko ikasteko prest. ☎630 58 38 34.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,12
- 1.koa 4,00
- 2.koa 3,85

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,23
- 1.koa 4,09
- 2.koa 3,95

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,20/4,30
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 7,10/7,40
- 8-10 kilokoak: 6,30/6,80

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 72 €

Zerri gizona 1,470€

Zerramak 0,780€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua apirilaren 30etik maiatzaren 7ra bitarteko prezioak)

ZERBITZUAK

ZURGIN-LANAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

MOTORRAK

TAILERRAK



SALGAI



Seat Ibiza salgai. 2009koa, 1.4 TDI, 80 zaldi, klimarekin, kolore beltza. 3.700 euro. Jabe bakarrekoa. Egoera ezin hobean. ☎637 77 48 36.



Ducati Monster 695 motorra salgai. Egoera onean. Azterketa berriki pasatua, pneumatikoak aldatuak eta irailera bitarteko aseguruak. Erabilera ezagatik salgai. 3.600 euro. ☎653 01 95 99.



BMW 650 GS motorra salgai. 2003koa. 27.000Km. Transmisioa aldatua. Prezioa: 3.100 euro. Deitu arratsalde. ☎636 99 66 28.

URTEBETETZEAK



Mikel Errandonea
Pestryakovak
maiatzaren 8an
urtea bete du.
Zorionak eta muxu
haundi bat!



Olaia Azkune
Irazoki gure etxeko
dantzariak 6 urte
bete ditu maiatzaren
14an. Zorionak
panpoxa eta mila
muxu ama, atxa eta
Kattalinen partetik!!!



Beñat Goñi Errandonea 8 urte beteko ditu
ekainaren 3an. Zorionak eta aunitz urtez bi
amatxien, osaba-izeben eta lehengusu guzien
partetik. Muxu haundi bat, pilotari!!!



Zorionak **Oinatz Sarraatea Arretxea**,
maiatzaren 27an 5 urte beteko dituzulako.
Ongi pasatu eguna eta merienda goxo baten
zain egon gara!! Muxu handi bat familia
guztiaren partetik, eta bereziki Aritz, Uxue,
Julen eta Aroaren partetik.

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta
senitartekoak!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean
sartuta; **TIPI-TTAPA**ren **bulegora**
etorrita edo **postaz**
argazkia eta testua gutun-azal
batean helbide honetara
bidalita: Koskontako bidea,
7-1-31770 LESAKA.

KONTATU KONTUAK



'Luze edo Motz' Arantzan. Maiatzaren 8an aski tarte atsegina
pasatzeko aukera izan zuten Arantzan Mirari Martiarena eta Idoia
Torregaraiaren *Luze edo motz* ikuskizunarekin. Umorea erabiliz,
genero gaiak naturaltasunez lantzeko lezio ederra eman zuten.



Elizondoko Lanbide Eskolako ikasleak gurpil-aulkian. Ikasgelan
proposatutako erronkari erantzunez, Elizondoko Lanbide Eskolan
Gizarte Erakundeetako Mendekotasuna duten Pertsonentzako
Arreta Soziosanitarioa ikasten ari diren Ainhoak, Angelak, Carmenek,
Pilik, Pakik, Maitek, Yaminak eta Silviak gurpil-aulkian arratsalde
bat pasatu dute. Beraien hitzetan, «esperientzia aberasgarria eta
bertze batzuek bizi duten egoerarekin enpatizatze» baliagarria
izan da, eta «degaitasun hori duten eta egunero zailtasunak izan
arren, aitzinera egiten dutenei buruz hausnartzeko» bide eman
die. Baina onartu dute epe luzeko kontua izan balitz, «sentimendua
guztiz bertzelakoa» eta «eguneroko bizitzan hagitz gogorra» izanen
litzatekeela, baita «kontrako sentimendu aunitz sentitu» dituztela
ere. Alicia Begiristain irakasleak, berriz, «eskerrak» eman nahi izan
dizkie, «ausardiagatik eta barrenera begiratzeagatik».

HILBERRIAK

- **Jeannette Zunda**, Sarakoa, apirilaren 19an, 89 urte zituela.
- **Jean Pierre Arribillaga**, Sarakoa, apirilaren 20an, 62 urte zituela.
- **Jean Iribarren**, Sarakoa, apirilaren 21ean, 89 urte zituela.
- **Mª Jesus Agosti**, Sarakoa, apirilaren 28an, 93 urte zituela.
- **Jose Luis Bakedano Altamira**, Arantzakoa, apirilaren 28an, 84 urte zituela.
- **Mª Blanca Etxeberria Hualde**, Zubietakoa, apirilaren 30ean Beran, 61 urte zituela.
- **Ignacio Oiarzabal Zabala**, Aranokoa, maiatzaren 1ean, 74 urte zituela.
- **Jose Jabier Perez Arregi**, Legasakoa, maiatzaren 3an, 71 urte zituela.
- **Francisco Jabier Etxeberria Mariezkurrena**, Ezkurrakoa, maiatzaren 4an, 76 urte zituela.
- **Johanes Inaxio Txoperena Zugarramurdi**, Lesakakoa, maiatzaren 5ean, 65 urte zituela.
- **Mª Dolores Garate Mutuberria**, Leitzakoa, maiatzaren 6an.
- **Mª Pilar Cia Gaztelu**, Anizkoa, maiatzaren 6an.
- **Mª Cruz Baraibar Ezkurdia**, Leitzakoa, maiatzaren 6an, 88 urte zituela.
- **Juan Miguel Sein Apeztegia**, Arantzakoa, maiatzaren 9an, 82 urte zituela.
- **Domingo Mariezkurrena Telletxea**, Urrozkoa, maiatzaren 10ean, 87 urte zituela.
- **M. Luz Ugalde Redondo**, Elizondokoa, maiatzaren 11n, 74 urte zituela.

SORTZEAK

- **Naiara Barrenetxe**, Sarakoa, apirilaren 9an.
- **Peio Zabaleta Mariezkurrena**, Leitzakoa, apirilaren 17an.
- **Gabriel George Joan Bele**, Doneztebekoa, apirilaren 23an.
- **Aritz Azkarraga**, Sarakoa, apirilaren 24an.
- **Adei Iturria Guruchet**, Arantzakoa, apirilaren 27an.
- **Ibai Irazoki Esteban**, Berakoa, maiatzaren 1ean.
- **Markel Apeztegia Mindegia**, Doneztebekoa, maiatzaren 2an.
- **Luka Apeztexea Andueza**, Doneztebekoa, maiatzaren 3an.
- **Arthur Ricardo Rocha Pinho**, Doneztebekoa, maiatzaren 6an.

OROIGARRIA

**Mikaela
APEZETXEA ARRIBILLAGA**

Leitzan, 1921-06-04 / 2021-04-21

Nahiz begiak gorrituta
negar premia baitute,
zeinen polita izan den
eskertu behar genuke,
hutsune handi batekin
baina hainbesteren truke,
agur irribarre batez
esan nahiko genizuke.

ZURE FAMILIA



URTEURRENA

Maitia nun zira?
Nik ez zaitut ikusten,
Ez berririk jakiten
Nurat galdu zira?


Zauden lekuan zaudela,
Aske eta lasai
Irudikatzen zaitugu.

Etxekoek, maite zaitugu.



TXUMA EUGUI EUGUI

Elizondon, 2020ko maiatzaren 19a
I. URTEURRENA



OROIGARRIA

**Johanes Inaxio
TXOPERENA ZUGARRAMURDI**
Gure Inaxio

Lesakan hil zen, maiatzaren 5ean, 65 urte zituela



TXOLTXANEKOAK

URTEURRENA

**Alejandro
JUANIKOTENA HITA**

Iruñean hil zen maiatzaren 25ean,
74 urte zituela
I. urteurrena

Erraza izan zen
zu maitatzea,
baina zaila izanen da
zutaz atzentzea.

ZURE ANIAK



OROIGARRIA

**Johanes Inaxio
TXOPERENA ZUGARRAMURDI**

2021ko maiatzaren 5ean hil zen

Ezagutu zintugun guztion
bizipoza izan zinen,
zure irriaren oroitzapena
beti gure gogoan izanen dugu.

Inaxio, nonahi haizelarik ere,
gorde tokia hurbil Kalaxkako lagunentzat!



Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

948 05 90 90
ENPATIA, HURBILTASUNA
ETA BEGIRUNEA
www.izarratanatorio.com

BEILATOKIAK: Elizondo,
Arantzeta, Bera, Igantzi
Doneztebe

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58, 744 48 43 61 edo info@ttipi.eus

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñgo ospitaleetatik edozein herritara


948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

HITZ GEZIDUNAK

	Umore onekoa	▼	Askok eza- gutzen dute	▼	Lizarrako ibaia	▼	Guraso arra	▼	Senidea	▼
	◆ Deitura		Euskaltegi sarea		Iritzia, ustea		Bizkaiko udalerria		Zuhaitz garaia	
	▶		▼		▼		▼		▼	
	Bukaera, amaiera	▶								
	Dut, baina hari									
Zikoina	▼	Toka, dugu	▶	▼		Ba..., badu horren berri	▶			
◆ Izena		Atzapar				Hosto				
		▼			Behiaren arbasoa	▶	▼		Kasik	▶
					Norabait				Ikasle Abertzaleak	
Arnas ezak hil	▶			Txindurria, xinaurria	▶	▼		▼		
◆ Sorterria				Donostiako auzoa						Soldata
				▼		Ez emea	▶			Sufrea
						Gipuzkoako hiria				Nafarroako urtegia
Masurioa	▶		Atomo kargadun	▶		Jupiterren satelitea	▶		Bizkaiko udalerria	▶
Lastairaren euskarria			Europako ibai luzea			Garai, sasoi			Alaitasun	▼
			▼			▼		Poxi, pixka	▶	▼
								Idi, hitz elkartzeetan		
Gure itsasoa	▶							▼	Eguneroko jaki	▶
Pasmo									Bokal mehea	
					Berria, albistea	▶		▼		

◆ Gure lurraldeko ipuin kontalaria


GOITIBEHRA



Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

[1] Baztango herria. [2] Gipuzkoako udalerria, era berean Errearteria deitua. [3] Aleak ehotzeko tresna. [4] Sustrai, zaina. [5] Zentzua galdu duena, zoroa. [6] Modua. [7] Pagoaren familiako zuhaitz. [8] Hamabi hilabeteko denbora bitartea. [9] Huts egin, ez asmatu. [10] Baztango herria. [11] Zerura joan.

ERANTZUNAK



PLAZAN BAZAN



MARIPURTZIL

PELOZIRI

LABIRINTOA

Pareta-txoriak beheko teilatupean egin nahi du habia. Lagun iezaiozu haraino ailegatzeko. Horretarako, habia egiteko baliatuko dituen elementuak segitu beharko dituzu, orden honetan: belarra (1), hosto lehorra (2), lastoa (3) eta luma (4). Gogoratu laukiak banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean.




Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aiurri)

Aurkitu duzu bidea? Hala bada, laukiz lauki pasa dituzun hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu:




HANDITIK TXIKIRA

Zazpi hosto hauek denak indigaztainondoarenak dira. Ordena itzazu handitik txikira, handienari 1 zenbakia emanez eta txikienari 7.



SUDOKUA

Ezagutzen al duzu udaberria errateko bertze modurik? Beharbada zure herrian ez, baina BEDATSE ere erraten zaio, edo BEDATS. Osa itzazu sudokuauren lauki zuriak BEDATS hitza osatzen duten letrak kontuan hartuta (B, E, D, A, T eta S). Gogoratu, sudokua zuzena izan dadin, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



INTERNETEN ERE BAI !
<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Kontaktak bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

781

aleko
irabazleak



ttipi txartela

Josune Sorondo Odriozola
72673152-A
epemuga 2023/04
Zk. 372

ttipi-ttapa

ZOZKETAK

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



2 sarrera

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Kamiseta bat

LA RHUNE

www.rhune.com/eu



Sarrera bat

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK

www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com



Sarrera bat


MARTIKO

www.martiko.com



Lote bat

**LI
BU
RU
AK**



- Haserrea



- Nire gorputzean bizi naiz

ikaselkar

www.ikaselkar.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.baga-biga.eus



www.okilletailerraesp.blogspot.com.es